



# Eskola Antzerkia







53  
Euskara Zerbitzua  
Zabalkunde-lanak

# ESKOLA ANTZERKIA 8



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

**Escola** antzerkia 8 / [prestatzaileak, Iñaki Artola ... et al.]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005  
or. ; cm. – (Zabalkunde-lanak ; 53)  
ISBN 84-457-2356-1  
1. Haur-antzerkia-Antologiak. I. Artola, Iñaki. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Bilduma.  
087.5:82-2(082.2)

Argitaraldia: 1.a, 2005eko abuztua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Prestatzaileak: Iñaki Artola, I. Iturain, L. Mindegia, JM Odriozola, M. Artabe, S. Izagirre

Azala: Jesus Ituriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: mccgraphics. Planta Elkar.

Inprimategia: mccgraphics. Planta Elkar.

ISBN: 84-457-2356-1

Lege Gordailua: BI-1925-05

## AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	7
ERRONKAN AURRERA	
Lukas Dorronsoro .....	9
ANTZEZLANAK	
<b>110. Street-eko geltokia</b>	
Drama. Pasaiako Lezo Lizeoa .....	15
<b>Alberto eta bere lagunak</b>	
Hezibidezkoa. Azkoitiako Xabier Munibe ikastola.....	53
<b>Amona honekin... Kontuz</b>	
Komedia. Legazpiko Domingo Agirre herri ikastetxea .....	73
<b>Aztia</b>	
Abentura. Hondarribiako Talaia herri ikastetxea.....	89
<b>Barre egiten ez duen erregea</b>	
Abentura. Sondikako Gorondagane herri ikastetxea.....	101
<b>Begi bakarren beste begia</b>	
Komedia historikoa. Zumaiako institutua .....	125
<b>Bermeoko portuan</b>	
Kostunbrista. Bermeoko Eleizalde ikastola.....	143

<b>Berta, Berta, agertu zaitetz</b>	
Gernikako Seber Altube ikastola.....	151
<b>Esaten omen dute</b>	
Satirikoa. Bilboko Ibaigane ikastetxea .....	165
<b>Erniora txangoa</b>	
Drama. Aizarnako eskola.....	181
<b>Eskolatik goizegi</b>	
Drama. Aizarnako herri ikastetxea .....	199
<b>Eta bazkalondoan</b>	
Komedia. Aizarnako eskola.....	219
<b>Eta horrela bizitzen gera</b>	
Satirikoa. Hernaniko Langile ikastola .....	231
<b>Gaixo</b>	
Komedia. Amezketako Zumadi herri ikastetxea. ....	253
<b>Gaztetxean edo gazta etxean</b>	
Amezketako Zumadi herri ikastetxea.....	271
<b>ESKOLA ANTZERKIA 1-8:</b>	
<b>ANTZEZLAN GUZTIEN ZERRENDA .....</b>	<b>289</b>

## HITZAURREA

Hamazortzi urte egin ditu, 2002-03 ikasturtearekin, Eskola Antzerkigintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen deialdiak. Hainbat urtetan Eskola Antzerkigintza, Bertsogintza eta Kantagintza laguntzeko deialdiak egin ondoren, 2000-01 ikasturteaz geroztik hiru arlo horiek, irratigintza eta kontalaritza ere batera, Ahozko Adierazmena izeneko deialdiaren barruan sartzen dira, ahozko adierazmenaren lanketa modu osatuan planteatzeko ahaleginak bideratzearen. Lehengo moldean nahiz oraingoan deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan antzezlanak taxutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen fruitu dira liburu hauek. Eskola *Antzerkia 8 eta 9* dute izenburua orain argia ikusten ari diren aleak; aurretik argitaratutako beste zazpiren segida dira, beraz. 15-16 antzezlan bildu dira liburu hauetako bakoitzean: neurri, molde eta tankera desberdinetakoak. Adin eta maila desberdinetan egin, landu eta antzeztuak. Bakoitzaren hasierako aurkezpen orrian azaltzen dira zehaztasunak, gaiaren laburpenarekin batera.

Ikastetxeetako taldeei, laguntza eskuratzekotan, haxe eskatzen zaie: eska-bidearekin batera antzezlanaren testua Hezkuntza Sailera bidaltzea (beraiek asmatua denean Aste Santua arte luza daiteke epe hori); euskara landuz antzezlan prestatzea eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak inguruko beste bi ikastetxetan. Ikasturte amaierarako, antzerki lanketa nola egin den azaltzeko galdekizuna eta emanaldi bakoitzeko ebaluaketa fitxa bat bete eta bidali behar izaten da Hezkuntza Sailera. Deialdi honen inguruan ikastetxe eta talde asko dabil. Zehatz esanda, 2002-03 ikasturtean 237 ikastetxe eta 620 talde. Deialdiaren helburuez edo jardunbideaz gehiago jakin nahi duenak jo beza urtero EHAA-n argitaratzen den Agindura, eskola-antzerki liburuen sail honetako beste zazpietara, *Euskararen Irakaskuntza: 10 urte argitalpena* edota <[www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info)> (NOLEGA) atalera.

Eskoletatik jasotako antzezlanak ez dira Hezkuntza Sailean gordeta geratzen. Eskoletan horien premia badagoela aipatzen dute irakasleek, behin eta



berriz. Premia horri erantzun nahirik egiten da jasotako artean aukeraketa eta, ondoren, argitalpena. Argitaratzeko aukeratu ez diren antzezlanak ere, alfabeto ordenan eta aurretik laburpen fitxa dutela, 20 karpeta osatutako 5 bildumatan daude jasoak. Lehen karpeta aurkibide orokorra da eta bilduma handitu ahala berritzen da. Bilduma hauek ere ikastetxeen eskura daude eskualdeetako Berritzeguneetan.

Eskola Antzerkiaren saileko zortzigarren eta bederatzigarren ale hauetan jasotako antzezlanak 1997-98 ikasturtetik 2000-01era bitartean jasotako arte-  
tik hautatuak dira eta alfabeto ordenan agertzen dira, ez beste inolako lehenta-  
suni begira. 2001-02 ikasturteko lanak eta hurrengo urteetakoak lanketa fasean  
daude eta horiek izango dira sail honetako hurrengo aleetarako oinarri.

Liburu honetako antzezlanak lagungarri gertatuko zaizkio, seguru asko, ikasleekin batera edo bere kasa berriak sortzeko beta edo aukerarik ez duen irakasleari. Beta, modua eta gogoia duenarentzat, berriz, pizgarri izan nahi lukete. Polita ateraz gero, hurrengo liburuetan argitaratua izateko aukera izan dezake. Hartara, beste eskoletara zabalduko da eta seguruenera behin eta berriz antzeztua izango da. Argitaratzen ez bada ere, Bilduman jaso eta beste eskolen eskura jarriko da Berritzeguneetan.

Helburu honekin, hain zuzen ere, ohiko argitalpenari aurtengoan CD-a erantsi diogu. Horrela irakasleak aukeratutako antzezlana Word dokumentuan izango du ondo deritzon zuzenketak eta egokitze lanak era erosoan egin ditzan.

Eskerrik asko antzezlanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei, argitalpen hau gauzatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Lukas Dorronsorori eta bere lankide izan diren GOAZ antzerki taldeko kideei, antzezlanak hautatzen eta prestatzen egindako lanagatik. Hitzaurre honen ondoren, “Erronkan aurrera” idazlana aurkituko duzue 8. Alean eta “Desorekatik orekarara, hirutikan hamaikara” izenburua daraman idazlana 9.ean. Egilea, bi kasutan, Lukas Dorronsoro da. Bertan saiatu da “Eskola Antzerkia 6” argitalpenean “Testua eta itxura: Hamaika galdera eskura!” izenburupean plazaratutako galderetako batzuei erantzuna aurkitzen. 7. alean “Erronka” izenarekin hasitako lanaren jarraipenak dira hortaz ondoko bi hauek. Bihoazkio horregatik ere gure eskerrak. Beste hainbeste, azkenik, prestakuntzan lagundu diguten lankide guztiei, bereziki Blanca Castaño, Lurdes Mindegia eta Iñaki Ituraini.

EUSKARA ZERBITZUA

# **ERRONKA**

Lukas Dorronsoro

Eskola Antzerkia 6 liburuko “Testua eta itxura: hamaika galdera eskura!” hausnarketaren “Hizkera molde herrikoia, arrunta, jaso?” atalak 7. alean jaso zuen lehen erantzuna: “Erronka”. Oraingo honekin jarraipena ematen zaio lan horri.



ESKOLA ANTZERKIA 8 laster ateratzekotan omen dabil Jaurlaritzako Euskara Zerbitzua. Eta, atariko ateak zehazten hasi direnean, Eskola Antzerkia 7an hasitako lana, “Testua eta itxura: hamaika galdera eskura” zertan itaun multzoei erantzuten hasi eta bertan utzi omen nuela eta..., esanez etorri zaizkit. Halaxe da, izan ere. Baina, nik baino sasoi hobea duenen batek aurrera jarraituko zuen esperantzan utzi nuen. Ez omen dio, ordea, inork erronkari heldu. Beraz, hona ni hemen, berriro ere pagano.

Heldu diot bigarren multzoari; hasi naiz irakurtzen: “Hizkera molde herrikoia, arrunta, jaso?”. Sudur-mintzean hazkura gaindi ezinak ziztatu nau, doministikuraino. Usain arraroa dario bi galdera nagusietan lehenenari. Herrikoia, arrunta, jaso, terminoen artean nolabaiteko antagonia ikusten duela dirudi. Arruntak jasoarekiko, agian; baina, herrikoiak beste biekiko...

Oraindik gainetik erauzi ezinik darabilkigun pentsakera zapaltzailearen arrasto nabarmenak daramatzan ekuazio okerraren kiratsa hartu diot:

Hizkera herrikoia = jende xumearena = arrunta = traketsa

Hizkera eskolatua = handizkiena = jaso = kultoa

Ba, ez. Hizkera herrikoia izan daiteke jaso eta kultoa, arrunta eta traketsa izan daitekeen bezalaxe; halaber, hizkera eskolatua izan daiteke arrunta eta traketsa, jaso eta kultoa bezalaxe. Xalbador bertsolariak, Aldudeko mendi-herri txiki bateko, Urepeleko, artzain xumea izanik, hizkera herrikoia zuen, noski; baina, aldi berean, jaso eta kultoa. Ala ez? Duela gutxi arte, Euskal Herrian, mendi aldeko zenbait herritan, baserrietako seme-alabek,

xumeenetakoek ere, “berori”ka egiten zieten gurasoei; apaizari, medikuari eta adin handiko guztiei bezalaxe.

Esanak esan, herrikoï nahiz eskolatu, pertsonaia arlote traketsari hizkera traketsa dagokio; pertsonaia adeitsu eta ele-xuriari, aldiz, mintzaira goxo, kantari, erritmotsua; eta handiustekoari ozen anpuloso gogaikarria. Laburrean esanda: nolako pertsonaia asmatu duzun, halako hizkera mihiratu behar diozu.

“Euskal ikasleek, eskaleek, igeltseroek, irakasleek, baserritarrek, abokatuak, apaizek, jubilatuek...” lanbide edo, hobeto esan, izapide talde horietan bakoitzak badu, bere argotaz gainera, bere izapideari edo ofizioari dagokion hitz-eremu berezia ere. Antzerki idazleak pertsonaia bakoitzari dagokion terminologia berezia paratu behar dio ahoz esateko, bere nortasuna zehatzago ager dadin. Bestalde, jende multzo bakoitzak, bere eguneroko jardunaren bereizgarri erakusten dituen jokaera, jarrera, ibilera..., zehazki deskribatu behar ditu akotazioetan. Izan ere, antzerki hizkuntza ahotsez esaten duguna baino gehiago baita; gure gorputzaren jarreraz, imintzioz... ere hitz egiten dugu; eta hori guztia idatzi egin behar da. Horrela, terminologia bereziaz aparte, talde izaera berezia ere argi jaso ahal izango baitu era honetan idatzitako antzerki gidoia eszenaratu nahi lukeen taldeak.

Hitanoari edo berorikari dagokionean, zer esango dizuet? Ohiturak aldatzen doaz. Bizitzaren legea da. Hala ere, jakin behar genuke aldatzerakoan uztera goazena zergatik ote zen zen bezalakoa eta zergatik uzten ari garen; baita gureganatzen ari garen berria zertan den egokiago eta duinago ere. Gerta baitaiteke, geure sustraiak edo izaera historikoa ezagutu gabe, jatorrizko duintasun mailak axolagabe zapuzten joatea, hartzen ari garen ordezeko berriek haien neurria betetzen ote duten hausnartu gabe.

“Berorika, hika eta zuka”ko hizkeren usadioa agintari eta menpekoen artean botereak historikoki ezarri nahi izan duen nortasun mailatze hierarkikoa onartzetik datorrela uste lezake batek baino gehiagok. Horregatik, geroz eta gutxiago harritzen gaitu hogeï urteko gaztea bere gurasoari “hika” harro ari zaiola ikusi eta entzuteak. Ez dugu esango jokaera hori batere burubiderik gabea denik. Baina, hala ere, banago jatorrian beste motibazioen batek eragin zuela nori hala mintzatze modu hau. Hara nola: guraso zaharrei eta, oro har, adin handiko jendeari “berorika”, izana eman digutenei zor diegun begirunea adierazteko: eskerrona du ardatz eta ez menpekotasuna; norbera-

ren adin inguruko jende arrotzari “zuka”: hizkerarik hotzena; “hika”, berriz, lagunartean eta nabarmen adin txikiagoa dutenekin mintzatzerakoan. Ez dut uste mailatze era hau inorentzat desohore daitekeenik. Ala bai?

Testua batuan idaztea erabaki dugunean, -edonorako ari garenean ohi dugunez-, hikakoari ere araudi bera dagokio, noski, pertsonaiaren nongotasuna nabarmendu behar denean izan ezik. Egia esan, pertsonaia nongo, hango hizkera, idazterakoan, erabiltzea ez zaigu, agian, zailegi gertatuko; baina, esaterakoan, kostako zaio Gipuzkoako goi-herritarrari Bizkaiko itsas-herritarren ahoskera eta doinua ateratzen. Nolanahi ere, ahaleginak balio du berea.

Galdegilea “geure herriko hizkera”z ari zaigunean, tokian tokikoaz ari dela deritzot. Ez da dudarik nori berea barnerakoiago, eraginkorrago eta sentituago gertatzen zaiola, eta, benetakotasun handiagoz doakiola entzuleari. Hala ere, dagoeneko, zorionez, tokian tokiko euskara batua lortzen ari ote garen nago; batuaren araudia errespetatuz, bailara bakoitzari bereizgarri zaizkion lexiko, esamolde, doinu eta bitxikeriez aberasten dugula. Erabiltzeak etxekotuko digu batua eta herritasunez jantzi. Ala ez?

“Erdal giroa nagusi...” Badugu bai, oraindik, zer eta non euskaldundurik; bai erdal giroa nagusi duen hiri eta herririk ere. Alta, duela hogeita hamar urte, nagusi ez ezik, erabatekoa zen toki horietan erdal giroa. Ez gara, beraz, ahaleginean alferrik ari.

Honelakoetan, alokutiboari dagokionean, zein bide hartu? Ba, nonahi bezalaxe, pertsonaien arteko berezitasunen arabera idatzi, eta, halaxe esan ere. Beti, edo gehienetan, egongo da norbait taldean bailarako hizkera etxean ikasia dukeena, eta, halakoaren ekarpena ziztagarri gerta dakieke taldekide zaizkion eskola-euskaradun jatorrei.

Esandakoarekin bigarren galdera multzoa, eta zerbait gehiago ere, erantzun edo saltsatu dudalakoan nago, zuzen edo zeharka.

Hurrengo saio-aldian hirutik hamaikara bitartekoak, laburragoak direnez, liseriaraziko dizkizuedalakoan.

Lukax Dorronsoro



# 110. STREET-EKO GELTOKIA

Ikasleak/Irakasleak  
Drama  
Pasaia Lezo Lizeoa  
Pasaia  
2001

GAIA

Joseba New Yorken bizi den euskalduna da. Bere herritik alde egin behar izan zuen, eta Ameriketako Estatu Batuetan lan egiteko paperik ez du. Behartuta, garraio lan berezi bat egin behar du. Daukan argi izpi bakarra Angie da, ezagutu berri duen neska.

*Iñaki Zabaleta Urkiolaren izen bereko nobelan oinarritua.*





## **PERTSONAIAK**

Joseba  
Angie  
Gregory  
Tom  
Catherin  
Margaret  
Walter

### **1. EKITALDIA**

*Musika: Frank Sinatraren “New York, New York” (1).*

*Oihala zabaldu*

*Igogailu zaharraren hotsa. (8. zenbakia.)*

#### **Hasierako egoera:**

*"New Harlem" hoteleko 417. gelara sartu da Joseba. Bi sarrailak libratu ditu eta berriz barrendik giltzatu. Lepokoa, kapela eta gabardina aulki batera bota ondoren txapa elektriko batean kafe eltzea berotzen jarri du. Gela txikia da. Ezker paretaren ondoan ohatila dago eta beste aldean mahai bat hiru aulkirekin. Paretan Euskal Herriko mapa bat, ohearen*

*parean. Kontrako oineko orpoarekin bultzatuz atera ditu zapat-  
tak eta hatsa ahotik ozenki kanporatuz eskuak berotu ditu.*

**Joseba** Dios, ez da giro aurtengo neguan. Hau hotza egiten duena!

*Eskuak sabelean, begiak sabaiko puntu batean josi eta loak  
hartu du.*

*Benito Lertxundiren "Oi ama Euskal Herri goxoa" (2. zen-  
bakia). Ate hotsek Joseba esnatu dute. Loalditik jauzi batez  
jaikiz, galdezka hasi da.*

**Joseba** Zein da?

**Gregory** Gregory.

**Joseba** Itxaron pixka bat.

*Ketan dagoen kafe eltzea txapatik baztertu du.*

**Joseba** Nire kafea joan da pikutara!

*Berrotutako eskuak galtzetan igurtziz, ateko sarrailak libratu  
ditu.*

**Joseba** Pasa barrenera, Gregory.

**Gregory** Lotan al zinen?

**Joseba** Bai. Zerraldo geratu naiz lanetik etorri ondoren.

**Gregory** Barkatu esnatzeagatik.

**Joseba** Lasai, ez du gehiegi axo1a (*eskua burutik pasaz orrazteko  
asmoz*). Beste alde batetik mesede egin didazu, kafe eltzea  
berotzen utzi baitut eta irakin egin du. Ur guztia joan zaio eta  
ia kafe tantarik ez da gelditu. Zer ordu da?

- Gregory**      *(Erlojuari begira.)* Hamarrak.
- Joseba**      Zer, dagoeneko tabernak itxi al dituzu?
- Gregory**      Ez, ez. Oraindik zabalik geratu dira, baina egiten duen hotza dela eta, ez dabil jende askorik kalean.
- Joseba**      Orduan, ez zenuen entzule askorik izango zure bigarren gerra mundialeko istorioak entzuteko?
- Gregory**      Ez, halaxe da.
- Joseba**      Eta, noski, entzule gutxi izanik, garagardo lata gehiegi ere ezin ordainarazi.
- Gregory**      Hori da okerrena. Zuk badakizu pasadizo bakoitzeko garagardo lata bat ordainaraztea gustatzen zaidala; bestela, taberna ixtean, edandako lata guztiak nire poltsatik pagatu behar; eta hori...
- Joseba**      Zu ez zara galduko ez, baina zure gibela... Tira, kafetxo bat hartuko duzu.
- Gregory**      Bai, pozik. Gaur triste samar sentitzen naiz. Neguarena izango da.
- Joseba**      Edo gaurko garagardoek oroitzapen tristeetara eraman zaituzte. Eser zaitetz, lasai, zeure etxean bezala.
- Gregory**      Etxean? Zokoan esan nahiko duzu, ala?
- Joseba**      Bai, arrazoi duzu, horrelako gelaxka bati etxea deitzea ere.
- Joseba kafea prestatzen ari den bitartean, aulki batean jarri da Gregory.*
- Gregory**      Eta, familiaren berririk ba al duzu?

- Joseba** Ez, orain hilabete arrebak bidali zidan gutunaz gain ez dut besterik jaso. Gabonak laster datozela eta, ea nitaz gogoratzen diren.
- Gregory** Ez dudarik izan. (*Pentsatzen egon ondoren*) Euskal Herriko zein lurraldetakoa zinela esan zenidan?
- Joseba** Jo, Gregory, Altzeimerrak jota zaude! Makina bat aldiz esan dizut nafarra naizela. Ezkurra izeneko herrixka batean jaioa eta mutikotan Iruñeara ikasketak egitera joana.
- Gregory** A, bai. Arrazoi duzu. You know, lehengo kontu zaharrak ez zaizkit berehala ahaztuko, baina gaur egungoak... Aizu, eta zer dela eta etorri zinen paraje haietatik New Yorkera?
- Joseba** Iruñean, filosofia ikasketak egiten ari nintzenean, zenbait ikurrin jarri nituen auzoko jaietan, artean debekatuta zegoela. Polizia nire atzetik zebilen susmoa hartu nuenean, ihesari eman nion.
- Gregory** Eta hemen sartzeko inolako oztoporik izan al zenuen?
- Joseba** Hasieran ez. Turista agiriz sartu nintzen Estatu Batuetan, baina haren balioa bukatu zenean inolako paperik gabe geratu nintzen, Emigrazio Zerbitzuak eskua gainean noiz jarriko zidan beldurrez.
- Gregory** Eta?
- Joseba** Lanik ezin bilatuz estualdi latzak iragan nituen: hemen hilabeteke lana, han astebeteko gosea; loa, berriz, ahal nuen tokian...
- Gregory** Orain behintzat egoera hobean zaude, kafetegi batean sukaldari (*broma doinuan*).
- Joseba** Ez adarrik jo. Baina, bai, hala da. Hiru negu gogor daramatzat hona etorri nintzenetik eta orain urtebete daramat kafetegiko zerbitzu lanetan.

- Gregory** Gustura, gainera!
- Joseba** Hori gehiegi esatea da. Hala ere, palazio honetan bizitzeko adina ateratzen dut eta hori ez da gutxi, auzo honetan bizi den zenbait jenderen egoera ikusita.
- Gregory** Ez horixe. Har ezazu nire egoera kasu. Hilabete honetan ere erretiroko txeketa oraindik ez zait ailegatu eta biharko gara-gardoak...
- Joseba** Orain ere elkarrizketa zure aldera eraman duzu, e. Zenbat behar duzu? (*Irribarrez*).
- Gregory** Bost dolarrekin moldatuko naizela uste dut.  
*Poltsikotik billete bat atereaz Gregoryri luzatu dio.*
- Joseba** Dena den, horren ordainez zure pasadizo horietakoren bat kontatu beharko didazu.
- Gregory** Bai, gustura.
- Joseba** Baina ez dadila oso luzea izan. Gauerdia da jadanik eta bihar goiz jaiki behar dut.
- Gregory** Gosariak prestatzera?
- Joseba** Bai, eta zazpietarako kafetegian egon beharra dut.
- Gregory** Don` t worry, ez naiz luzatuko.  
*Josebak kafe eltzea hartu du eta Gregoryri emango dio. Ondoren ohatilan eseri eta adi-adi entzungo du haren kontakizuna.*
- Gregory** Euskaldunak “cool” dira, jende jatorra. Lehen ere kontatu izan dizut gertakizun hau baina, begira, Parisen...

**Joseba** Putetxekoa?

**Gregory** Bai, baina neska haiek oso errespetagarriak ziren eta putetxe hitza ez zait egoki iruditzen. Hobe izango litzateke plazer-etxe hitza erabiltzea.

**Joseba** Ongi da.

**Gregory** Larunbat arratsaldea zen. Ilunabarreko eguzkiaren izpiek Sena ibaia grisatzen zuten. Gure armada egun batzuk lehena-go sartu zen Parisen eta larunbat hartan eman ziguten soldaduoi lehendabiziko arratsalde librea. Lagun talde bat Bourdeaux Boulevard ondoan zegoen plazer-etxe batera abiatu ginen eta han Marie izeneko neska euskalduna ezagutu nuen. Marie Baiona ondoko herrixka batean jaio zen. Gurasoak laborariak zituen, oso zintzoak, langileak eta elizkoiak...

*Pixkanaka, Gregoryk hizketan jarraitzen duen bitartean argiak itzaliko dira.*

## 2. EKITALDIA

*Metroko hotsak (3. zenbakia).*

*Angie komunikabideetan graduatua da, eta publizitate konpainia batean egiten du lan. Manhattan-en jaio eta hazi da. Beste neska lagun batekin bizi da apartamentuan.*

*Angie, bere lankide eta lagun min Tomekin, metro sarreran azalduko zaigu, publizitate kanpaina baten berri emanez. Angiek esku artean kanpainarako prestatutako kartela daroma, metroan itsasteko asmoz.*

**Angie** Eskerrak lagundu didazun, Tom. Zu gabe ezinezkoa gertatuko zitzaidan lan hau garaiz amaitzea.

- Tom** Ez horregatik, badakizu behar nauzunerako hemen nauzula zure ondoan. Dena den, barkaidazu, baina ez diot inolako zentzurik aurkitzen kanpaina honi.
- Angie** Esan nizun aurrekoan, irrati baterako publizitate kanpaina bat dela.
- Tom** Zein irrati da?
- Angie** WKFM-105. Madison Square Garden-etik ematen dena.
- Tom** Entzuteko musika erraza ematen du irrati horrek, ezta? Orkestrak eta hola.
- Angie** Bai. Gainera normalean irratiko hizlarien boza eta izena bakarrik ezagutzen ditu entzuleak, baina ez haien aurpegiak. Beraz, bisualizatu, ikustarazi egin behar ditugu irratilariak, jendeak ezagutu ditzan.
- Tom** Horretarako baldin bada behintzat, ezin ukatu nire lana ondo bete dudanik. Ikusi besterik ez dago zein kartel deigarriak eta koloretsuak diren. Bestalde, irratilariaren aurpegiak lasaitasuna adierazten du eta horrek jendeari konfiantza eragiten dio. Baina beheko aldeko zati zuri horrek ez nau konbentzitzen.
- Angie** Tira. Horren bidez feed-back-a lortu behar dugu, entzuleek eta jendeak erantzun egin dezake kanpaina honen bitartez.
- Tom** Ba, hori New Yorken lortzea ez da batere erraza.
- Angie** Bai, badakit, nire hiri honetan, kristal eta porlanezko olagarro inperzonal honetan, komunikazioa izatea ia ezinezkoa dela. Baina, kalera jaitsita, jendeak kamisetetan “I love New York” daramala ikusten da, eta hizkuntza desberdin askotan komunikatzen ohituak daude... komunikatzen... edo bakardadeak elkarren bularretan uxatzen.



- Tom** Come on! Ez zaitez hain malenkoniatsu jarri, my princess.
- Angie** Beno, hitz gutxiago, eta lagun ieza dazazu kartel hau ipintzen.
- Tom** Barkaidazu (*aho zabalka*), baina ez naiz sekulan lanean horren goiz hasi. Oraindik erdi lotan nago.
- Angie** Ba, iratzar zaitez, erne egon behar baitugu kartelek sorraraz dezaketen eragina jasotzeko, lehen zarrasta. Jendeak ikusten edo begiratzen ote dituen, zerbait idazten ote duten...
- Tom** Lasai, neska! Dena ondo irtengo da eta! Azken batean zu bezalako printzesa eder batek nola egingo luke zerbait gaizki.
- Angie** Tom! Please... Utzi txantxak alde batera.
- (Angiek azken errepassoa ematen dio kartelari eta momentu batez jendearen iradokizunak jartzeko zuri dagoen hutsunea begiratzen jartzen da. Triste dago)*
- Tom** Angie, nolako mezuak idaztea espero duzu?
- Angie** Ez dakit. Lortu nahi dudana zera da: komunikazioa sortzea publikoa eta irratilarien artean, baina komunikazio ikusgarria. Gero mezu horiek jaso egingo ditugu eta irratitari entregatu, airetara ditzan.
- Tom** Idatziko diren mezuek ez dute zerikusi handirik izango irratiarekin. Beste iragarkietan bezala, honelatsu izango dira: "I love Angie. Tom, 1973ko urtarrilaren 15a."
- Angie** Hori jarriko al zenuke zuk?
- Tom** Gaizki irudiko al litzaizuke, ba?
- Angie** Ez, alderantziz, oso ongi, ene printze urdina. Biziki pozten nau zure laguntasunak.

- Tom** Betiko laguntasunaren muga. (*Triste*)
- Angie** Tira, Tom, badakizu nire lagunik handiena zarela. Maite zaitut.
- Tom** Baina... lagun bezala. (*Etsipen aurpegia jarritz*)
- Angie** Come on! Musu bat (*Angiek adatsa ferekatuko dio Tomi eta musu luzea eman*)
- Tom** Beno, beno. Tomatea baino gorriago jarriko naiz. (*Angie apartatuaz*) Aizu, eta zuk zein motatako mezuak jarriko zenituzke?
- Angie** Ez dakit. Beharbada bakardadearekin zerikusia duen zer bait.
- Tom** Bakardadearekin?
- Angie** Bai. Izan ere, hiri erraldoi honetan beti jende artean bagabil-tza ere, askotan oso bakarti sentitzen gara horma arte honetan, Kellyk esan ohi zuen bezala.
- Tom** Kellyk?
- Angie** Bai. Unibertsitario nintzeneko lagunak. Ikaragarri maite nuen, baina (*triste samar*) aspaldidanik ez dut haren berririk.
- Tom** Ez zaitez tristatu berriro. Lasai, ene maitea. Zuregatik zeruak, eguzkiak eta izarrak margotuko ditut metroko sabaie-tan eta zuhaitzak paretetan. Edo metroko jendetza ez baduzu gogoko, autoz ekarri eta eramango zaitut egunero lanera eta etxera.
- Angie** Autoz? Lehenago atea eta berogailua konpondu beharko dituzu. (*Barrez*)
- Tom** Besterik ez bada, egurrezko ate bat eta ikatzezko berogailua ipiniko dut.

- Angie**                   Utz ditzagun tontakeriak eta goazen. Ea bihar zein ohartxo irakurtzen ditugun. (*Hasperen eginez*)
- Tom**                        Bai, elkarrekin etorriko gara, ezta?
- Angie**                    Ez, kartel guztiak berrikusteko hobe dugu banatzea. Zu zoaz Broadway aldera. Nik inguru honetako geltokiak miatuko ditut Margaretekin.
- Tom**                        Margaretekin?
- Angie**                    Bai, nire pisukidearekin.
- Tom**                        Ongi da. Zure aginduetara, my dear. (*Agur militarra eginaz*)
- Angie**                    Utzi txantxak alde batera. Deituko dizut, ea zein erantzun jaso dituzun ikusteko.
- Tom**                        OK, OK. Baina orain gosaltzera gonbidatzen utziko didazu, ezta?
- Angie**                    Ongi da, baina lantegi ondoko tabernan, e?
- Tom**                        Berorrek nahiago duen bezala.

*(Angiek barre egingo du eta biek elkarrekin alde egingo dute)*

## ARGIAK ITZALI

### 3. EKITALDIA

*Catherinen jantokia, Sukaldeko hotsak (4. zenbakia). Joseba mantala jantzita dago, ontziak garbitzen. Jabea, Catherin, bere buruaz seguru, isil-isilik bertaratu zaio eta gerrialdea besarkatuz "Good morning, Joseba" esan dio. Joseba erne jarri da, gorputza tenka, besoak geldi eta burua bueltatu gabe.*

- Catherin** Good morning, Joseba.
- Joseba** Zer nahi duzu?
- Catherin** Catherin dei nazazu.
- Joseba** Badakit zure izena, Miss. Zer nahi duzu? Oraindik lana daukat.
- (Catherinek kendu egin ditu besoak Josebaren gerritik eta pauso batzuk atzera eman)*
- Catherin** Dakizun bezala, hemen, ni naiz jabea eta zu nire langilea
- (Josebak ez dio erantzun. Eskuak mantalean lehortu eta Catherini begiratu dio)*
- Catherin** Espainiakoa zara, ezta?
- Joseba** Ez, Euskal Herrikoa naiz.
- Catherin** A! Basque. Dena den espainiar hiritarra.
- Joseba** Hori jartzen du pasaporteetan.
- Catherin** Problema dituzue Espainiako Gobernu eta poliziarekin, ezta?
- Joseba** Batzuek dituzte. *(Lehor)*
- Catherin** Eta zuk?
- Joseba** *(Haserretuz)* Zer joko da hau?
- Catherin** Erantzun. Eta zuk?
- Joseba** Ni sukaldaria besterik ez naiz hemen. Nire bizitza ez zaizu axola.

- Catherin**      *(Irribarrez)* Barkaidazu, gizona.
- Joseba**      *(Indar planta eginez)* Nire lanarekin ez bazaude konforme...
- Catherin**      Ez, ez, pozik nago. Horrexegatik egin nahi dizut eskaintza bat.
- Joseba**      Eskertzen dizut nireganako kezka hori. *(Ironiaz)*
- Catherin**      Zer bisado mota duzu?
- Joseba**      Behar dudana.
- Catherin**      Eta Segurantza Sozialaren txartel berdea?
- Joseba**      Bai.
- Catherin**      Gezurra! Ez duzu ez bata ez bestea.
- Biak isildu egingo dira, une batez, elkarri begira. Catherinek hautsiko du isiltasuna.*
- Catherin**      Estatu Batuetan legal egoteko bisadoa indarrean eduki behar da.
- Joseba isilik.*
- Catherin**      Eta Estatu Batuetan lan egiteko Segurantza Sozialaren txartel berdea beharrezkoa da.
- Joseba**      Badaramat urtebete lanean eta ez didazu inolako oztoporik jarri.
- Catherin**      Ongi dakizunez, zuk paper bat ere ez duzu. Eta oraintxe bertan telefonoa hartu eta dei bat egingo banu...
- Joseba**      Nora? *(Larriturik)*

- Catherin** Emigrazio Zerbitzura, noski.
- Joseba** Zer?
- Catherin** Poliziak etorriko lirateke eta...
- Joseba** Joder, zer gertatzen zaizu gaur?
- Catherin** Atxilotu egingo zintuzkete, eta Espainiara deportatu.
- Joseba** Joko zikinean ari zara. Hau xantaia da.
- Catherin** Zer dela hori? (*Josebarengana lotsagabe hurbilduz*). Ez estutu, Joseba. I like you.
- Joseba** Ez dirudi, ba.
- Catherin** Zurekin ondo moldatu nahi nuke, egia. Be good friends.
- Joseba** Ez dut uste Emigraziokoak deitzea lagun-ekintza denik.
- Catherin** Badakit soldata txikia jasotzen duzula, eta dirua irabazteko eskaintza bat egin nahi dizut.
- Joseba** Eskerrik asko. Ez dut horren beharrik.
- Catherin** Lan txiki bat da. Oso erraza. Paketetxo bat garraiatu behar duzu, that's all.
- Joseba** Legez kanpoko, ezta?
- Catherin** Zu ere legez kanpo zaude eta Emigraziokoek ez dute gupidarik izaten.
- Joseba** Beraz, ez didazu beste irtenbiderik uzten.
- Catherin** Dena den, bidaia hori egiteagatik bostehun dolar emango dizkizut, dena ondo ateratzen bada.

**Joseba** Ez dakit, ez dakit. (*Etsita*)

**Catherin** Zure onerako da. Sinplea da egin behar duzuna, (*Joseba ferekatuz*) eta bestela, berriz... (*Telefonoa erakutsiz*)

**Joseba** Ongi da, baina ez dut besterik egingo.

**Catherin** Hori nik erabakiko dut.

**Joseba** Alu nazkagarria! (*Atzera botaz*)

**Catherin** Zer, zer diozu? Piroporen bat edo?

**Joseba** Tira, alde egin beharra dut eta emazkidazu xehetasunak.

**Catherin** Ez ezazu presarik izan, darling.

**Joseba** Zoaz pikutara!

**Catherin** (*Haserre*) Bihar goizeko hamarretan, 110. Street-eko geltokian, New York Times egunkaria 5. orrian irekia duen gizon bat topatuko duzu. Hari eman beharko diozu pakete hau. Bere izena Walter da.

**Joseba** Ongi da. Gogorutzen badut...

**Catherin** Gogoratu beharko. (*Telefonoa erakutsiz*)

*Joseba, paketea hartu, eta badoa ezer esan gabe.*

**Catherin** (*Ironikoki*) Bye, bye.

*Catherinek telefonoz deituko du:*

**Catherin** Hor al da Walter?

**Catherin** A! Zu zara. Lortu dut garraiolaria (*tartea*) konfiantzakoa bai (*tartea*). Ilegala da, bisadorik gabea... bai, gaztea da,

hogeita bosten bat urte..., oharrak eman dizkiot..., bai, bihar goizeko hamarretan 110.Street-eko geltokian..., garraio bakarra egingo duela esan du, baina gure eskuetan dago gehiagorako agintzea... of course, nahi dugun arte..., bestela garbitu..., ez dio poliziari ezer esango..., lasai, nire eskuetan dago..., nik ordainduko diot, bai..., oharkabean pasatuko da mutil hau..., bai lasai, ez daki ezer... Ok, Good Night.

## ARGIAK ITZALI

### 4. EKITALDIA

*Metroko hotsak (5. zenbakia)*

*Joseba, etxerako bidean, metroko estazioan agertuko da. Beldur da, paketea eskuetan baitarama. Pentsakor eta urdu-ri azalduko zaigu.*

**Joseba**

Ez dakit zer egiten dudan, zertan sartu naizen. Nafarroako nire herritxoan banengo, Ezkurran, alde ederra. Ordu honetan jadanik jaikita izango dira. Dagoeneko behiak jezten ari-tuko dira gurasoak.

*Ahotsa off-ean (6. zenbakia)*

**Ama**

Gure mutikoa nola ote dago?

**Aita**

Ez larritu, emakumea, hura ez da galduko, ez. Bere gustuz sartu zen saltsatan eta fardel ederra jaso zuen. Besteak bezala ibili balitz!

**Ama**

Ez izan horren gogorra, Patxi.

**Aita**

Ikasiko du, bai, mundu onean dago ikasteko. Martineneko gaztea ere estudioetan aritu zen Iruñean, baina, hura listoa izaki, ez zen politketan sartu, eta orain lanpostu ederrarekin



dago Diputazioan, jornal handia irabaziz. Gureak, berriz, deus ez, zero.

**Ama** Isil zaitez, Patxi, semea zintzoa da eta ez da galduko. Franco hiltzen denean itzuliko zaigu. Lanean ari da eta ez da gutxi. Mieltxori esan egin beharko diogu bere anaiari karta egin diezaion. Orain dela hilabete pare bat hartu genuen mutikoa-rena eta oraindik ez diogu erantzun. Izan ere, hau komeria idazten ez jakitea. Aldioro erregutan ibili behar.

**Aita** Mieltxok pozik egingo dio berriz ere karta, emakumea.

**Ama** Zerri hiltzerako etorriko omen da.

**Aita** Hau familia gurea: lau seme-alaba eta laurak kanpoan. Inor ere ez baserri lanetan laguntzeko. Maria, moja; Mieltxo, Donostian; Tomas, Frantzian basoan; eta gure mutiko ttikia, ezbeharrez Ameriketan. “Umeak hazi eta nekeak bizi, egia handia.” (*Josebak ere esaera hori ahoskatuko du, irribarre xume batez*)

**Ama** Ez zaitez kexa, Patxi, denak zintzoak eta langileak dira, eta, gainera, osasun ona dute. Hori da printzipalena.

**Aita** Hurrengo zekorra saltzen dugunean, dirua bidaliko diogu Josebari.

*Joseba triste dago, baina irribarrea ere nabarituko da bere ezpainetan. Halako batean begirada irratiko publizitate kartelera zuzenduko du, eta pixka bat itxaron ondoren honako hau idatziko du:*

*Benito Lertxundiren “Oi ama Euskal Herri...” (7. zenb.)*

**Joseba** Bat-batean bakarrik nago, zerua urdina delako, zuhaitzak berdeak direlako... 73-01-21."

ARGIAK ITZALI

## 5. EKITALDIA

*Benitoren musika amaitzean, Nikos greziarraren garrasiak jarri. (9. zenb.)*

*Agertokia atontzen ez badugu amaitu, igogailuko hotsak. (8. zenb.)*

*Joseba, metroko kartelean Genet-en aipua idatzi ondoren, Harlem-eko hotelera joango da. Han, ateko sarraila ireki ondoren, Gregoryrekin topo egingo du.*

*(Zerbeza latak mahai gainean)*

- Joseba** Gabon, Gregory.
- Gregory** Aye, good night. Ate joka aritu naiz eta erantzunik izan ez denez, zuk utzitako giltzekin garagardo lata hauek prestatu eta hartzea erabaki dut. *(Irribarrez)*
- Joseba** Lasai, Gregory. Ez didazu inolako esplikaziorik eman behar. Gaur ez al duzu entzulerik izan tabernan ala?
- Gregory** Bai, izan ditut. Dozena bat garagardo edo ordaindu dizkidate. Dena den, ohi baino beranduago zabilta gaur.
- Joseba** Arazotxo bat izan dut nagusiarekin.
- Gregory** Norekin, emakume horrekin? Whats her name?
- Joseba** Catherin.
- Gregory** Eta, ze arazotxo mota? Larru kontua edo? *(Begiarekin keinu eginez)*
- Joseba** Ez, ez. Beno, saiatu da sexualki ere xantaia egiten, baina nik...
- Gregory** Zuk, zer? Ezezkoa eman al diozu, ba?

- Joseba** Bai, horixe.
- Gregory** Ba, azken urte honetan ez dut emakumerik sumatu gela honetan.
- Joseba** Bai. Egia da sexu premian nabilela, baina ez nago prest emakume baten nahietara makurtzeko, agintea duelako. Baina...
- Gregory** Bai?
- Joseba** Hori ez da okerrena. Nire egoeraren berri badu eta bidaiatxo susmagarri bat egitera behartu nau, diru kopuru baten truke. (*Paketetxea erakutsiko dio Gregoryri*)
- Gregory** Wow, crumbs! (*Paketea eskuetan duela*) Ez dakit zergatik, baina kokaina asuntua dela uste dut.
- Joseba** Benetan?
- Gregory** Bai. Catherin hori sare banatzaile bateko adarra izango da, eta bere burua agerian ez jartzeko zu erabili nahi zaitu.
- Joseba** Hori ez da posible! Nola erabili dezake droga sare batek ni bezalako arrotz bat? Eta kokaina hori, kokaina baldin bada behintzat, nireganatuko banu? Edo poliziarri esango banio?
- Gregory** (*Buru keinuz ezezkoa eginez*). Zuk ez duzu ezagutzen hemengo sistema. Emakume horrek badaki xantaia egin diezazukeela, eta ez diozula poliziarri ezer esango. Ez zaizu komeni-eta. Gainera, pakete hori zureganatuko bazenu, ezingo zenuke inon saldu, ez baituzu inor ezagutzen. Eta saltzen hasiz gero... (*zintzurtean, eskuarekin hilko luketen seinalea egingo du*). Kokaina sare banatzaileek zeharo kontrolatzen dute merkatua.
- Joseba** Zer egin dezaket orduan?

- Gregory** Zergatik ez duzu lan hori uzten eta ez zara bolada batez desagertzen?
- Joseba** Bai, eta? Nora joan? Nola bizi? Ez dut sosik soberan eta beste lan bat bilatzea ia ezinezkoa izango da. Bisadorik gabe nago gainera.
- Gregory** Ba, behin bakarrik sartuko zara mundu horretan.
- Joseba** Eta Catherin zerri horrengatik deportatzen banaute?
- Gregory** Ba al daki non bizi zaren?
- Joseba** Ez, nigandik ez behintzat.
- Gregory** Karta hori gutxienez zure esku dago.
- Joseba** Ez dakit zer egin.
- Gregory** Well, beste aterabiderik ez baduzu, egin ezazu garraioa, eta gero gerokoak.
- Joseba** Kauen la letxe! Ilegal egon Estatu Batuetan, emakume horren mende egon... Zergatik niri? Euskal Herrira itzuli arte ahalik eta lasaien bizi eta lan puska bat egitea besterik ez dut eskatzen. (*Burua esku artean babestuaz*)
- Gregory** Nik oraindik ez dut ulertzen zergatik diozun horrelako bel-durra deportazioari. Azken batean, zure etxera itzuliko zinateke eta hemen geratuz gero, negozio gaiztoan sar zintezke.
- Joseba** Ezin naiz Espainian sartu. Gora-behera handiak izango nituzke bestela.
- Gregory** Eta, nora eraman behar duzu paketea?
- Joseba** 110. Street-eko geltokira. Goizeko 10:00etan entregatu behar diot Walter izeneko bati.

- Gregory** Ba, azti ibili. Eta aholku bat: eskuineko eskua poltsikoan sartuta eraman ezazu, horrela armaren bat daramazula pentsatuko dute. Dena den, lasai, ni ere han izango naiz, eskean, disimulu handiz.
- Joseba** Aizu, eta zerbait gertatuko balitzait; deitu, mesedez, poliziarri, Catherinen kontuaren berri emanez.
- Gregory** Ez da beharrezkoa izango; baina, don't worry, beharrezkoa balitz, nire kontu.
- Joseba** Ezkurrako familiaren zuzenbidea ere badakizu non dagoen.
- Gregory** Tira, tira. Ez da horrenbesterako.
- Kalean polizia sirenak entzungo dira. (10. zenb.)*
- Joseba larritu egingo da, bere bila datozelakoan, baina Gregoryk lasaitu egingo du.*
- Gregory** Lasai, motel. Ez datoz zure bila. Nikos greziarrak gaur mozkor txarra harrapatu duela dirudi, eta etengabe builaka aritu da. Norbait nazkatu eta poliziarri deitu diola dirudi.
- Joseba** *(Sustoa pasata)* Gizajoa!
- Gregory** Beno, ni banoa, zuk deskantsatu beharra ere baduzu eta. Lasai lo egin.
- Joseba** Ahaleginak egingo ditugu. Eta... bederatzietan jaikita ez banago, mesedez, dei nazazu.
- Gregory** Of course. Dударik ez eman.
- Gregoryk alde egingo du eta Joseba oheratzen den bitartean argiak itzali egingo dira.*

## 6. EKITALDIA

*Metroko hotsak agertokia aldatu artean. (11. zenb.)*

*Angie eta Margaret goizeko 08:00etan 110. Street-eko gelto-  
kian dira jada. Angie telefonoz ari da Tomekin.*

- Angie**                    Eta? Times Square-n ba al zen zerbait?
- Angie**                    “Biokimika maite dugu, eta zuek?”... Unibertsitario batzuek idatziko zuten. Ez dugu espero izan behar jendeak idatziko dituen mezuek zerikusi zuzena izango dutenik irratiarekin.
- Angie**                    A, bai. Oso interesgarria. Bota, bota.
- Angie**                    “Love Angie”? Come on, mesedez! Eta idazlea nirekin lan egiten duen argazkilari bat al da?
- Angie**                    Tira, utzi txorakeriak alde batera eta erne ibili! A, eta esnatu, my darling! (*Ironiaz*)
- Margaret**                Zer zioen Tomek?
- Angie**                    Hain goiz jaikita ez zen oso umore onean. Baina pasako zaio.
- Margaret**                Eta? Berririk bai?
- Angie**                    Biokimikako ikasle batzuek idatzitako zerbait, besterik ez.
- Margaret**                Besterik ez? Maitasun kontuak ere entzun ditut, ba, tartean.
- Angie**                    Badakizu Tom nolakoa den. Lehengo lepotik burua!
- Margaret**                Bai, gizajoa. Ni bera banintz, honez gero bidali zintudan pikutara. Ez du ez pazientzia makala.
- Angie**                    Tira, tira. Tom maite dut, baina lagun bezala, ez maitale gisa. Nire pisukidea maite dudan bezala.

*(Irribarrez, Margaret besarkatu eta musukatuko du)*

**Margaret** All Right! Zuk jakingo duzu zertan ari zaren, baina goazen geure egitekoa betetzera. Ez bainaiz goizeko sei eta erdietan jaiki zuri laguntzera, gero txorakerietan ibiltzeko.

**Angie** Ea, begira dezagun, ba, kartela.

**Margaret** Bai, gainera, zorionean zara, zerbait idatzi baitute honetan.

*(Gerturatuko dira eta Margaretetik irakurriko du)*

**Margaret** “Bat-batean bakarrik nago, zerua urdina delako, zuhaitzak berdeak direlako...”

*(Angie zur eta lur geratuko da)*

**Angie** Ez da posible! Oh, my God!

**Margaret** Zer gertatzen zaizu?

**Angie** Kelly hemen da! Bere esaldia da.

**Margaret** Lasaitu zaitetz, neska, eseri. *(Bankuan eseriko dira)* kontaidazu lasaiago, ez naiz enteratzen eta.

**Angie** Kontatu dizut, behin baino gehiagotan, Kelly unibertsitatean izandako estudiante amodioa nuela. Klaseak bukatu ondoren elkarrekin joaten ginen Central Park-era paseatzera. Katagorrien atzetik ibiltzen ginen lasterka, ea nork eskuratzen zuen lehena apustuan. Hamaika saio hutsal egin ondoren, parkeko lakura joaten ginen, zurezko zubiaren barandan jarri eta uhinik gabeko uretan zebiltzan txalupatxoak ikusten genituen, amodioaz mintzo...

**Margaret** Tira, tira. Ez zaitetz hain erromantikoa jarri. Gogoan dut, bai, behin baino gehiagotan aipatu izana. Baina hori aspaldiko kontua da, ala?

- Angie** Ez hain aspaldikoa. Bi urte dira, bi urte elkarren berririk jakin gabe. Unibertsitateko ikasketak bukatzeko garairako aldendu ginen elkarrengandik.
- Margaret** Eta nola dakizu esaldi hori berak idatzi duena?
- Angie** Behin Kellyrekin nindoan 2. zenbakiko metroan Broadway-en gora. Oso sentikorra zen Kelly. Asko maite nuen. Halako batean, bagoiko tentsio hura ezin eramanez, oihuka hasi zen: “Bat-batean bakarrik nago, zerua urdina delako eta zuhaitzak berdeak direlako...” Esaldia behin eta berriro errepikatu zuen. Jean Genet idazlearen aipu bat da.
- Margaret** Eta... jendeak zer zioen?
- Angie** Bagoiko bidaiariak begira geratu bazitzaizkion ere, berdin jarraitu zuten, isilik, kasurik egin gabe. Beste bat eroaldiak eman diona, pentsatuko zuten. Nik eskutik hartu nuen Kelly, eta musu bat eman nion.
- Margaret** How lovely! Baina ziur al zaude bera dena?
- Angie** Ziur ez, baina kasualitate handia da lurpeko trenean hori bera aldarrikatzen duen beste norbait izatea.
- Margaret** Ez da, ba, Tomen kontua izango?
- Angie** Besterik ez genuen behar! Hobe du haren adar jotzea ez izatea. Gainera ez du kontu honen berririk, ez nik kontatuta behintzat. *(Berriro ere kartelera xehetasunez begira jarriko da)*
- Angie** Hizkiak eskuinaldera etzanak dauzka. Ez dirudi Kellyren idazkera denik.
- Margaret** Horrenbeste denbora pasatu ondoren jendeak idazteko modua ere aldatzen du.
- Angie** Bai, hori ere egia da.



- Margaret**      Eta, zer egin behar duzu?
- Angie**            Ez dakit, hemen inguruan baldin badabil, berarekin elkar-  
tzeko ahalegina behintzat egin behar dut.
- Margaret**        Eta nola?
- Angie**            Agian, esaldiaren jarraipena jartzen badut eta hitzorduren  
bat, konturatuko da nor naizen.
- Margaret**        Tira, ez ezazu ametsik egin, baina... ahalegintzea ere ez dago  
gaizki, zer demonio! (*Idatz dezan animatuko du Angie. Bide  
batez, Angie idazten ari dena irakurriko du ahots gora*)
- Margaret**        “Karrika isilik dagoelako, eta zakur bat, zein ni bezain  
bakarrik dagoen, nire aurrean ibiliz doalako. Mantso baina  
urrats irmoz ari naiz mugitzen. Gualdia dela uste dut 22-1-  
1973.”
- Angie**            Honekin nahikoa izango da.
- Margaret**        Eta hitzordua?
- Angie**            Bai, arrazoi duzu. “Ostirala, urtarrilak 24, 18:30ean, 86. St.  
Café Napoli. Angie.” Zer, konforme?      -
- Margaret**        Ez da ez istorio txarra, ongi ateratzen bada.  
  
*(Bien bitartean Gregory agertuko da geltokira eta txoko  
batean jarriko da eskean)*
- Angie**            Ene bada! (*Erlojuari begira*) Ia-ia 10:00ak ditugu eta!
- Margaret**        Bai. Gustura zaudenean... badakizu, “gogozko tokian aldapa-  
rik ez!”
- Angie**            Egia galanta, baina oraindik ere hamar bat geltoki geratzen  
zaizkigu bisitatzeko eta martxa honetan...

*(Gregoryri txanpona botako dio)*

**Margaret** *(Irribarrez)* Gustura sumatzen zaitut.

**Angie** Ez da gutxiagorako.

*Alde egingo dute, lepotik heldurik.*

*Metroko zarata hotsa entzungo da, baita oin hotsak ere. Joseba azalduko da paketea eskuetan duela eta eskuin eskua poltsikoan, Gregoryk esan bezala.*

**Joseba** Psss! Psss!

*Gregoryk aurpegi aurreko estalkia kenduko du, eta keinu egingo dio Josebari, isilik egon dadin.*

*Ordulariak hamarrak joko ditu. (12. zenb.)*

*Handik pixka batera Walter izeneko pertsonaia agertuko da betaurreko beltzak dituela eta egunkaria besapean. Batera eta bestera begiratu ondoren New York Times egunkaria 5. orrialdean irekiko du.*

*Segundo batzuetara, Joseba inguratuko zaio zalantzakor.*

**Joseba** Barkatu. Ordurik ba al duzu?

**Walter** Hamarrak, puntu-puntu. *(Lehor)*

**Joseba** Walter al zara zu?

**Walter** Eta zu, bisadorik gabeko euskalduna?

**Joseba** *(Josebak modu txarrez begiratuko dio). Pakete hau dakarkizut Catherinen partetik. (Poltsatik atera eta luzatuko dio). (Walterrek, inor ez datorrela ziurtatu ondoren, paketea hartu eta gain-begirada bat botako dio)*

- Walter** Thank You. Hurrengora arte. (*Alde egingo du*)
- Joseba** (*Ahopeka*) Ez da hurrengorik izango. (*Batera eta bestera ongi begiratu ondoren, irribarretsu begiratuko dio Gregoryri*)
- Joseba** Kitto! Bukatu dut! (*Lasaitu egingo da hasperen eginez*)
- Gregory** Lasai, gogorrena pasa da.
- Joseba** Dios! zer egin dut nik saltsa honetan sartzeko? Hiri arrotz honetan, lagunik gabe.
- Gregory** Et, et... Zer diozu?
- Joseba** Barkatu, bai, Gregory, zeu bakarrik.
- Gregory** Euskal Etxekoak ere bazenituen, ba.
- Joseba** Bai, zenbait euskaldun ezagutu nituen, hasieran lagundu zidaten, baina zer espero nezakeen haiengandik? Betiko laguntza? Hiri hau horren bakantzailea da. Bakoitzak atera behar du bere burua aurrera, bestela zureak egin du! Dios! Euskal Herrian banintz...
- Gregory** Tira, Joseba, ez zaitetz horrela jarri. Bukatu da amesgaizto hau.
- Joseba** Bai, arrazoi duzu, bostehun dolarrak kobratu ondoren libre naiz. Lantokia utzi egingo dut, sare horretatik ihes egin eta hiru hilabeterako adina diru izango dut, beste lan bat bilatzen saiatzeko.
- Gregory** Ordurako, gainera, ziur Franz..., edo Franco, edo dena delako hori hilko dela.
- Joseba** Jode, hala balitz! Ezkurrako mendiak berriro ere ikusi ahal izango banitu!

- Gregory** Lasai hartu, gizona. Dena iritsiko da bere orduan.
- Joseba** Bai, espero dezagun. (*Joseba publizitateko kartelera hurbilduko da eta harriturik begiratuko du*)
- Joseba** Hara! Atzo jarri nuen Jean Genet-en aipuaren jarraipena idatzi du norbaitek.
- Gregory** Zer aipu eta zer arraio?
- Joseba** Atzo etxera nentorrela, irrati kate honetako publizitate kartela ikusi nuen, nahi genuena idaztera gonbidatuz. Bakardadeak eta tristurak itota, Jean Genet-en "Funeral Rites" nobelako aipu hau idatzi nuen.
- Gregory** Eta?
- Joseba** Ba, orain, Angie izeneko norbaitek horren segida idatzi du, baita hitzordua eta lekua zehaztu ere, elkartzeko.
- Gregory** Ezagutu nahiko zaitu.
- Joseba** Baita zera ere!
- Gregory** Beharbada, zu bezala bakarrik sentitzen den norbait da eta... Aizu, aiku, ni hona iritsi naizenean bi neska amerikar gazte zeuden kartel horren inguruan.
- Joseba** Bai?
- Gregory** I promise. Oso itxura ederrekoak ziren, gainera, eta eskuzabalak, limosnatxo bat eman didate eta.
- Joseba** Ez zara, ba, adarra jotzen arituko?
- Gregory** Ez, Joseba. Ni zu banintz, zita horretara itsu itsuan joango nintzateke, ez baituzu ezer galtzekorik.

- Joseba**           Eta irabaztekorik?
- Gregory**           Bai, lagunak. Eta horren premia baduzu.
- Joseba**           Bai, arrazoi duzu. Agertuko naiz, baina hori etzirako da, eta aurretik nagusiarekin moztu beharra daukat, Catherin urde zikin horrekin.
- Gregory**           Hobe duzu, bai. Arratsaldean lanera joatekoa al zara?
- Joseba**           Ez. Bihar arte jai eman dit, gaurkoa lan gogorra izango zela-koan edo.
- Gregory**           Ez dago batere gaizki, 500 dolar ordainduta. (*txantxetan*). Nik ere...
- Joseba**           Bai, arrazoi duzu. Eta eguna uste baino hobeto atera dela aprobetxatuz, utz iezadazu zu bazkaltzera gonbidatzen.
- Gregory**           Ez dakit, ba! Baina ez oso leku elegantean (*Arropak begiratu-tuz*), ez naute onartuko eta.
- Joseba**           Ez dudarik eman. (*Barrez*)

## ARGIAK ITZALI

### 7. EKITALDIA

*Sukaldeko hotsak. (14. zenbakia)*

*Hurrengo egunean, Joseba kafetegian lanean arituko da, i-txura eginez.*

- Joseba**           Dios! hau duk ajea hau! Dirudienez, uste baino gehiago pasa gintuan edarian Gregory eta biok. (Erlojuari begiratuz) Eta Catherin alu hori oraindik ere agertu gabe.

*Berehalakoan agertuko da Catherin. Josebak, oharturik, lan itxurak egingo ditu.*

**Catherin** Zer moduz atzo?

**Joseba** Niri galdetzen al didazu?

**Catherin** Nori, bestela? Ez dago besterik hemen.

**Joseba** Eginbeharra bete nuen.

**Catherin** Badakit. Guk dena dakigu.

**Joseba** Ongi baldin badakizu, zergatik galdetzen didazu? Agindutakoa egin dut eta orain azken diru saria eskuratu nahi dut.

*Catherinek, gutunazala eskuetan duela, Josebari lepotik helduko dio.*

**Joseba** Mesedez...! (*Besarkadatik libratuz eta gutunazala hartu nahian*)

**Catherin** Zergatik gaitzesten nauzu? Makina bat gizonek desiratzen dute nire gorputza, beraien besoetan eduki nahi nindukete, eta zuk atzera egiten duzu. (*Mesprezuz eta gutunazala ezkatatuz*)

**Joseba** Zoaz, bada, desiratzen zaituzten gizon horiekin. Ni baino atseginagoak izanen zaizkizu.

**Catherin** Gazteak gustatzen zaizkit, zaldikoak bezala izaten baitira. Baina zu ez, zu hotza zara eta horregatik atsegin zatzazkit.

**Joseba** Gezurra. Zuk dena eskuratu nahi duzu, dena menderatu. Eta kontra eginez gero orduan eta nahiago.

**Catherin** Asko ikasi behar duzu oraindik, kanpotarra.

**Joseba** Bai, baina ez zugandik. Emadazu dirua eta ahaztu nitaz.

- Catherin** Nik nahi dudana egingo duzu zuk!
- Joseba** Zuk emadazu egindako lanaren ordaina. Eta sexurako gogoan baduzu, ordain iezaiozu gigolo bati.
- Catherin** Arlote ergela! Ez zara emakume batekin gizon jokatzeko gai. Zakil gabea!
- Joseba** Zuk bai ez dakizula emakume jokutzen. Zer uste duzu, xantaiaz eta diruz dena eros dezakezula?
- Catherin** Tori dirua, baina garraio gehiago egin beharko dituzu oraindik.
- Joseba** (*Suturik*). Ez, ez. Ez garraiorik eta ez sukalderik. Nirekikoak egin dituzu dagoeneko. (*Gutunazala eskuetan duela*)
- Catherin** Emigraziokoak deituko ditut eta horiek bidaiak luzeago bat emango dizute.
- Joseba** Deitu lasai. Emigraziokoak deitzen badituzu, ni poliziarengana joango naiz. Ni bakarrik ez, zu eta zure lagunak ere izorratu egingen zarete orduan.
- Catherin** Alde hemendik, you fucking stupid! (*Oihuka*)
- Josebak dirua kontatuko du, lasai arraio, eta dena dagoela ikustean, hatzarekin keinu eginez, pikutara bidaliko du. Catherin haserre bizian geratuko da eta telefonoa hartuko du.*
- Catherin** Walter?

ARGIAK ITZALIKO DIRA

## 8. EKITALDIA

*Lou Reed-en “Satellite of Love” kanta. (15. zenb.)*

*Arratsaldeko 04:30ean Angie Cafe Napoli-n mahai batean eserita agertuko da, bakarrik. Kellyren zain dago eta urduri begiratuko du erlojua. Halako batean, Joseba sartuko da, ez da Angiek espero duena, baina berarengana hurbilduko da.*

**Joseba** Angie?

**Angie** Bai. Nondik nora ezagutzen nauzu, ba?

**Joseba** Ez zaitut ezagutzen, baina zu ez al zara, ba, Jean Genet-en zita jarraitu eta hitzordua zehaztu duena?

**Angie** A, bai, bai.

**Joseba** Eta ez ninduzun ni espero.

**Angie** Egia esan, ez.

**Joseba** Lasai, ba, banoa. Ez da ezer gertatzen.

**Angie** *(Pixka bat pentsatu ondoren)* Ez, ez. Please, do sit down. Nik egin dut gonbitea eta ez da itxurakoa horrela bidaltzea.

**Joseba** Benetan ez zaizu axola?

**Angie** Ez, lasai. Zer hartu nahi duzu?

**Joseba** Nik kafe expresso bat nahi dut. Eta zuk?

**Angie** Ezer ez. Badaukat. Eskerrik asko.

*Isiltasun une baten ondoren.*

**Angie** Bitxia da Jean Genet-en aipu batez ezagutu dezagun elkar.



- Joseba** Oso aipu bereziaz gainera.
- Angie** Zein izen duzu?
- Joseba** Barkatu, oraindik ez naiz aurkeztu. Ni Joseba naiz (*Eskua luzatuz*)
- Angie** Joseba? Inoiz entzun gabe nuen izen hori. Nongoa zara?
- Joseba** Euskal Herrikoa. Ba al dakizu non dagoen?
- Angie** Ez ongi. Entzun dut euskaldunez, baina ez dakit gauza handirik. Espainian dago, ezta?
- Joseba** Espainia eta Frantzia artean, mugan. Zati bat Espainian eta bestea Frantzian.
- Angie** Eta, zer egiten duzu hemen?
- Joseba** Gaur artean lan egin eta urte batzuk pasa. Eta zuk, zer?
- Angie** Publizitate konpainia batean egiten dut lan. Hain zuzen, mezuak idazten genituen kartela nik diseinatutako kanpaina batekoa zen.
- Joseba** Bai, bitxia izan da gure topaketa.
- Angie** Zergatik idatzi zenuen aipuaren lehen zatia?
- Joseba** Oso nekaturik eta asperturik eta bakardadeak jota nentorren hotelera.
- Angie** Hor inguruan bizi al zara?
- Joseba** Bai, 110. kaleko New Harlem hotelean.
- Angie** Ni kale batzuk beherago.

- Joseba**           Eta, nahiz eta geltoki berean hartu trena, ez dugu inoiz topo egin.
- Angie**            Ez, baina elkar ikusi bagenu ere berdin izango zen.
- Joseba**           Egia da. New York-ek irentsi egiten gaitu.
- Angie**            Jarraitu, jarraitu.
- Joseba**           Metrotik jaitsi nintzenean kartel hura ikusi nuen eta zerbait idazteko gogo eman zidan. Iseka egin nahi banu bezala.
- Angie**            Nori iseka?
- Joseba**           Ez dakit, jendeari, edo nire buruari. Holaxe, Genet-en aipua, buruz ikasia, etorri zitzaidan eta idatzi egin nuen.
- Angie**            “Bat-batean bakarrik nago, zerua urdina delako, zuhaitzak berdeak direlako.”
- Joseba**            “Karrika isilik dagoelako, eta zakur bat, zein ni bezain bakarrik dagoen, nire aurrean ibiliz doalako...” Bigarren zati hori zuk idatzi zenuen, Angie. (*Begietara begiratzuz*)
- Angie**            Oroitzen dut, bai.
- Joseba**            Baina zergatik erantzun zenuen? Harrituta utzi ninduzun.
- Angie**            Uste nuen beste mutil batekin ari nintzela komunikatzen. Garai bateko unibertsitateko lagun min batekin, Kellyrekin hain zuzen. Baina istorioa luzea da eta...
- Joseba**            Dezepzioa hartu al duzu ate horretatik sartu dena ni nintzela ikustean?
- Angie**            Dezepzioa ez, ustekabea. Nire buruan eraiki dudan puzzlea goitik behera hautsi zait. Baina, bestalde, esaldi hori idatz

dezakeen pertsonarekin elkarteari interesgarria deritzot. Gainera, topaketarako deia nik egin dut, ala?

**Joseba**

Bai, hala da.

**Angie**

O.K. Presarik ez baduzu kontaidazu zer dela eta zaitugun zure herritik hain urrun.

**Joseba**

Ez, ez. Nik ez dut inolako presarik. Oso gustura nago gainera. Baina, gero, zuk Kellyrena ere kontatu behar didazu, e?

**Angie**

All Right. Baina hasi zeu.

*Joseba bere istorioa kontatzen hasiko da.*

*Lou Reed-en "I love you" kanta (16. zenb.) Argiak pixkana-ka itzaliko dira.*

## 9. EKITALDIA

*Kanta amaitzean argiak piztu.*

*Joseba eta Angie metroko sarreran izango dira etxera bidean. Besotik harturik doaz, Josebak eskuin eskua poltsikoan badu ere.*

**Joseba**

Ustekabean orduak aurrera egin dute.

**Angie**

Bai, bat gustura dagoenean...

**Joseba**

Bai, hala da. Orain artean hemen nuen lagun bakarra Gregory zaharra zen, baina...

**Angie**

Baina? (*Irribarrez eta Joseba estutuz*)

**Joseba**

Baina, bat-batean ez nago bakarrik. Gaua urdina delako, zuhaitzak biluzik daudelako, kaleak mintzatzen ikasi duela-

ko, eta neska bat, ni bezain bakarrik dagoena, nire ondoan dagoelako. Uste dut laster egun argia dela.

*Angiek lurrerantz zuzendu ditu begiak, irribarrearen arrastoak marraztu zaito. Ez du ezer esan.*

*Halako batean, pauso hotsak entzungo dira. Mantso-mantso lehenik, gero azkarrago. Walter agertuko da eta bikotearengana hurbildu ondoren, tiro egingo dio Josebari.*

**Walter**

Tori zure herrira bueltatzeko bisadoa!

*Tiro hotsak. (19. zenb.)*

**Joseba**

Zer egiten...

**Angie**

Ez! Ez! Zer egiten duzu?! *(Bere onetik irtenda korrika, Walterren atzetik abiatuko da. Eskuaz hark daraman ileordekoa kenduko dio. Ondoren Josebarengana hurbilduko da, zeina zutik egon ezinik dagoen)*

**Joseba**

Walter nazkagarria! *(Hitz totelka)* Nireak egin du!

**Angie**

Ez, ez, Joseba. Onik aterako zara. Ikusiko duzu.

**Joseba**

Ez. Gu bion artekoa ederregia zen, ongi ateratzeko.

**Angie**

Ez ezazu horrelakorik esan.

**Joseba**

Ez. Entzuidazu. Dei izeaiozu nire lagun Gregoryri, telefono honetara *(papera aterako du poltsikotik)*, eta esaiozu gertatutakoa. Berak badaki zer egin behar duen.

**Angie**

Bai, laztana. Baina ez nazazu orain bakarrik utzi.

**Joseba**

Patua. *(Begiak bilduko ditu)*

*Angiek Joseba besarkatuko du negar malkotan.*

*Anbulantzia eta polizia sirena hotsak entzungo dira. Argiak  
pixkanaka itzali.*

*Agurtzen ari direnean Lou Reed-en “Walk on the Wide Side”  
jarri. (21. zenb.)*

# ALBERTO ETA BERE LAGUNAK

Ikasleak  
Josu Arabaolaza Aldazabal  
Eneritz Artetxe Eizagirre  
Jone Breña Alberdi  
Zeneida Fernandez Martinez  
Leire Letamendia Juaristi  
Hezibidezkoa  
Azkoitiko ikastola-Xabier Munibe  
Azkoitia  
2001

GAIA

Lagun talde batek denda bat antolatzen du, kanpaldi bat egiteko dirua atera behar duelako. Eta, azkenean, erakusten duten bihotz onari esker, ezusteko laguntzak izango dituzte.



## **PERTSONAIAK**

Andereño  
Alberto  
Miren  
June  
Joanes  
Ama  
Emakumea  
Haurra  
Mutikoa  
Neskatoa  
Jendea

### **1. EKITALDIA**

*AGERTOKIA.- Eskola atari bat.*

#### **1. agerraldia**

*-Andereño eta Alberto-*

*(Oihala zabaltzen denean, eskuin aldean, erdi paretik atzexeago, andereño bat ari da, aulki batean eserita, azterketak zuzentzen) (Geroxeago, Alberto, bosgarren mailako ikaslea, agertzen da ezker aldetik, pozik eta kantari)*



**Andereño**      *(Alberto ikustean)* Zer, Alberto, pozik zatoz!

**Alberto**        Bai! Notak eman dizkigute!

**Andereño**      Eta zer moduzkoak?

**Alberto**        txarrak izan balira ez nintzen kantuan etorriko!

*(Erakuts biezazkio)*

**Andereño**      *(Irribarretsu)* Asko pozten naiz, Alberto. Jarraitu horrela.  
*(Bere lanari jarraitzen dio)*

## 2. agerraldia

*-Lehenagoak eta Miren-*

**Miren**            *(Ezkerretik agertuz)* Kaixo, Alberto!

**Alberto**        Kaixo, Miren!

**Miren**            Nota onak eman al dizkizute?

**Alberto**        Ezin naiz kexatu, oraingoan.

**Miren**            Batez bestekoa zenbat?

**Alberto**        Bederatzi, juxtu-juxtu.

**Miren**            Juxtu-juxtu!... Zortzirekin ere konformatuko nintzateke ni!

**Alberto**        Zenbat eman dizute?

**Miren**            Bost eta erdi.

**Alberto**        Ez dago hain gaizki ere, neska.

**Miren** Matematikako egun txar harengatik izan ez balitz, baina... Zer egingo dugu!

**Alberto** Gaizki egin zenuen, ezta?

**Miren** Bai. Eta bi jarri zidan.

**Alberto** Harritzekoa! Zu ondo ibili izan zara beti matematiketan, ez?

**Miren** Izeko Judit erietxera eramán zuten ebakuntza bat egitera eta, nola haur txikiak dauzkan, ba, gure amak joan behar izan zuen haien etxeko lanak egitera.

**Alberto** Eta zuen etxeko lan guztiak zure gain erori ziren.

*(Joanes eta June, aurrekoen lagunak, agertzen dira ezkerretik) (Une berean, Andereñok eskuinetik alde egiten du)*

### 3. agerraldia

*-Alberto, Miren, Joanes eta June-*

**Miren** Astebete eta gehiagoan ez nuen liburu bakar bat irekitzeko ere denborarik izan.

**Alberto** Beste guztietan nota onak eman dizkizute behintzat.

**Joanes** *(Tarteratuz)* Niri, batez bestekoa, hiru jarri didate. Baina berdin-berdin zait.

**Miren** Eta hiri, June?

**June** Zazpi.

**Miren** Ondo, ez?

**June** Bai. Pozik nagon!

**Joanes** Notak nota,  
gutxi inporta,  
oporrik ez digute  
.....kenduko-ta.  
  
*(Denek barre egiten dute)*

**Alberto** Hi haiz hi astapotroa!

**June** *(Gaia aldatuz)* Aizue! Ikusi al zenuten Betizu?

**Miren** Bai, nik bai.

**June** Eta iragarkiak?

**Miren** Baita.

**Alberto** Nik ez dut ikusten.

**Joanes** Nik ere ez; eta bost axola zait.

**June** Ba, iragarkietan, akanpaleku eder eta polit bat ikusi nuen.

**Alberto** *(txantxetan)* Bai, urrezkoa.

**Miren** Bai, bai, zuek adarra jo, nahi baduzue, baina arrazoi du:  
zoragarria zen eta aquariuma eta dena zeukan.  
  
*(Joanes eta Alberto elkarri begira txantxetan)*

**Joanes** Jo-eeee!

**Alberto** Ederra galdu diagu!!!  
  
*(Joanesek ama ikusten du eskuin aldetik datorrela)*

#### 4. agerraldia

*-Lehengoak eta Ama-*

- Joanes** Kaka zaharra!!! Gure ama zetorrek!
- Alberto** Zer egingo duk, ba, motel! Horrelaxe duk bizitza!
- Miren** *(Mutilei deika)* E, zuek! Joango gara kanpamentura ala ez?
- June** Eta nahi ez baduzue, lasai horregatik. Bilatuko ditugu beste lagunen batzuk.
- Alberto** Ni prest nago, baina... nondik aterako dugu dirua?
- Joanes** *(Goibel)* Niri ez dit utziko amak. Atera ditudan notak ikusten dituenean...
- Miren** *(Joanesen ama agertzen ikusiz)*  
Laster jakingo dugu. Hementxe dator zuen ama.
- Ama** *(Agertuz)* Zer, Joanes, ba al hator etxera?
- Joanes** *(Amarenganantz abiatuz)* Ama!
- Ama** Zer?
- Joanes** *(Mimotsu, ondoraino hurbilduz)* Lagunak kanpamentura doaz. Utziko al didazu niri ere?
- Ama** Gaur notak eman omen dizkizuite...
- Joanes** Bai.
- Ama** Eta?
- Joanes** Beno...

- Ama**                    (*Eskatuz*) Ea, erakutsi!
- Joanes**                (*Emanaz*) Badakit txarrak direla, baina...
- Ama**                    (*Kopeta zimurtuz*) Eta, hala ere, kanpamentura joaten uztea nahi al duk?
- Joanes**                (*Negarrez*) Ama, mesedez!...
- (*Amak lagunei begiratu eta, errukiz, gorputzaren kontra hartzen du semea*)
- Ama**                    (*Semea laztanduz*) Beno, ba. Hemendik aurrera txintxo portatzen bahaiz eta... (*Atzamarrez dirua adieraziz*) dirua lortzen baduk...
- Joanes**                (*Malkoak igurtziz*) Eskerrik asko, ama!
- Ama**                    Ziztu itzak muki horiek, inork ikusita ere!
- Joanes**                (*Mukiak ziztuz*) txintxo portatzearena egingo dut. Dirua lortzen izango ditut lanak!
- Ama**                    Ez duk, ba, pentsatuko ni Rotxil naizenik! (*Abiatuz*) Banoak etxera.
- Joanes**                Gero arte, ama! (*Lagunetara doa*)
- Ama**                    (*Itzuliz*) Hi ere ilundu baino lehen etorri.
- Joanes**                (*Itzuliz*) Aurki joango naiz, ama.
- Ama**                    (*Lagunei*) Agur, koadrila!, eta ez amets garestiegirik egin! (*Lagun talde guztia parrez*)
- Miren**                Ondo da, Anttoni!
- (*Amak alde egin eta lagun taldea batzarrean biltzen da*)

## 5. agerraldia

*-Alberto, Miren, Joanes eta June-*

**Alberto** Zer egin genezake dirua ateratzeko?

**Joanes** Denek egiten dutena.

**Alberto** Zer?

**June** Betikoa! Errifa bat atera, ezta?

**Joanes** Noski.

**Alberto** *(txartzat emanaz)* Oporretan errifa saltzen? Puf!

**Miren** *(Joanesi)* Egia! Benetan nekagarria duk. Eta gainera hilabetean egin beharko genikek dena, eta ez duk nahiko denbora.

**Joanes** Horretan arrazoi dun.

**June** Zer egin dezakegu, orduan?

*(Isilune bat, denak pentsatzen direla)*

**Miren** *(Zerbait otu zaiola adieraziz)* *(Juneri)* Bazekinat!

*(Denak adi)*

**June** Zer?

**Miren** *(Denei)* Zergatik ez dugu denda bat ipintzen?

*(Beste isilune bat, elkarri begira)*

**Alberto** *(Onetsiz)* Ez dun ideia txarra!

**Joanes** *(Zalantzan)* Ez, baina...

**June** Zer baina?

**Joanes** *(Kaskotik ez dabiltzala ondo adieraziz)* Nondik atera behar ditugu salgaiak, e?

*(Besteak elkarri begira isilik gelditu direla ikusiz)* Ez zarete, ba, haize freskoa saltzeko asmotan ibiliko!?

**Alberto** *(Gogaitua)* Motel!!! Ez hadi, behintzat, hain ezkorra izan!

**Miren** Bildu genitzake, esate baterako, erabilitako jostailuak.

**June** Ba, bai!

**Alberto** Eta erabilitako arropak?

**Miren** Baita!

**Joanes** Berri-berriak botatzen omen ditu zenbait jendek, modatik pasa direla uste dutelako.

**June** *(Mireni)* Jenialak gaitun.

**Alberto** Berriketak utzi eta lanean hasi behar dugu. Noiz jarriko dugu denda?

**Miren** Egun pare bat nahikoa diagu gauzak biltzeko.

**Joanes** Orduan, datorren larunbatean ireki dezakegu.

**June** Non ipiniko diagu?

**Joanes** Hementxe bertan, ez? Jende asko pasatzen dun hemendik.

**Alberto** Eta, ordua?

**June** Hamaikak aldera?

**Denek.-** Ondo.

**Miren** Beraz, lanera denok, denbora galtzen egon gabe. Ospa!  
*(Denek alde egiten dute antxintxika, eskuin aldetik)*

## O I H A L A

### 2. EKITALDIA

*AGERTOKIA: Lehengoa bera. Orain, ordea, salmahai bat ageri da eskuin aldean, lehen andereño zegoen aulkia baliatuz.*

*Fondoan, eszenatokiaren erdiz erdi, pankarta bat, eta, han idatzita:*

*A K A N P A D A R A K O, E S K E R R I K A S K O !*

### 1. agerraldia

*-Alberto, Miren, June eta Joanes-*

*(Oihala zabaltzean, June eta Joanes dendan ari diren bitartean, Alberto eta Miren soinua eta panderoa jotzen ari dira eskuin aldean, aurrean, aulkitxo baten gainean dirua biltzeko erretilu bat dutela)*

**Joanes** Nik uste baino jende gutxiago zebilen!

**June** Bai, gure kanpamentuak datorren urtera arte itxoin beharko duela uste diat.

**Joanes** *(Eskuin alderantz begiraturaz)* Hor bazetorren taldetxo bat.

**June** *(Hoska)* Saltzen! Saltzen!



**Joanes**            *(Hoska)* Bostehun pezetan gauza bakoitza.

**June**              *(Erakutsiz)* Jostailuak...

**Joanes**            *(Lapiko bat erakutsiz)* Sukaldeko ontziak...

**June**              *(Aitzur bat erakutsiz)* Baserriko tresnak...

**Joanes**            *(Erakutsiz)* Galtzontziloak, kuleroak...

*(Emakume bat hurbildu da dendara, herrenka dabilen bere haurrarekin, eta dena ondo begiratu ondoren, kotxetxo bat gustatu zaio. Beste hiru bat lagun musika joleen aurrean egongo dira entzuten eta, gero, txanpon batzuk bota eta aurrera egingo dute)*

## 2. agerraldia

*-Lehenagoak, emakumea haurrarekin, musika entzuleak eta zenbait erosle-*

**Emakumea**      Ene! Hauxe kotxetxo polita!

**June**              Gustatzen al zaizu?

**Emakumea**      Bai! Zenbat balio du?

**June**              Bostehun pezeta.

**Emakumea**      Honek ere bai?

**Joanes**            Bai, bai. Gauza guztiek berdin balio dute.

**Emakumea**      Ba, oso merke iruditzen zait. *(Bostehun pezetakoa atera eta emanez)* Erosi egingo dizut.

**June**              *(Kotxetxoa hartuz)* Nahi al duzu kaxa batean biltzea?

- Emakumea** Ez da beharrik. Ez al duzu ikusten zein dagoen hemen zain?
- June** *(Umeari eman ez.)* Hartu, politta!
- Umea** *(Eseriz)* Eskerrik asko!
- Emakumea** Agur!
- (Emakumeak eta haurrak etorri diren bidetik alde egiten dute.)*
- (Bitartean, mutiko bat hurbildu da saltokira)*
- Mutikoa** *(Baloia bat atzamarrez erakutsiz)* Baloia horrek ere 500 pezeta balio al du?
- Joanes** Baietz, ba!
- Mutikoa** Gure amari ez zaizkio baloia eta pilotak asko gustatzen, baina... Erosi egingo dut.
- June** Ea, ba, diru hori!
- Mutikoa** *(Gizon itxura eginez)* Aizu! *(Patxadan dirua atereaz)* Laaasai!
- (Bitartean, Joanesek baloia poltsa batean sartu eta eskaini biezaio)*
- Joanes** *(Baloia eman ez.)* Baloia bikaina erosi du, adiskidea!
- Mutikoa** *(Juneri dirua emanaz)* Eta merke!
- June** *(Dirua hartuz)* Eskerrik asko!
- Mutikoa** *(Abiatuz)* Ez horregatik. *(Bira eginez)* Joanes, goazemak jolastera.
- Joanes** Gaur ezin diat. Ikusten duk. Beste batean izan beharko dik.

**Mutikoa** Gero arte, orduan. (*Bihoa*)

**June** Ondo ibili!

### 3. agerraldia

*-Alberto, Miren, June eta Joanes-*

*(Alberto eta Miren, txapeleko diruak jaso eta saltokirantz datoz, biribilketa bat joaz, patxada ederrean)*

**Miren** Bazkaltzera ere joan beharko dugu, ba?

**Joanes** Ze ordu da?

**Miren** Nire tripako ordularian, jateko ordua.

*(Denek barre)*

**Alberto** (*Pieza bukatuz*) Eta elizako erlojuak oraintxe jo dizkik ordu biak. Ez al duk entzun?

**June** Zenbat diru atera duzue?

**Alberto** Ia lau mila pezeta.

**Miren** 3.825 pezeta. Eta zuek?

**Joanes** Zortzi mila eta bostehun.

**Alberto** Ez duzue gauza gutxi saldu, alazankoa!

**June** Hamazazpi!

**Miren** Orduan guztira, hamabi mila pezeta eta gehiago.

*(Neskato bat agertzen da)*

**Joanes** Kosta behar zaiguk ederki, behar ditugun ehun eta berrogei-ta hamarrak lortzen.

#### 4. agerraldia

*-Lehengoak eta Neskatoa-*

*(Lagun taldea gauzak kaxetan sartzen hasten da)*

**June** (Gauzak begiratzen dagoen neskatoari) Kaixo!

**Neska** Kaixo!

**June** Zer behar duzu?

**Neska** Ezin al naiz begira egon ala?

**June** Bai, noski! Barkatu!

**Neska** Zenbat balio du pandero horrek?

**June** 500 pezeta.

**Neska** *(Goibel)* Ez daukat horrenbeste diru.

**June** *(Kupituta)* Zenbat daukazu?

**Neska** 300.

**June** Itxoin, apur bat. *(Bere lagunei, misterio giroan)* 300 pezeta besterik ez dauka gajoak! 200ean emango diot. Bale? *(Baiezko keinua egiten dute guztiek)*

**Alberto** *(Errukibera)* Emaion!

**June** *(Emanez)* Hiretzat 200 pezetan, lagun ona haizelako. Ea nola jotzen dunan!

**Neska**                    (*Ordainduz*) Eskerrik asko. (*Panderoa joaz, ezkerretik alde egiten du*)

*(Lehen haur herrenarekin etorri den emakumea dator, esku batean kotxetxoaren gorpila dakarrela, ardatz zati bat eta guzti, eta, bestean, haurra negarrez, hanka bat bendatua eta lehen baino herrenago)*

## 5. agerraldia

*-Lagunak eta Emakumea Haur Herrenarekin-*

*(Agertu baino lehen haurraren negar-hotsa entzungo du jendeak)*

**Alberto**                    (*Eskuinerantz begiraturaz, izu*) Begira zein datorren!

**Emakumea**                (*Saltzaileak ere, bera bezalaxe, triste daudela ikustean, hurbilduz, haurrarenarengatik*) Ez da zuen erruz gertatu. Berria erosteko dirurik ez, eta aukera polita zen guretzat... Baina, zaharraren abantailak!

**Miren**                    Zer gertatu zaizue?

**Emakumea**                (*Gorpila erakutsi*) Ezagutzen al duzu hau?

*(Lagun taldea lur-jota dago)*

**Joanes**                    Kotxetxoarena...?

*(Haurra negar isilean ari da orain, suspirioka)*

**Emakumea**                (*Buruarekin baietz*) Koska bat jaisterakoan ardatza puskatu zaio, ikusten duzuen bezala, eta haurra muturrez aurrera joan zait.

**June**                    Min handia hartu al du?

- Emakumea** Bost puntu eman dizkio medikuak.  
*(Alberto ez, besteak kontu isiletan ari dira)*
- Alberto** *(Berari ematen ari balitzaio bezala, muturra zimurtuz)* Bost puntu!?
- Emakumea** Bai. Jendeak nonahi botatzen dizkik botilak eta... Zerbeza botila baten zatia sartu zaiok.
- Miren** *(Tarteratuz)* Eman zigunak ondo zegoela esan zigun.  
*(Miren hizketan hasi denean, Alberto doa taldera, eta honi ere zerbait esaten diote isilpean)*
- Emakumea** Eta halaxe usteko zuen berak!
- Miren** Ederra egin dugu.  
*(Emakumearenganantz biltzen da lagun talde guztia)*  
*(Eskuineko atze aldetik Joanesen Ama eta Andereño agertu eta bertan geratzen dira, han gertatzen dena zertan bukatzen den ikusteko asmotan edo)*
- June** *(Diru-kaxa hartu eta Emakumeari eskainiz.)* Atera dugun dirua da. Har ezazu egin dizuegun kaltearen ordainetan, asko ez bada ere. Kotxetxo berria erosten lagundu nahi dizugu.  
*(Ama eta Andereño hurbiltzen dira)*
- Emakumea** *(Erabat hunkituta)* Ez, maiteok, ez. Ezta pentsatu ere.
- Ama** *(Tarteratu eta denak ustekabean harrapatuz)* Nola ezetz? Bai, horixe!
- Emakumea** *(Ametsetan bezala hartzen du, eta negarrari ematen dio)* Eskerrik asko!

- Ama** Falta zaizuna guraso elkarteak ordainduko du. Agertuko gara bihar zuen etxean.
- Andereño** *(Umeari musu bat eman eta)* Zoazte orain, *(Ironiaz)* dendari bikain hauei bi kontutxo esan beharra daukagu eta!
- Emakumea** *(Abiatuz)* Ez behintzat errietaryk eman, andereño!
- Andereño** Zoaz lasai, andrea.

## 6. agerraldia

*-Lagunak, Ama eta Andereño-*

*(Lau lagunak lurrera begira gelditu dira, guztiz hunkituak)*

- Ama** *(Ausart)* Zer jarrera da hau? Altxa buru eder horiek gora! Andreak ez al digu, ba, esan errietaryk ez egiteko.
- Andereño** Dirurik gabe geratu zarete, baina merezi zuen, ezta?
- Alberto** Baietz uste dugu.
- June** Kanpamentua han egongo da datorren urtean ere.
- Ama** Datorren urtean? *(Indarrez)* Aurten joango zarete kanpamentura, ni nor banaiz behintzat.
- Andereño** Antzerki pare bat badituzue prestatuak, ezta?
- Miren** Bai!
- Andereño** Nik ez nuen ikusterik izan, baina oso politak direla jakin dut.
- Alberto** Gure etxekoei gustatu zitzaien behintzat.

**Ama** Zuek hemen jardun zareten bitartean gu ere ez gaituk geldi egon eta...

**Andereño** Telefono dei batzuk egin dizkiagu.

**Ama** Joango al zinatekete Debara eta Mutrikura zeuen antzerkia han ematera?

**Joanes** *(Lagunei begiraturaz)* Beno!

**Andereño** Antzerki erakusketak egiten dituzte han eta, joaten bazarete, hamar mila duro emango dizuete bakoitzean.

**June** Berrogeita hamarna mila pezeta.

**Ama** Gainontzekoa Guraso Elkarteak jarriko dizue zuei ere.

*(Alberto eta Miren soinu-panderoak jotzen hasten dira eta beste denak kantuan:*

**IRABAZI,  
IRABAZI DUGU,  
BURDINEN ARTETIK  
IRABAZI DUGU. (Ber.)**

*O I H A L A*





# AMONA HONEKIN.. KONTUZ

Mari Romero/Nati Botanz, irakasleak  
Komedia  
Domingo Agirre h.i.  
Legazpi  
99/00

GAIA

Zahar etxe batean bizi diren jubilatuen eta langileen arteko ikamikak. Antzerki hau 30 ikaslerentzat pentsatuta dago, hala ere ikastetxe bakoitzak bere beharretara moldatu dezake.



## **DEKORATUAK:**

*Bi dekoratu ezberdin agertuko dira. Hasieran etxe bateko jangelan egongo dira eta han mahaia, aulkiak, sofa bat... egongo dira. Horman jartzeko horma-irudi bat egin dugu eta, bertan, armairua, arasa eta koadro batzuk agertzen dira. Hirugarren ekitaldia Zaharren Egoitzan izango da. Han mahaiak eta aulkiak egongo dira eta horman beste horma-irudi bat.*

## **PERTSONIAK**

Ama  
Aita  
Alaba  
Semea  
Amona Martzelina  
Anastaxi  
Paxkasi  
Petra  
Roxarito  
Matilde  
Karmentxu  
Joxe Miel  
Eusebio  
Agustin

Joxe Mari  
Inaxio  
Martin  
Juanito  
Erizaina (dantza erakusten duena)  
Mariatxi taldea (8 lagun)  
Aurkezlea  
Bertsolariak (2 lagun)

*(Amona eztulka sartzen da)*

Ui, ui, ui... zenbat jende dagoen hemen...

Zertara etorri zarete? Antzerkia ikustera? Ba, ni egun haue-  
tan ez nabil oso ongi erreumarekin (*eztulka*). Baina Zaharren  
Egoitzan maitasun kontuak pil pilean daudela enteratu naiz  
eta nik hori ezin dut galdu! Eta hemen nauzue, beraiek beza-  
la ongi pasatzeko prest.

Zuek isil-isilik egon eta ongi entzun, 6. mailako ikasleek  
kontatuko digutena.

*(Eztulka eta errenka irteten da)*

Agur, agur... Ai ene! Nire hanka hau...

## **BERTSOAK**

Amona Martzelina  
oso martxosa da,                      Bertsolaria 1  
"salsa" ikasi nahi du  
etxea utzita.

Ados nago zurekin  
hura bai amona!  
baina beste asmoak                      Bertsolaria 2  
bai ditu buruan.  
Dantza du gustukoa

hortan ez zalantza,  
baina azken boladan  
sutan du bihotza.

txantxetan ari zara  
nola da posible...

Bertsolaria 1

Datorrena ikusi  
nola moldatzen den.

Bertsolaria 2

Ta zuek erne egon  
ez galdu detaile  
hemen antzezten dena  
egi borobile.

Bertsolariak 1 eta 2

## 1. EKITALDIA

*(Etxe bateko jangelan, aita, ama, alaba, semea eta amona afaltzen ari dira)*

**Alaba**

Ama, gaur lagunekin geratu naiz. Gauean diskoteka saio berezia antolatu dute ikasketa bidaiarako dirua atera nahian, eta lagunekin joango naiz.

**Ama**

Ai ene! Hasi gara, ba, diskoteka, diskoteka... Banekien lasaitasuna bukatuko zitzaigula etxe honetan. Ai ene!

**Martzelina**

Beno, Begoña! Ez da horrenbesterako. Gure neskatoak eskeletoa mugitu nahi du, besterik ez! Nik ere, gazteago banintz...

**Aita**

Isilik egon, ama, zure laguntzarik ez dugu behar, guk erabakiko dugu etxe honetan zer egin behar den.

*(Amona, bilobari keinu bat eginez, altxatzen da eta badoa)*

**Martzelina**

Bale, Pello, bale! Ogi bila noa.

*(Eta jangelatik ateratzen da ipurdía alde batetik bestera mugituz eta kantatzen)*

- Martzelina** Dale, dale, benga, benga, erritmo hori, benga, benga.
- Aita** Nire amak, azken bolada honetan tontokeria piloa egiten du. Haurtzaroan dagoela ematen du.
- Semea** Ez, aita, ez da hori. Amama martxosoa dugula, besterik ez. Super guay, ezta, Olatz? Agian amama zurekin badoa, Olatz? Agian, amama zurekin badoa, gurasoek diskotekara joateko baimena emango dizute. Eta agian zuk baino ere gehiago ligatuko luke.
- Alaba** Zer esan nahi duzu? Kakati halakoa! Jakin ezazu nik ez dudala ligatu nahi.
- Semea** A, ez? Eta Andoni ikusten duzun bakoitzean jartzen duzun tuntun aurpegi hori? Andoni, Andoni... *(eta altxatzen da keinuak egiten, bere arreba haserretu nahian)*
- Alaba** Ama, esan isiltzeko, mesedez. Beti nirekin sartzen da.
- Ama** Ander, utzi bakean zure arreba!
- Semea** Bai ama, bakean utziko dut. *(bere arrebari)* Andoni, Andoni *(keinuka jarraitzen du)*
- (Amona ogiarekin sartzen da)*
- Aita** Eseri, ama, eseri. Hurrengoan ni altxatuko naiz.
- Martzelina** Zer ba? Oraindik sasoiak badut eta. *(bilobari)* Afaldu maitea, afaldu ongi, gero dantza asko egiteko energia beharko duzu.
- Ama** Baina, Pello, esan zure amari gure gauzetan ez sartzeko!

**Aita** Beno, ama, afaldu ondoren hitz egingo dugu alabarekin. U-tzi, erabakia guk har dezagun. Zure laguntza beharrezkoa bazaigu eskatuko dizugu. Ulertzen?

**Semea** *(Irribarrez)* Nik uste dut gaur ametsetan dantza egingo duzula *(arrebari)*.

*(Afaria bukatzen da eta mahaitik altxatzen dira)*

## 2. EKITALDIA

*(Amona jangelan dago. Bere ondoan kaltzeta egiteko gauzak daude eta eskuan walkman bat du eta belarrietan kaskoak jarrita ditu. Kantatzen ari da. Bat-batean txirrina entzuten da eta ama gelan sartzen da. Amonak, ikusi bezain pronto, kaskoak kendu eta kaltzeta egiten hasten da)*

**Ama** Baina inork ez du entzuten etxe honetan? Beti den dena egitea niri tokatzen zait. Kaixo, Anastaxi, nire ama hor duzu. Pasa, pasa zaitez.

**Anastaxi** Egun on, Martzelina! Zein zintzo zauden! Kaltzeta egiten?

**Martzelina** Bai, amona bati ez zaio besterik geratzen eta...

*(Ama joaten da eta lagunak hitz egiten geratzen dira. Amonak, berehala, kaltzeta utzi eta musika erakusten dio Anastaxiri)*

**Martzelina** Begira, Anastaxi, Su Ta Gar-ren azken diskoa. Entzun, entzun...

*(Kaskoak Anastaxiri jartzen dizkio)*

**Anastaxi** Ui, ui, kendu, kendu, gorra utziko nauzu, ez zait asko falta horretarako eta. Ene, Maria eta Jose, emakume hau beti hola-ko gauzekin... txoraturik al zaude?



*(Altxatzen da eta dantzan hasten da berriro)*

- Anastaxi** Eseri, Martzelina, eseri, horrela jarraituz gero ospitalera eramango zaitugu, aldaka atera zaizulakoan... Gainera azken berriak dakarzkizut.
- Martzelina** Kontatu, kontatu, zer berri dakarzu niretzat?
- Anastaxi** Ba, Zaharren Egoitzara erizain berri eta gaztea etorri omen da eta astean bi egunetan salsa dantzatzen erakutsiko digu.
- Martzelina** Ez esan!!! Eta noiz etorri da?
- Anastaxi** Ba, ziur ez dakit, baina han dagoela esan didate.
- Martzelina** Ba, lagun maitea, une honetan erabaki oso garrantzitsua hartu dut. Haize berriak hartzeko garaia iritsi zait eta, aldi berean, nire familiakoek atsedena hartuko dute.
- Anastaxi** Zer esan nahi duzu?
- Martzelina** Ba, bihar bertan zurekin noala Zaharren Egoitzara, eguna, astea edo hilabete batzuk pasatzera! Nork daki?
- Anastaxi** Eta zer esango dute zure familiakoek?
- Martzelina** Aaa, ba, ez dutela nahi, noski eta triste jarriko dira. Baina, emakume, ni ez noa betiko; dantza hori ikasi eta erizain gazte eta martxoso horrekin begiak alaitu arte. Gero etxera itzuliko naiz. Beno, beno, lan asko daukat. Nire senideak konbentzitu, mailetak egin... eta abenturara...
- Anastaxi** Jesus, Jesus, burua galdu du, burua galdu du.

*(Amona altxatzen da eta Anastaxiri gerritik heldu eta biok dantzan hasten dira)*

### 3. EKITALDIA

*(Zaharren Egoitzan. Amonak eserita daude, haien artean Martzelina eta Anastaxi)*

- Anastaxi** *(Beste lagunei)* Martzelina duzue hemen. Gurekin egingo ditu egun batzuk.
- Paxkasi** Nolatan, ba? Zure etxetik bota egin al zaituzte?
- Martzelina** *(Haserre bizian)* Jakin ezazu nire familiako guztiak negar batean utzi ditudala! Nik neuk erabaki dut hona etortzea!!!
- Paskaxi** Barkaidazu, emakume, ez nuen horrelakorik esan nahi. Eta, zer? dantza ikastaroan parte hartzeko prest?
- Martzelina** Bai, bai, horregatik etorri naiz.
- Petra** Hori entzun nahi nuen, azkenean ni bezalako norbait aurkitu dut. Hau poza, hau poza!
- Paskaxi** Petra, txoriburu hori! Lasaitu, horiek ez dira amona batek egiteko mugimenduak!
- Petra** *(Anastaxi hartzen du)* Zatoz nirekin, azukre koxkor eta paradisu bat aurkituko duzu!
- Paxkasi** Goazen hemendik, bestela nagusiak erotu egin garela pentsatuko du.
- (Altxatzen dira eta aitonak sartzen dira. Elkarri begira gertzen dira...)*
- Martin** Agur, andereñoak. Zuek ardoa bezala, zenbat eta urte gehiago orduan eta gozoagoak.
- Petra** Ai, Martin, zu beti bezala. Nahi baduzu, gero eskeletoa mugi dezakegu elkarrekin.

- Martin** Zurekin edozein lekutara, ene bihotzeko pinpili-panpala!  
*(Eskutik helduta daude eta lagunak tiraka ari zaizkie elkar banatzeko. Azkenean emakumeak irten eta gizonak eseri egiten dira)*
- Joxe Miel** Zer ikusi dute nire begiek? Emakume hori, hori bai emakume ederra! Berria da, ezta?
- Inaxio** Bai, Martzelina Ugarte da. Dirudienez oso martxosoa da eta hemengo dantza ikastaroaren berri entzutean, bere familia utzi eta hona etorri da.
- Joxe Miel** Betiko?... Egia balitz...
- Inaxio** Nik hori ez dakit. Berari galdetu eta argituko dizkizu zalan-tzak.
- Agustin** Ui, ui, ui, ni zerbait arraroa sumatzen ari naiz. Baina, Joxe Miel! Unetxo batean besterik ez duzu ikusi, eta horrela?
- Joxe Mari** Bai, Agustin, halaxe da gure Joxe Miel. Bihotzeko kontuetan hain sentikorra... Behin, telebistan ikusi zuen neskatxa batekin maitemindu zen eta denbora luzean jasan behar izan genuen bere erromantizismoa.
- Agustin** A, bai, gogoan dut! Neskatxa nirea, non aurkituko zaitut? Zergatik sartu zara nire bihotzean? Ustekabean utzi nauzu, ikusi zintudanetik ez dut lorik egiten, ai ene arrosa maitea!
- Joxe Miel** Nitaz barre egin nahi baduzue, egin lasai, baina hau desberdina da. Hau egiazko maitasuna da. Sentitu egin dut, nire barnean sentitu dut.
- Inaxio** Ba, hor duzu zure bihotzeko arrosa. Esaiozu hau guztia berari, eta zeurea betiko.

*(Lagunak barrezka ari dira. Martzelina beste lagunekin sartzen da. Joxe Miel oso urduri dago. Lagunek Martzelinaren gana bultzatzen dute)*

- Joxe Miel** Egun on, andrea. Nik, nik, nik...
- Martzelina** Egun on, jauna! Nor zara zu?
- Joxe Miel** Ni, ni, ni... Gero arte. *(ezin du, dardaraka hasten da eta presaka irteten da. Bere lagunak atzetik doaz barrezka)*
- Lagunak** Itxoin, Joxe Miel, itxoin.
- Inaxio** Uste dut hau ez dela txantxetakoa. Maitemindu egingo ote zaigu gure Joxe Miel? Ikusiko dugu, ikusiko dugu...

#### 4. EKITALDIA

*(Martzelina, Roxarito, Anastaxi, Petra eta Paxkasi sartzen dira. Aulkiak esertzeko prest daude)*

- Martzelina** Gaur dantza egiteko gogorik ez dut. Joxe Mielek ez dit kasurik egiten. Ez dit, ezta, begiratu ere. Eta hain guapoa da, hain gozoa, eta txapela..., bere txapela, enee... zein ongi geratzen zaion!
- Roxarito** Ba, begira, zuk nahiko bazenu, nik badut aukera errezeta bat egiteko eta zuri konponbidea bilatzen laguntzeko.
- Paxkasi** Roxarito, Roxarito..., zu eta zure erremedioak.
- Petra** Isildu. Amodioagatik edozein gauza legezkoa da eta.
- Martzelina** Bale, nahi duzuen. Hau ezinegona! Bihotzean dudana kanporatu behar dut edo...

- Roxarito** Ba, orduan... ongi entzun! Sorginkeria bat prestatuko dizut. Horretarako, zure barneko sekretuak ezagutu behar ditut: bi ile, azkazal bat, ezpainak margotzeko erabili duzun barra-txa, eta zure koloniako bi tanta.
- (Bat-batean erizaina sartzen da. Berarekin bikote bat dator. Atzetik aitonak sartzen dira)*
- Erizaina** Kaixo, jaun-andreok, dantza egiteko prest? Hasteko, bikoteak egingo dítugu; baina, aurrena..., nirekin datozenak ezagutzen dituzue, ezta?
- Matilde** Bai, noski! Ni Matilde naiz eta hau, nire senarra, Eusebio. Etxe honetan ezagutu eta elkarrekin maitemindu ginen. Dantza izugarri gustatzen zaigu eta dantza ikastaroetan erakustaldiak egiten ditugu, nire Eusebio dantzari ezin hobea delako.
- Eusebio** Eta nor ez zurekin, bihotza? Duzun graziarekin edozein izan daiteke dantzari ona. Zatoz nirekin, eta erakutsi hauei egiten dakizuna.
- (Gerritik heldu eta dantza egiten dute)*
- Erizaina** Ikusi duzue? Ba, orain... zuen txanda da!
- (Bat-batean neska bat sartzen da, eskuan plater bat daukala)*
- Karmentxu** Geldi! Hemen ez da inor dantzan hasiko, bere medizina hartu gabe.
- Agustin** Nik zuri zirrika emango nizuke medizina!
- Karmentxu** Ai! Utzi, utzi! Gizon honek ez du erremediorik!
- (Medizinak banatzen ditu eta ateratzen da)*
- Erizaina** Joxe Miel, zu Martzelinarekin!

*(Altxatzen dira, dantzan hasi behar dute, baina Joxe Miel larritu egiten da, ez du asmatzen dantzan eta korrika alde egiten du)*

**Erizaina** Beno, beno, gaurkoz bukatu dugu. Bihar ikusiko dugu...

*(Denak ateratzen dira. Roxarito sartzen da eta mahai gainean edalontzi bat utzi eta badoa. Erizaina sartzen da)*

**Erizaina** Hau nekea eta egarria! Tira, ba, hor badago freskagarri bat.

*(Hartu eta osoa edaten du eta keinu arraroak egiten hasten da bat-batean).*

Martzelina, ene bihotzeko Martzelina! Zurekin egon nahi dut! Egon behar dut! Zatoz niregana! Martzelina maitea! MartzelinAAAAAAAAAAAAAAAA.

*(Martzelina agertzen da)*

**Martzelina** Zer dira oihu horiek? Zer da iskanbila hau?

**Erizaina** Azkenean etorri zara! Zatoz niregana bihotza, maite zaitut, maite zaitut!

**Martzelina** *(Korrika eta erizaina atzetik doa)* txoratu egin da, txoratu egin da. Utzi, utzi, nik Joxe Miel maite dut! Utzi bakean!

*(Biak korrika irteten dira. Joxe Miel egoitzako zuzendariarekin sartzen da)*

**Joxe Miel** Alferrik da, Juanito, ezin dut gehiago. Ikusten dudak bakoi-tzean eztarrian korapiloa egiten zait. Eztarrian eta bihotzean. Ezin dut ezer esan, ezer egin.

**Juanito** Ez etsi, gizon! Zerbait egin ahal izango dugu. Animo, Joxe Miel!

- Joxe Miel**      Eta, gainera, ikusi al duzu gazte hori? Nire Martzelinaren atzetik. Ezin naiz berarekin lehiatu. Bera ni baino gazteagoa eta ederragoa da. Benetan mutil guapoa, eta ni..., begiraidazu, itxura honekin.
- Juanito**        Itxaron pixka bat. Ez dago dena galdua. Ideia bat bururatu zait. Martzelina oso erromantikoa da eta honekin amore emango du. Ziur nago.
- Joxe Miel**        Zer da? Esan, esan!
- Juanito**        Ba, nik Mariatxi talde bat ezagutzen dut. Abesti polit eta erromantikoak abesten dituzte. Eta hona ekarriko ditugu, Martzelinari, zure izenean abesteko.
- Joxe Miel**        Zuk uste duzu horrela...
- Juanito**        Ziur nago. Utzi dena nire eskuetan. Goazen!
- (Biak ateratzen dira. Martzelina sartzen da korrika, atzetik erizaina duela)*
- Erizaina**        Ai Martzeli, Martzeli  
bizitza osoan  
beti izango zara  
ene bihotzean.
- Martzelina**      Jesu, Jesus, hau ezinezkoa da! Joxe Miel, Joxe Miel!
- (Ateratzen dira eta handik pixka batera bera bakarrik sartzen da)*
- Martzelina**      Uf!, azkenean pelma hori gainetik kendu dut!
- (Musika entzuten da. Mariatxi talde bat sartzen da. Beraiekin Joxe Miel dago arrosa bat eskuan duela. Mariatxi taldeak abesti erromantiko bat kantatzen dio Martzelinari,*

*bera aho zabalik geratzen da. Joxe Miel aurreratzen da eta...)*

**Joxe Miel** Nik, nik, nik...

**Martzelina** Zer?

**Joxe Miel** Maite zaitut!, benetan maite zaitut!

**Martzelina** Eta nik ere maite zaitut.

**Joxe Miel** Aspalditik esan nahi nizun; baina zu ikustean zerbait arraroa sortzen zen nire barnean, eta eragin horren ondorioz... bada-kizu.

**Karmentxu** Gaurko botika, botikaren ordua!

**Agustin** Gaur ez dago botikarik! etorri nirekin, potxola!

*(Ateratzen dira eta erizaina sartzen da)*

**Erizaina** Martzelina, Martzelina, zatoz nirekin eta ikusiko duzu txina.

*(Joxe Miel eta Martzelina elkarri begira daude erabat liluraturik eta bat-batean Petra sartzen da)*

**Petra** Berriz heu? Orain ikusiko duzue.

*(Poltsikotik botila ateratzen du. Botilan etiketa bat dago, Petra izenarekin. Erizainari ematen dio)*

**Petra** Hartu adorea,  
hartu osoa  
musu muxera  
edan osoa.

*(Osoa edaten du eta berriz keinu arraroak egiten hasten da)*



**Erizaina**

Petra, Petra maitea, ene bihotzeko arrosa!

*(Petra erizainari besotik heltzen dio eta ikusleei begiarekin keinu bat egiten die. Mariatxiak kantatzen hasten dira eta partaide guztiak binaka agertokira sartzen dira eta dantzan hasten dira)*

*AMAIERA*

# AZTIA

Ikasleak/Irakasleak  
Abentura  
Talaia h.i.  
Hondarribia 99/00

GAIA

Herri berezi batean bada azti ospetsu bat. Denek imitatu nahi dute. Gure kasuan 3 ume dira protagonistak. Aztiaren truku bat gaizki ateratzen zaie eta ume bihurriak bihurtzen dira. Historia hau ume horiek egiten dituzten bihurrikerien inguruan datza.



## **PERTSONAIAK**

Aurkezlea  
Barçakoa  
Ume 1: Boon  
Ume 2: Jiins  
Ume 3: Jeins  
Aztia: Klofis Pofis  
Ama: Josepi  
Telebistakoa: Maddi  
Aita  
Polizia  
Aitona

### **1. EKITALDIA**

**Aurkezlea** Dakizuenez 4. mailako lagunak gara. Gaur ekarri dizuegun antzerkia “.....” da. Gure istorioa “.....” herrian gertatzen da. Bertako jendeak ilea koloreetan darama eta txiki-txikitatik, ez guk bezala.

Herri honetan bada azti ospetsu bat, Klofis Pofis izenekoa. Oso ona da eta oso ezagunak dira bere magia-trukuak. “.....”-ko ume guztiek imitatu nahi dute, baina ikusiko duzuen bezala, ez zaie beti ondo ateratzen. Azti ona izateko

asko ikasi behar da eta! Baina istorioa kontatzen jarraitu beharrean, ikus dezagun!...

*Umeak azaltzen dira agertokian, sukaldeko atetik. Bazkaldu berriak dira eta tripa bero-bero dute. Ume 3-k kartak ditu eskuetan.*

**Ume 1** Zein gozoa zegoen pastela! Baina oilaskoa gehiegi erreta zegoen!

**Ume 2** Ba niri horrela gustatzen zait, erre-erreta...

**Ume 3** Jolas gaitezen kartetan! Klofis Pofis aztia hasten den bitartean...

*Aita eta ama sukaldetik ateratzen dira, biak zapi banarekin eskuak lehortzen eta mantala jantzita.*

**Aita** Beno, sukaldea jasota dago.

**Ama** Bapo geratu naiz. Bai, badakit oilaskoa erdi erreta zegoela...!

*Aitonak, sukaldetik ateratzen ari dela eta makila eskuan duela, esaten du.*

**Aitona** Ikus dezagun telebista! Nire mago faborittoa hastear da eta!

**Ama** Aitona, ez proposatu horrelako gauzarik, begiak gaizki jarriko zaizkigu eta!

**Aitona** Bale, bale, ez dut gehiago esango!

**Ume 1** Orain telebistan Klofis Pofis aztia aterako da.

**Ume 2** Bai eta esaten dute oso ona dela. Nire gelako guztiek ikusten dute.

**Ume 3** Ea zer trukurekin datorkigun gaur! Beharbada erraza izango da guk egiteko!

**Aita** Ba, ni, gauza horiek ikusteko, lanera noa. Emazkidazu mantala eta zapia, Josepi, sukaldean utziko ditut.

**Ama** Tori! eta ez nekatu asko.

**Aita** Agur, denoi!

**Denak** Agur!

**Aitona** Nik telebista piztuko dut.

*Umeak eta ama lurrean eserita daude. Aitonak telebista piztutakoan telebistako aurkezlea azaltzen da...*

**Telebistakoa** Kaixo, herritarrok! Arratsaldeko hiru eta erdiak dira. Gaur emanaldi berezi bat prestatu dugu zuentzat. Gure magoak, Klofis Pofisek, bere trukurik hoberena eskainiko digu. Aurrera!

**Aztia** Kaixo, lagunok! Hemen naukazue berriro eta, esan bezala, nire trukurik maitagarriena egingo dizuet.

*Aurkezleak ekartzen ditu, mahai batean, magiarako behar dituen gauza guztiak eta joaten da.*

**Aztia** Eskerrik asko, Maddi! Oso efikaza zara.

Hona hemen behar dudak guztia:

Sagu isats bat  
Sagar ustel bat  
2 sagu zahar  
6 inurri hanka  
Herensuge baten bihotza  
Dinosauro baten odola

Ondo nahastu dena ontzi honetan. Hau dena edan ondoren desagertu egingo naiz

*Desagertzeko brilantina botatzen du airera eta kapan biltzen da. Hau desagertzen denean telebistako aurkezlea azaltzen da...*

**Telebistakoa** Oso truku ona. txalo bero bat gure artistarentzat!

*Ama telebistara hurbiltzen da, esanez:*

**Ama** Oraintxe bertan itzaliko dut telebista! Desagertu, desagertu! Zenbat txorakeria! Hau, seguruenik, telebistako trukuren bat da.

**Aitona** Ni ere noizean behin desagertuko nintzateke... Ja, ja... Partida jokatzera noa, jubilatuen etxera. Ea zenbat diru irabazten dudan gaurkoan!

**Ama** Ni, sukaldera..., nire irratsaio kuttuna hastear da. Eta zuek presta zaitezte kalera joateko!

**Ume 1** Hori truku zoragarria!

**Ume 2** Bai horixe! Matematikako azterketaren erdian desagertzea. Hori magia hori!

**Ume 3** Egin dezakegu! Ni denetaz gogoratzen naiz.

*Sukaldetik sartu atera dabilta umeak, osagaiak lortzeko asmotan.*

**Ume 1** Sagu isats bat.

**Ume 2** Sagar ustel bat, edo bi... Bi botako ditut badaezpadan.

**Ume 3** Sagu zahar bat.

**Ume 1** 5 inurri hanka.

**Ume 2** Dinosaurio baten bihotza.

**Ume 3** Herensuge baten odola.

**Ume 1** Osagai guztiak bildu eta ondo nahastu ondoren..., edan dezagun!

*Hirurek edaten dute.*

## **2. EKITALDIA**

*Hiru umeak agertokian.*

**Ume 1** Zein ondo aurkitzen naizen edabe hori edanda!

**Ume 2** Niri bihurrikeriak egiteko gogoaz piztu zait!

**Ume 3** Eta niri!

**Ume 1** Eta niri!

**Ume 3** Baina ez gara desagertu Klofis Pofis bezala, eta hori zen gure asmoa.

**Ume 1** Hori egia da, baina beste magia mota bat sentitzen dut. Goazen frogatzera gure magia-ahalmena!

## **1. bihurrikeria**

*Une horretan polizia azaltzen da, trafikoa zuzentzera.*

**Ume 2** Ikusten duzue hor azaltzen den polizia, hipnotiza dezagun!

**Ume 3** Bai, eta pistola lapurtuko diogu!

**Ume 3** txotxolo halakoa! Gu umeak gara. Zertarako behar dugu pistola?



- Ume 2** Ea, goazen poliziarengana!
- Polizia** Zer ari dira ume horiek errepide erdian!... Niregana datoz, zer nahi ote dute?
- Ume 3** Orain gure ultra txanpona aterako dut...
- Ume 1** E! Polizia!, begira gure txanpona!
- Polizia** E, e, e, e, e,...!
- Polizia hipnotizatzen dute, txanpona alde batera eta bestera eramana.*
- Ume 2** Ja, ja, ja! Polizia hau tontoegia da.
- Ume 3** Errazegi engainatu dugu.
- Ume 1** Orain polizia honek herriko argi guztiak itzaliko ditu.
- Ume 2** Entzun duzu! Zoaz argi-kontrolera eta itzal itzazu “.....”-ko argi guztiak!
- Polizia dekoradura hurbiltzen da eta argi-kontrola dagoen tokian agindutakoa betetzen du, betiere, hipnotizatuta.*
- Ume 3** Oso ondo! Orain jar zaitetz erdian eta bertan gera zaitetz “Askatasunaren Irudia” bezala.
- Ume 2** Eta gu ezkuta gaitezen, zuhaitz honen atzetik inork ikusi baino lehen.
- Umeak zuhaitzaren atzean gordeta daudelarik, herriko jendea hasten da ateratzen. Denak oso haserre daude...*
- Ama** Ai, ai, ai,... argia joan da justu irratian nire errezeta faboritoaren osagaiak esaten ari zirenean... Orain ezingo dut bakailoa marinel eran prestatu!

- Aitona** Zer gertatzen da hemen?... Justu musean irabazten ari nintzela argia itzali da, la ostra!
- Barçakoa** Mekatxis la puñeta!, justu partida bukatzen ari zela eta gol bat sartzekotan zirela telebista itzali da!
- Aita** Burtsan 10.000.000 pezeta sartu behar nituen, ..., buaaaaaaa, buaaaa! Zein izan da? zein izan da?
- Telebistakoa** Hau ezinezkoa da! Nire telebista saioa grabatzen ari nintzela argia joan da eta ez da ezer grabatu!
- Aztia** Hau ez da normala... Zer ari da egiten polizia hori?... Hipnotizatuta dago!... Hau magia da. HIPNOTIZATUA, DESIPNOTIZA ZAITEZ!
- Polizia** Zer gertatzen da? Bai, gogoratzen naiz!... Hiru ume hurbildu zaizkit..., baina ez dakit besterik.
- Aita** Nire semeak, seguru!... Harrapatzen badituz telebista leihotik behera botako dut!
- Polizia** Beno, beno, lasai gaitezen! Argiak piztuko dituz eta denok etxera!

*(txilibitua jotzen du)*

*Kalea libre geratzen da eta umeak berriro ateratzen dira.*

## 2. bihurrikeria

- Ume 1** Hau korapiloa! Dena dela bihurrikerietan jarraitu nahi dut.
- Ume 2** Niri gauza bat bururatu zait. Lurrera hauts magikoak bota eta jendea irristatu eta erori egingo da.

*Potetxo banatatik hautsak zabaltzen dituzte.*

- Ume 3** Ez dago gaizki... Ea zenbat erortzen diren...
- Ume 1** Goazen gordetzera!
- Jendea kalera ateratzen denean... banan-banan erortzen dira.*
- Telebistakoa** Berriro telebista-saioa grabatzera joan behar dut... (*erori egiten da*). Ai, zer mina!
- Aita** Etxera noa, kristoren gosea dut!... Zerbait dago lurrean! (*Erori*) Aaaaaai!
- Polizia** Bederatziak dira, lanera joan behar dut. (*Erori*) Aaaaaaaii! Ume hauek ez dute ezer botatzen zakarretara!
- Barçakoa** Gaur nire ekipoak hemen bertan jokaten du, Barça-Español, erraza izango da irabaztea! (*Erori*) Aaaaaai! Hau zartakoa!
- Aitona** Etxera noa! Justino hori beti dabil tranpetan, kartetan! Aaaaii zer mina! Jendeak ez du ezer begiratzen, ni zahar bat naiz.
- Ama** Nire umeak oraindik azaldu gabe! Trabaren bat egiten egongo dira, astelehenean bezala. Banoa bilatzera eta aurkitzen badituzt hamar urte telebista ikusi gabe zigortuko dituzt! Buaaaaaa! Zer mina!
- Aztia** Zer gertatzen da? Lurra labaina dago, (*erori*) aaaaiiiii!... Denok lurrean erorita gaude... Hau magia da! Oraintxe desegingo dut! ATXILA MURTXILA!
- Aita** Nire semeak, berriro, seguru! Telebista ipurtzulotik sartuko diet!
- Polizia** Agudo, denok gora eta etxera, dena pasa da eta!

### 3. bihurrikeria

*Umeak kalean berriro, barrezka agertzen dira.*

**Ume 1** Hau ere ederra izan da!

**Ume 2** Begira non dagoen Jeins!

**Ume 1** Ei, Jeins! Zer ari zara makinatxo horrekin!

**Ume 3** Zein ona den Pokemon jokoa!

**Ume 2** Egin dezagun beste bihurrikeria bat!

**Ume 1** Zer egingo dugu oraingoan?

**Ume 3** Badakit! Tiragomarekin farrebolak botako ditugu!

**Ume 2** Bai horixe! Bala horiekin jendea barrezka hasiko da!

**Ume 3** Tiragomak hartu eta pasatzen den jendeari botako diogu!

**Ume 1** A ze barreak egingo ditugun!

*Umeak gordetzen dira eta pasatzen den jendeari, zuhaitz atzetik...*

**Ama** Oraindik ez dira agertu... non ote daude sartuta? Ez ditut inondik aurkitzen (*farrebolak botatzen dizkiete*)... Ja, ja, ja, ja!

**Aitona** Nahikoa da, ez dut gehiago jokatuko kartetan! Etxera noa. (*Farrebolak*) Ja, ja, ja... ezin naiz isildu! Ja, ja, ja...!

*Barçakoa ateratzen da agertokira...*

**Telebistakoa** Honi egingo diot telebista-saiorako elkarrizketa. Kaixo! elkarrizketa bat egitea nahi al duzu?

- Barçakoa** Konforme, ongi da.
- Telebistakoa** Zeinek irabazi zuen Barça-Español partida.
- Barçakoa** Barçak, jakina! (*Farrebola*)
- Biak** Ja, ja, ja, ja!
- Polizia** hemen jendea erotuta dago. Zer gertatzen da? (*farrebola*) Ja, ja, ja, ja...
- Aztia** Baina zer gertatzen da, denak barrezka ari dira! Berriro magia...? Norbait ni imitatu nahian dabil. Baina azti ona izateko asko ikasi behar da. Oraintxe bertan desegingo dut magia eta harrapatuko ditut sasi-azti horiek!...

ARTXILA MURTXILA  
MAGIA DESAGERTU DADILA  
ETA AZALDU DAITEZELA  
KORAPILO HONEN  
ERRUDUNAK

*Orduan jendeak barre egiteari uzten dio eta umeak azaltzen dira, eskuan tiragomak dituztelarik eta lokaturik bezala; hirurek, aho zabalka, esaten dute...*

- Umeak** Hau logura!
- Ama** Ene, azaldu zarete!
- Aita** Joan zaitzte korrika etxera!

*Denak joaten dira umeen atzetik, haiek harrapatu nahian.*

# BARRE EGITEN EZ DUEN ERREGEA

Ikasleak/Irakasleak  
Abentura  
Gorondagane h.i.  
Sondika  
98/99

GAIA

Erregek ez du barre egiten erregina hil zenetik eta, duke baten laguntza txarra lagun, kartzelak beteta dauzka eta erraz ematen ditu jendea urkatzeko aginduak. Baina, morroi bati esker, gauzak aldatu egingo dira.



## 1. EKITALDIA

### 1. agerraldia

*-Rodeta eta Beibona ataria garbitzen-*

- Rodeta** Patena bat bezain garbia geratuko da baratzea.
- Beibona** Hala izan behar da, Rodeta. Ez utzi hosto bat ere jaso gabe, bestela Dukea gu urkatzeko gauza da-eta.
- Rodeta** Ai! Ez hitz egin urkari buruz gero, gauean baldar naiz eta! Beldur naiz esan nahi dut!
- Beibona** Jauregian denok beldur gara, Erregek barre egiten ez duenez geroztik.
- Rodeta** Zoritxarra izan da Errege gaizto bihurtzea!
- Beibona** Gure errege gaiztoa baino gehiago zoritxarrekoa da. Erreginaren heriotzak eta Duke horren laguntza txarrak erotu egin dute. Eta, bitartean, jendez gainezka daude kartzelak. Dukeak jendea kondenatu baino ez du egiten!



**Rodeta** Errege gizajoa! Barre ez egitea, gero! Zer pana! Ai! Zer pena, esan nahi dut. Dukeak... ai! Dukeak iduri harrigarri bat eman dio ziur aski ai! Edari harrigarri bat. Bai buru gogorra!

**Beibona** Agian... Baina, azkar! Errege baratzean paseatzeko ordua da!

**Rodeta** Bukatu dut! Begira...otso arrastorik ez... ai! Hosto arrastorik ez!

**Beibona** Heldu da! Eta Dukearekin, gainera!

**Rodeta** Goazen! Hobe da hemen ez harrapatzea!

*(Rodeta eta Beibona ezkeraldetik irteten dira. Eskuin alde-tik Dukea eta Errege)*

## 2. agerraldia

*-Dukea, Errege eta Ginet-*

**Dukea** *(Erreginarekin agertuz)* Zer moduz gaur, jauna?

**Errege** Beti bezala. Ezerk ez nau olgatzen, ezerk ez nau alaitzen...

**Dukea** Agian gaurko komikoekin alaitasuna berreskuratuko duzu *(baratzeko hormaren gainetik Ginetek burua agertzen du eta bertatik inork ikusi gabe dena aztertzen du)*

**Errege** Hobe izango da haientzat, bestela kartzelarik ilunenera joango dira porrot egiteagatik, beste guztiak bezala.

**Dukea** Hala bedi, Gorentasun!

*(Ezkeraldetik irteten dira)*

### 3. agerraldia

*-Ginet eta Printzesa-*

**Ginet** Arrano-pola! Hauek bai direla jaun dotoreak! Errege dirudite! Baina... begira... neskatxa bat hortik heldu da!

*(Eskuin aldetik Josefina Printzesa sartzen da, iheska bezala, atzera begira)*

**Printzesa** Inork ez nau ikusi! Jaungoikoari eskerrak, bakarrik egon naiteke!

**Ginet** *(Oihuka)* Ez zaude erabat. bakarrik, neska

**Printzesa** *(Ikaraturik, zerbaiten bila bezala.)* Jaungoikoa! Nor dabil hor?

**Ginet** *(Pozik)* Ni... Hemen ganean! Ez ikaratu, neska!

**Printzesa** Neska deitzen al didazu? Badakizu nor naizen?

**Ginet** Ez!

**Printzesa** Ba... jakin ezazu ni Erregeren alaba naizela!

**Ginet** Arraioa! Bar... bar... barkatu, neska... Printzesa esan nahi dut! Horrela bada, jadanik ez naiz ausartzen, zuri, berorri, nahi nuena eskatzen...Ba! Gauzatxo bat besterik ez zen... Laranja xorta batzuk bakarrik... Nire etxeko txikiak, ni hain zaturik ikusita, zein pozik jarriko liratekeen!

**Printzesa** Laranjak eskatu nahi zenituen? *(pentsakor)* Ezinezkoa da, mutil. Hain zuzen ere, nire aitak, Erregek, laranja horiek ukitzea debekatu egin du. Nire amak, Erreginak, gehien maitezituen fruituak baitziren; eta hil zenez geroztik zuhaitz horren fruituak ukitzen ausartuko dena... hilko da.

- Ginet** Orduan, zure anaia txikiek ere ezin dituzte jan?
- Printzesa** Nik ez dut anaiarik!
- Ginet** Ba... nik... anaia pila bat daukat! Eta beti gose!
- Printzesa** Gose dira? Gizajoak! Laranja haientzat ziren? (*dudatzen*) Gauza bat egin dezakegu: Hartuko dizkizut batzuk... Inor ez da ohartuko, agian...  
  
(*Ginet baratzera ateratzen da eta Printzesa laranja batzuk hartzen hasten da*)
- Ginet** Nik lagunduko dizut! (*hartzten ditu eta alkandora barruan gordetzen ditu*) Hauek bai direla ederrak! Aski da, aski da! Ez zait gehiago kabitzen!
- Printzesa** Oihurik ez egin, entzun egingo digute eta... Eta, batez ere, ez esan inori nik hartu ditudala, bestela... hil egingo naiz.
- Ginet** Ez izan beldur, inork ez du jakingo eta! Agur eta Jaungoikoak ordain diezazula!
- Printzesa** Zoaz... zoaz... Urduri nago eta! Ai! Ixo! Norbait heldu da! Azkar! Ihes egin, ikus ez zaitzaten!  
  
(*Eskuin aldetik, printzesa joaten da. Ginetek paretatik ihes egin nahi du, baina Dukea sartzen da eta, joateko zorian dagoenean, harrapatzen du*)

#### 4. agerraldia

-Ginet, Dukea, Soldaduak eta Errege-

- Dukea** Zer? Zer gertatzen da? Ihes egin nahi duen lapur bat! A! Harrapatu zaitut!

- Ginet**                    Utz nazazu bakean!
- Dukea**                    *(Oihukatuz)* Soldaduak, etor zaitetze!  
  
*(Kapitaina eta bi soldadu sartzen dira)*  
  
Har ezazue lotsagabe hau! *(agindutakoa betetzen dute)*  
Zertan ari zinen hemen? Zergatik zenbiltzan iheska?
- Ginet**                    Arraioa! Harrapa ez nazazuen!
- Dukea**                    Zer duzu hor gorderik? Arakatu ezazue! *(esana egiten dute)*  
Eta hau...  
  
Zer da hau, ba? A! Lotsagabe hori! Erreginaren zuhaitzeko laranjak!
- Kapitaina**                *(Ezker aldera begiraturaz)* Errege, Gorentasuna! Aurkeztu armak!  
  
Ar!  
  
*(Errege sartzen da)*
- Errege**                    Zer gertatzen ari da, Duke maitea?
- Dukea**                    Lapur honek debekatutako laranjak lapurtu ditu!
- Ginet**                    *(Bere golkorako)* Egia esaten badut, Printzesak burua galduko du. *(ahotsa altxaturaz)* Bai, egia diozu, baina ez ziren niretzat, gose izugarri diren nire anaia txikientzat baizik.
- Dukea**                    Hitzontzi halakoa! Jauna, debekatutako zuhaitzetik fruitua ukituko duena egun argiz murailaren ondoan urkatu behar da, legeak dioenez. Berriz esan, Jauna: Hala bedi!
- Errege**                    Hala bedi!

**Dukea** Eraman ezazue!

*(Abiatzerakoan, Printzesa erdian jartzen da)*

#### 4. agerraldia

*-Lehengoak eta Printzesa-*

**Printzesa** *(Agertuz)*. Ez, ez! Oraindik ez! *(Erregeren oinen aurrean makurtuz)* Barka iezaiozu, aita!

**Errege** Ezin da, alabatxo! Legea, legea da!

**Printzesa** Ez dezatela eraman! Errugabea da. Ni salbatzeko asmoarekin aurkeztu da. Bai, aita, neu naiz bere anaiarentzat laranjak hartu dituen bakarra!

**Errege** Salbatu egin nahi duzu, ba? *(Gineti)* Esaidazu! Nire alabaxoak dioena egia al da?

**Ginet** Ez jaramonik egin, Errege jauna!

**Errege** Hitz egiteko agintzen dizut!

**Ginet** Ez naiz sekula salatzaile izan! Are gutxiago orain, izango lukeen zigorraren jakinaren gainean egon ondoren.

**Errege** *(Harriturik)* Eta zure bizitza ere arriskuan jartzeko gai zinen?

**Ginet** Jakina!

**Dukea** Jauna, ez samurtu! Edonork egin zezakeen hori!

**Errege** Ez da egia! Nire aiton semeak mutil hau bezain zintzoak balira... *(Gineti)*. Esan, Jauregian bizi nahi duzu, morroi baten antzera, ni zerbitzatzeko?

- Ginet**                   Eta nire anaiak?
- Errege**                   Ez dira gosez hilko eta ez zaie ezer faltako. Eta, gainera, egu-  
nero ikusi ahalko dituzu. Ados zaude?
- Ginet**                   *(Belaunikatuz)* Eskerrik asko, jauna!
- Dukea**                   Baina, jauna..., ezezagun bati laguntzen diozu?
- Errege**                   Ixo! Bihotzak esaten dit agian mutil hau izango dela, niri gal-  
dutako poza bueltatuko didana *(Printzesari)*. Barkatzen  
dizut, alaba maitea, bihotz onekoa izategatik.
- (Printzesa belaunikatzen da eta oihala erortzen da.)*

## 2. EKITALDIA

*(Jauregiko baratzea. Orain oholtza bat ipintzen da, tronu bat  
gainean eta urrezko aulki bat ondoan. Printzesa irakurtzen ari  
da, aulki gainean eserita. Eskuin aldetik Rodeta agertzen da)*

### 1. agerraldia

*-Printzesa, Rodeta eta Ginet-*

- Rodeta**                   Sar naiteke?
- Printzesa**                Nor da?
- Rodeta**                   Ni... ni... noiz... noiz... naiz...! Iritsi dela jakinarazten dizut!
- Printzesa**                Gineti buruz ari zara?
- Rodeta**                   Bai. Hiru gida... gida... ai! gizonekin etorri da; geldi... geldi...  
ai! zaldiz, esan nahi nuen!

- Printzesa**      Esaiozu etor dadila! Berarekin hitz egin nahi dut!
- Rodeta**        Oraintxe, basoa... basoa... ai! oraintxe noa!  
*(Rodeta irteten da eskuin aldetik)*
- Printzesa**      Ginet gizajoa! Gertatzen ari dena jakin ondoren triste jarriko da!  
*(Ginet sartzen da eskuin aldetik morroi jantzian)*
- Ginet**          Jaungoikoa zurekin! Berri on batzuk dakartzat: Munduko hiru gizonik alaienak aurkitu ditut.
- Printzesa**      Egia balitz...
- Ginet**          Zergatik esaten duzu hori? Triste aurkitu zaitut...
- Printzesa**      Gertatzen ari dena bazeneki..., Ginet! Dukeak..., Brauko Dukeak, ni berarekin ezkontzeko eskatu dio erregeari. Nirekin ezkondu nahi du.
- Ginet**          Zurekin ezkondu nahi duela diozu? Eta zuk hori nahi al duzu?
- Printzesa**      Niri aitak ez dit entzun izan nahi! Ezta nire negarrak ere! Ezkontza astebete barru ospatuko da.
- Ginet**          Baina..., zuk nahi ez baduzu, ez da ezkontzarik izango!
- Printzesa**      Nola eragotziko duzu?
- Ginet**          Ez dakit oraindik, baina Jaungoikoaren laguntzaz... Nik uste dut gizon hori ez dela Dukea, ezta berari buruz esaten duena ere!
- Printzesa**      *(Altxatuz)* Ixo! Heldu dela entzuten dut! Banoa! Ez dut ikusi nahi.  
*(Printzesa ezker aldetik irteten da. Dukea sartzen da.)*

## 2. agerraldia

*-Ginet eta Dukea-*

- Dukea** *(Gogo handirik gabe)* A! Hemen zaude!
- Ginet** Printzesa aurkitzea espero zenuen, agian?
- Dukea** Zuri bost axola pentsatzen nuena! Gehiegi ez hitz egin, bestela konturatuko zara nor naizen!
- Ginet** Nor zaren diozu? Nor zaren eta zer zaren ere ondo dakit!
- Dukea** *(Besotik heltzen dio)* Zer esan nahi duzu?
- Ginet** Aska nazazu!
- Dukea** Zeri buruz hitz egiten ari zara? Esan!
- (Eskuin aldetik Tejon, Angila eta Botija sartzen dira)*

## 3. agerraldia

*-Lehengoak, Tejon, Agila, Botika eta Rodeta-*

- Tejon** Hortxe dago morroia! Arrano-pola! Bai baratze handia!
- Angila** *(Dukeari buruz)* Hau al da Errege?
- Botija** *(Dukeari begiraturaz)* Hara! Hau ez al da, ba, Patilla?
- Dukea** Ni? Zer esan nahi du lotsagabe honek?
- Ginet** *(Hirurei)* Ixo! Erregearen gogokoena da eta!
- Dukea** *(Bere golkorako)* Ezagutu nau...! Okerrago berarentzat, hilko baita! *(Dukea ateratzen da eskuin aldetik)*



- Tejon**                    (*Botijari*) Haserretzea lortu duzu!
- Botija**                    Ziur nago berau dena!
- Ginet**                    Nori buruz hitz egiten ari zara?
- Botija**                    Mugan kontrabandista nintzenean nire lankidea zen. Patilla zeritzon. Kontrabandistarik gaiztoarena bera zen!
- Ginet**                    (*Bere golkorako*) Ondo dago jakitea! Bihar bertan Frantzia aldera abiatuko naiz, gizon horri buruzko berriak jakiteko asmoz. (*Besteei*) Baina orain, prest egon, Errege laster etorriko baita eta ezin duzue hutsik egin. Horren barregarri izanda...
- Tejon**                    Barrez lehertuko da, ikusiko duzu. Erregek barre egitea lortzen duenari... urrezko txanponez beteriko zaku bat emango zaiola diozu? Nire eskuetan izateko irrikitzen nago. Urre egarria daukat...
- Ginet**                    Egarri al zara? (*eskuin aldera deituz*) Rodeta!
- Rodeta**                    (*Sartuz*) Misa..., misa... ai! Mesedez! Zer nahi duzu?
- Ginet**                    Ekar iezaiozu baso bat ur! Ura nahi duzu, ezta?
- Tejon**                    Horixe baietz! Ardoz beteriko... ur baso bat ekar ezazu!
- Rodeta**                    Oso ardo... ardo... ai! oso ongi (*irteten da*)
- Angila**                    (*Gineti*) Aizu! Erregeari kili-kili egiteak balio al du?
- Botija**                    Bai, gizona, besapean! (*Tejoni kilikak egiten dizkio*)
- Ginet**                    Ezetz, gizona! Hori ez!
- Rodeta sartzen da, urrezko baso bat eskuan.*
- Rodeta**                    Ardoa amen... amen... ai! hemen dago!

- Tejon** Arrano-pola! Urrezko kopa bat! Hau bitxikeria!
- Rodeta** Ez da kapa... kapa... ai! kopa bat, baso bat baizik! Urrezko baso bat, totolo! (*joaten da*)
- Tejon** (*Bere golkorako*) Arrano-pola! Urrezkoa! Ikusiko ez banindute... (*azkar edaten du eta basoa poltsikoan gordetzen du*)
- Botija** (*Bere golkorako honek ere*) Ikusi al duzue? Hau bai dela azkarra!
- Rodeta** (*Sartzen da*) Ginot... Ginot... ai! Ginot! Erregek doi... doi... ai! deitzen zaitu!
- Ginet** Korrika joango naiz. Prest egon! Errege oraintxe heldu da! (*irteten da*)
- Rodet** Eta arima... arima... ai! animaturik zaudete?
- Tejon** Jakina, baietz!
- Rodeta** Hobe horrela izatea... zeren... badakizue zer dagoen jokoan, ezta?
- Botija** Bai. Urrezko txanpenez beteriko zaku bat.
- Rodeta** Barre egin dezan lortzen ez baduzue, esan nahi dut.
- Angila** Barre egitea lortzen ez badugu ere, zerbait eskuratuko dugu?
- Rodeta** Jakina! Begira, barre egitea lortzen ez baduzue... grrrr! (*lepoa mozteko keinua egiten du*) Urkatu egingo zaituztete!
- Tejon** Zeeeeer...? Nola...? txantxetan zabilta, e?
- Rodeta** Ez, ez... egia da!
- Tejon** A, bai? Lan hau ez dut gogoko!

**Angila** Nik ere ez!

**Bottja** Ezta nik ere!

*(Irteera bilatzen dute)*

**Rodeta** E! Hemendik ez dago mugitzerik! Errege uzkur... uzkur... ai!  
Azkar iritsiko baita! *(eskuin aldetik joaten saiatu bezain laster kapitaina sartzen da. Soldaduak, morroiak ere sar daitezke)*

#### 4. agerraldia

*-Lehengoak, Errege eta Dukea-*

**Errege** *(Dar-dar dauden hirurei begiraturaz)* Hauek dira barre egina-  
raziko didatenak? Ez dute pailazoen antzik.

**Dukea** Arrazoi duzu, jauna!

**Tejon** *(Ahaleginak egiten ditu)* Egun on, errege jauna! *(aparte)* Hau  
bai dela aurpegi iluna!

**Dukea** Errege zuen txisteen zain dago!

**Tejon** A, bai? Eskerrik asko eta agur!

**Angila** Nik ere agurtzen zaitut!

*(Irteten saiatzen dira)*

**Dukea** *(Soldaduei)* Geldi itzazue!

**Tejon** Ez, txantxetan genbiltzan...

**Errege** *(Oso triste)* Horrek ez du graziarik!

**Ginet** Eta, zuk, Botija, ez duzu ezer esan behar?

- Botija** Nahi baduzue... Joko harrigarri bat egingo dizuet. Hemendik ezer ez, hortik ezer ez jokoa. Barregarria da. Begira. Ekariezadazue urrezko baso bat! (*Rodetak ekartzen dio*)
- Botija** Eskerrik asko. Baso hau ikusten duzue? Hartuko dut, putz egingo diot, Ama Zelestinaren hautsak botako dizkiot eta ongi gordeko dut. (*horrela egiten du*) Eta hauxe esango dut: Tejonen poltsikora joan dadila! Bat..., bi..., hiru... Hemendik ezer ez... Hortik ezer ez... Voilá! Tejonen poltsikoan begira dezatela!
- (*Rodetak honela egiten du eta urrezko basoa ateratzen du. Botijari ematen dio*)
- Tejon** (*Bere golkorako*) Larrutik ordainduko du horrek!
- Ginet** Egia da! Basoa lekuz aldatu da!
- Botija** (*Tejonen basoa Rodetari ematen dio*) Hartu, neska! Ez dut nirea ez den zerbait eraman nahi!
- Ginet** Harritzekoa!
- Errege** Harritzekoa, bai..., baina... ez dit graziarik egiten!
- Dukea** Urka ditzatela, gezurti izateagatik!
- Tejon** Itxoin, gizona! Oraindik hoberena falta da, benetan grazia egiten duena!
- Ginet** Zer da, ba?
- Tejon** Azkarren lasterketa da (*Angila eta Botijarekin hitz egiten du*).
- Ginet** Barregarria izango delakoan nago!
- Errege** Ikus dezagun!

- Tejon**                   Joko hau egiteko, hiru pertsona behar dira. Hau bai izango dela barregarria! Ken daitezela denak! Burdinsarea ireki behar da, bestela ez da ondo aterako. Zuk, Errege jauna, hiru arte kontatuko duzu. Gainerako guztiek lagunduko dizute irteera ematen. Horrela: Bat..., bi..., hiru. Bakoitzari seinale bat. Bat niretzat, beste bat Angilarentzat eta Botijarentzat hirugarrena! Hau bai izango dela ustekabea! Ni hasiko naiz... (bere burua prestatzen du.)
- Denak**                   Bat..., bi..., hiru!
- Tejon**                   Ea nork harrapatzen nauen!  
*(Ezker aldetik ihes egiten du)*
- Angila**                   *(Bere burua prestatzen)* Orain ni...
- Denak**                   Bat..., bi..., hiru!
- Angila**                   Oraintxe itzuliko naiz!  
*(Ihes egiten du)*
- Botija**                   Nire txanda orain!
- Denek**                   Bat..., bi..., hiru!
- Botija**                   Harrapatuko ditut eta oraintxe nator!  
*(Denek lepoa luzatzen dute nola ihes egiten duten ikusteko)*
- Errege**                   Barregarria dirudi!
- Dukea**                   Lehenbizikoa ez dut ikusten!
- Errege**                   Baietz bigarrenak irabazi!
- Ginet**                   Ba..., hirurek irabaziko dute!

- Rodeta** Horixe bera, sano... sano..., ai! sinesten dut nik!
- Errege** Ez ditut beste biak ikusten!
- Dukea** Ez direla itzultzen!... Ihes egingo dutela! Hanka egingo dutela!...
- Errege** Jakina baietz!
- Dukea** Ziur egon zaitezke!
- Errege** Ziria sartu didate! Ziria sartu dizuete!
- Ginet** Badakit zergatik deitzen zioten azkarren lasterketa!
- Dukea** Kapitaina! Azkar, atzetik joan zaitezte!
- Kapitaina** Formatzera! Aurkeztu armak! Pauso arinez! Ar!
- (Kapitaina eta soldaduak ihes egiten dutenen atzetik irteten dira)*
- Errege** *(Tronutik altxatzen da, jauregira joateko asmoz)* Ekar ditzatela, azkar, ekar ditzatela!
- Rodeta** Siku...siku..., ai! Piku txinboak iritsi arte itxoin dezakete!

### 3. EKITALDIA

*(Bide bat. Putzu bat. Tejon, Angila eta Botija sartzen dira arnasesetuka)*

- Angila** Hemen atsedean hartuko dugu!
- Tejon** Hori lasterka!
- Botija** Beste gauza batez kezkatu beharko dugu orain! Janariaz esan nahi dut.

- Tejon** Horrek ez du konponbiderik. Ez dugu sosik ere!
- Angila** *(Negar eginez)* Zer ba?... Gosez hil beharko dugula?... Etxera itzuli nahi dut!
- Botija** *(Negar eginez)* Gizajoak gu! Gureak egin du!
- Tejon** *(Negar eginez)* Ez egin negar, lagunak, nik ere negar egingo dut bestela...
- (saltzaile bat sartzen da).*
- Saltzailea** Baina... zer dela eta negar hauek? Zer nolako negarrak! Zaku barregarria entzutea komeniko litzaizueke!
- Tejon** *(Negarrari utziz)* Zaku barregarria? Zer da hori?
- Saltzailea** Ez dakizuela? Entzuten duen bakoitzari nahitaez barre eginarazten dion musika-zaku bat da.
- Tejon** Egia al da? Ongi etorriko zaigu!
- Saltzailea** Zoritxarrez, Gordin Jale bandiduaren menpe dago. Bere leize-zuloan gordetzen du.
- Tejon** Eta non dago Gordin Jaleren leizea?
- Saltzailea** Haran Iluneko sakontasunean. Haraino abiatzen bazarete, kontuz ibili, Gordin Jale bandidu izugarria baita!
- Tejon** Kontuz ibiliko gara.. lasai!
- Saltzailea** Hala, ba! Ongi ibili hara joaten bazarete! Eta pozik egon, ongi etorriko baitzaizue! *(saltzailea joaten da)*
- Tejon** Entzun duzue? Orain, bai, orain, bai, barre eginaraziko diogula Erregeri!

- Angila**           Eta bandidua?
- Botija**           Ez al zara bandiduaren beldur?
- Tejon**           Ausarki bizi behar da! Ea! Nor etorriko da Haran Ilunerantz?
- Botija**           Ni joango naiz!
- Angila**           Baita ni ere! Ez dago beste irtenbiderik!

#### 4. EKITALDIA

*(Gordinjale bandiduaren leizea. Sarreran kutxa handi bat. Zaku batzuk, mahai bat eta bi aulkí)*

##### 1. agerraldia

*-Gordinjale eta Serapia, bere emaztea-*

- Gordinjale**    Ia ordua da! Emazkidazu armak, Serapi! Sastagaia! Pistola! Trabukoa! Aizkora! *(Eskatzen diona ematen dio)*
- Serapia**       Saltzaile bati lapurreta egiteko ez al da gehiegi izango?
- Gordinjale**    Dena prest izan beharko dut! Eta... dena erabilita ere porrot egingo banu? Zer erabili beharko nuke...?
- Serapia**       Hankak! Azken aldiz bezalaxe, ez?
- Gordinjale**    Ukabilak eta hortzak! Baina... joateko ordua da... A! afari on! bat presta iezadazu, itzultitakoan gosez hila egongo naiz eta!
- Serapia**       Dena behar den moduan aurkituko duzu!
- Gordinjale**    Ba... itzuli arte, ba! *(Irteten da.)*



**Serapia** Gogaiturik eta buruan koskor bat edo beste dituela itzultzen ez bada... beti gertatu ohi zaion bezala... Ba! Afaria egitera noa, batzuetan nahi baino lehenago etortzen da eta! (*Serapia irteten da, ezker aldetik. Bat-batean, isil-isilean, aldetik Tejon, Angila eta Botija sartzen dira lotsati baino, erabat izuturik*).

## 2. agerraldia

*-Lehengoak, Angila, Botija eta Tejon-izuturik)*

**Tejon** Primeran, mutilak! Joan da eta etxean ez da inor.gelditu.

Begira! Ziur nago kutxa honetan gordetzen duela zaku barre-garria! Ja... ja... ja. Eta, gainera... Giltza sarrailan dago! Begira... (*kutxa irekitzen du*) Zenbat zabor! A! Harrapatu dut! Zaku barre-garria ikusten dut! (*gaita bat ateratzen du.*) Hau izango da, agian! Ikus dezagun! Proba dezagun! (*nota bat jotzen du eta Botija eta Angila barrez lehertzen dira*)

**Angila** Aski da! Lehertuko naiz eta!

**Botija** Isilik! Zerbait entzun dut eta...

*(Zakuen atzetik gordetzen dira. Ezker aldetik Serapia sartzen da)*

**Serapia** Amatxo maitea! Ahotsak eta negarrak entzun ditudala esan-gu nuke! Eta sorginak balira?...(*Eskuin aldetik Gordin Jale sartzen da. Serapiak oihu izugarri bat botatzen du.*) Ai! Zu al zara? Zer gertatu da, ba?

**Gordinjale** Zer gertatu dela diozu? Bat-batean, saltzailea asteazkenetan pasatzen dela oroitu naizela eta gaur ostirala denez... Eta zu,... zertan ari zinen? Ea! Afaria egitera! Azkar! Alferrontzi hori!

**Serapia** Soinuak entzun ditut eta... pentsatu dut... sorginak balira...

- Gordinjale** Zoaz sukaldera! Azkar! (*Serapia irteten da*) Bai beldurtiak direla andreak! (*Tejonen doministikua entzuten da*) Zer da hori? (*Izaturik*) Zerbait entzun dudala iruditu zait! Begira... Egiatan esan ote du nire andreak? (*Pistola eskuan*) Nor dabil hor? Atera, tiro egitea nahi ez baduzue! (*Zaku barregarriaren musika entzuten da eta Gordin Jaleari pistola erortzen zaio. Zaku mugituz eta honen atzetik Tejon agertzen da gaita jotzen. Ondoren Angila eta Botija barrez lehertzeko zorian. Gordin Jale pixkanaka atzera bultzatzen dute. Gordin Jale ere barrez lehertzen da. Hau aprobetxatuz, kutxan sartzen dute.*)
- Gordinjale** (*Barrutik*) Madarikatu horiek! Ordainduko didazue!
- Tejon** Primeran, mutilak!
- Botija** Andrea heldu da!
- (*Serapia agertzen da, plater pila bat eskuetan, eta ustekabeagatik platerak lurrera erortzen zaizkio.*)
- Serapia** Lagundu! Esan ez dut, ba, sorginkeria dabilela hemen?... (*Korrika ateratzen da*)
- Tejon** Sorgintzat hartu gaituzte. Berdin da. Goazen orain. Erregek ederki barre egingo du!
- Gordinjale** (*Barrutik*) Ireki! Ireki! Serapia! Serapia maitea!

## 5. EKITALDIA

(*Jauregiaren baratzea festa egiteko prest. Dukea bakarrik*)

- Dukea** Printzea! Azkenik nire antsiak betetzeko ordua iritsi da! Inongo oztoporik gabe! Ginet kakanarru horrek ere jauregitik ihes egin du. Ordu batzuk barru Printzesarekin ezkonduko naiz eta behin Printze izanda... (*Kanpai batzuk entzuten dira.*) Jadanik kanpaiak jotzen ari dira! Ordua da... (*Dukea*)

*eskuin aldetik joaten da. Tronpetak eta danborrak entzuten dira. Nobleak baratzera ateratzen dira, pasillo bat osatuz. Kapitaina sartzen da.)*

**Kapitaina**

Errege!!

*(Denak makurtzen dira eta Errege sartzen da, Printzesak lagunduta. Haien atzetik, Dukea)*

**Printzesa**

Aita! Itxoin pixka batean! Bihotzak esaten dit pazientzia pixka bat izanez gero, jakingo zenukeen zure aholkulari hori...

**Errege**

Pazientzia izateko diozu? Ez duzu entzuten, ba? Errege-Kaperako kanpaiak deika ari dira! Goazen, alabatxo, goazen!

**Ginet**

*(Kanpotik) Itxoin! Geldi zaitetzte! (Musika mozten da. Denak gelditzen dira.)*

**Dukea**

Madarikatua!

*(Ginet sartzen da, pergamino bat eskuan.)*

**Printzesa**

Ginet! Eskerrik asko, Jauna!

**Ginet**

*(Erregeren aurrean belaun bat makurtuz.)* Errege Jauna, momentu bat!

**Errege**

Honek zer esan nahi du?

**Ginet**

Ezkontza honek ez duela jarraitzerik!

**Dukea**

Soldaduak! Eraman ezazue hemendik!

**Ginet**

Ez oraindik! Errege Jauna! Nahi izatekotan, urka nazazu, baina, lehen, entzuniezadazu, mesedez!

**Errege**

Hitz egin, ba, Ginet!

- Ginet** Hemen ikusten duzun gizon hau, gezurti, iruzurti, hiltzaile bat baino ez da. Horixe bakarrik esan nahi dut!
- Dukea** Jauna! Nola uzten duzu...?
- Errege** Itxoin! (*Gineti.*) Esan!
- Ginet** Bai! Berriz esango dut! Hiltzaile bat da! Berak hil zuen benetakoko Brau Dukea, haren arropaz jantzita Gortera etortzeko eta Dukeari zegokiona lapurtzeko asmoz.
- Dukea** Gezurra! (*Ezpata ateratzen du.*) Isilaraziko zaitut ezpata honekin!
- Ginet** (*Eskutik kentzen dio.*) Ezpata hau nirea da orain! Ikusten duzu nire ahoa itxi nahi duela? Baina... hori lortuko balu ere, kondenaturik legoke zúurrenik (*Erregeri*). Hemen daude, Jauna, traidorea salatzen duten Avignongo Tribunaleko frogak!
- Dukea** Hau suerte txarra!
- Errege** Soldaduak! Atxilotu!
- Dukea** Zu ere nire aurka?
- Errege** Zuk zeuk kondenatu duzu zure burua! Frantziara eraman, han epai dezaten! Eraman!!
- (*Soldaduek Dukea eramaten dute lotuta*)
- Errege** Jaungoikoa! Jaungoikoa! Eta nire alabarekin ezkontzeko zorian zegoen. Ederki sartu dit ziria gizon horrek!
- Ginet** Bai, Errege Jauna! Bere erruz galdu zenuen poza!
- Errege** Behin betiko!

- Ginet** Ez esan hori, Errege Jauna! Gogortasunez jokatur poza galdu. baduzu, bihotz onez eta maitasunez gobernatuz berreskuratuko duzu! Kondenatuak eta atxilotuak askatu eta arrazoi dudala ohartuko zara.
- Printzesa** Bai, aita! Entzun iezaiozu!
- Errege** *(Dudatur)* Hala bedi! Kapitaina! Kartzelako ate guztiak ireki itzazu! *(Kapitaina ateratzen da.)*
- Ahotsak** Biba Errege! Biba bihotz oneko Errege! Biba!
- Ginet** Entzuten duzu?
- Errege** Bai! Hau poza!!
- Rodeta** Nor din... nor din..., ai! nor doan... nor doan..., ai! Nor dato- rren begiratu! *(Tejon, Angila eta Botija, zaku barregarriare- kin agertzen dira.)*
- Hirurak** Erregeri barre eginaraztera gatoz!
- Errege** *(Barre eginez.)* Ongi etorri, lagunak, baina berandu zatozte! Ja, ja, ja...
- Rodeta** Hara! Korri... korri... korri..., ai! Erregek barre egiten du eta...!
- Tejon** Jadanik barre egiten du!
- Angila** Gezurra dirudi!
- Botija** Harrigarria da!
- Ginet** Ez da harrigarria, baina izango balitz bezala da! (Publikoari). Eta orain txalo bero bat, barre egiten ez zuen erregeren alde!
- Denak** Biba errege!!!

# BEGI BAKARREN BESTE BEGIA

Ikasleak/Irakasleak  
Komedia historikoa  
Zumaiaiko b.h.l.  
Zumaia  
99/00

GAIA

Euskal piratak protagonista dituen antzezlan da. Piratek merkatari batzuen ontzia abordatzen dute, eta ontzi biak hondoratzen dira. Denak ailegatuko dira irla batera, eta orduan...



## 1. agerraldia

*Ontzian*

**Maritxu** Joxepa, ontzirik ageri al da?

**Joxepa** Ezta arrastorik ere, Maritxu. Baditun lau egun Donostiatik abiatu ginela eta oraindik ontzi ziztrin bat bera ere ez dinat ikusi. Teleskopiotik begira hainbeste denbora pasata, begi bat betiko itxita geldituko zaidala pentsatzen hasia naun!

**Maritxu** Orduan gure kapitain Begi Bakarren antza ederra hartuko dun. Ezta, txo?

**Txo** Bai, bai! Ji, ji, ji!

*(Joxe Marik ontzia batetik bestera zeharkatuko du, eta kareletik behera gonbitoka hasiko da)*

**Joxe Mari** Glub, glub, glub...

**Maritxu** Ba, gure Joxe Mari ere hor zebilen lan eta lan, lau egunez apasta botatzen etenik gabe. Joxe Mari! arrantzaleak baginen ere, orain piratak gaituk, piratak! ez apasta gehiago bota.



- Joxe Mari** Donostiara itzultzen garenean, Juana Lerandok entzungo dizkin, entzun beharrekoak. Zer txakolin klase eman zigun edateko?
- Joxepa** Juana Larandoren tabernara ez hintzen, ba, bere txakolinarengatik joango, Donostiako txarrena saltzen duela gauza jakina duk eta. Baina bere *enkantuekin* txoratzen hauen bitartean edozer gauza ematen dik edateko. Eta hik guztiari *Amen!* Mozolo ederra egina hago hi!
- Txo** Bai, bai. (*Barrez*) Ji, ji, ji...
- Joxe Mari** Barre gutxiago, txo, barre gutxiago! Bestela emango diadan begi ondokoarekin hi ere begibakar geratuko haiz eta.
- (*Begi Bakar azalduko da*)
- Begi Bakar** Zer da, hainbeste Begi Bakar gora eta Begi Bakar behera? ez al dago beste lanik?
- Joxepa** Kapitaina, ontzi bat ikusi dudala iruditu zait.
- Begi Bakar** Ea, Joxepa, ekariezadan teleskopioa.
- Joxepa** Baina, zuk, begi bakar horrekin...
- Begi Bakar** Emateko esan dinat. Bestela ikusiko dun.
- (*Teleskopioa lurrera erortzen zaie eta puskatu egiten da*)
- Maritxu** Oraintxe egin duzue ederra! Orain bai ikusiko duzuela biok *kaka*.
- Begi Bakar** Isilik denak! Bestela gau osoa ontzia garbitzen pasako duzue eta!
- Joxe Mari** Horixe besterik ez genian behar, beste gau bat lorik egin gabe pasatzea.

- Begi Bakar** Zer, gaur gauean ere parranda egin al dugu?
- Joxepa** Parranda? Zure zurrungekin ez dago lo egingo duen amaren semerik!
- Begi Bakar** Nik ez dinat zurrungarik egiten.
- Denek** Zeeeeer?
- Begi Bakar** Isiltzeko, gaua ontzia garbitzen pasa nahi ez baduzue. Eta errespetu gehiago bere begia borrokan galdu duen kapitain honi.
- Maritxu** Borrokan begia galdu? Tira, tira, Begi Bakar, mozkor-mozkor eginda zeunden batean, kalean muturrez aurrera erori, harri koskor baten kontra jo, eta horrelaxe galdu zenuen begia eta. Hori mundu guztiak daki.
- Begi Bakar** Gezurra, gezurra eta inbidia, gezurra, inbidia eta ezin ikusia, besterik ez.
- Joxe Mari** Ezin ikusia, izatekotan zurea izango da. Ez al da horrela, txo? *(Eskuarekin begia estaliz)*
- Txo** Bai, bai. Ji, ji, ji! *(Keinu konplize berdina)*
- Begi Bakar** txo, argi ibili hadi, marrazo artean bukatu nahi ez baduk.
- Txo** *(Serio eta negarrez)* Bai, bai. Ji, ji, ji!
- Joxepa** Kapitaina, kapitaina! Ontzi bat dator guregana, zuzen-zuzenean!!
- Begi Bakar** Azkenean! txo, hartu kanabera eta arrantzalearen itxura egin, eta eskuaz agurtu, nabarmen. Ez badira konturatzen laster gain-gainean izango diagu. Maritxu, prestatu kanoia. Eta, Joxe Mari, hik prestatu ezak txalupa, badaezpada.
- Joxe Mari** Txalupa, bai zera! ez dago txaluparik.

- Begi Bakar** Zer?
- Joxe Mari** Ez dagoela txaluparik. Donostian gelditu zen.
- Begi Bakar** Donostian gelditu zela? Donostian utzi huela esan nahiko duk. Madarikatu hori! Beste lanik ez nian agindu, txaluparen zuloa konpontzeko eta berriro ontzian sartzeko. Zertan ibili haiz, ba, Donostian pasatako lau egunetan?
- Joxepa** Gure Joxe Marik garrantzi handiagoko beste *eginbeharrak* izan dizkik, Juana Larandoren tabernan, eta ez dik horretarako astirik izan. Ez al da horrela, Joxe Mari?
- Joxe Mari** Nahikoa da, Joxepa! Baina, lasai, Begi Bakar, kupel ederrak baditugu, eta behar izanez gero kupeletan itsasora gintezke.
- Begi Bakar** Kupeletan? Pirata batzuk kupeletan? Lotsagarria! Baina, tira, horrela beharko dik. Eta, Joxe Mari, hirekin egongo nauk lasaiago hau guztia pasatzen denean.
- Joxepa** Ni Joxe Marirekin joango naun.
- Txo** Ez, ni noak berarekin.
- Joxe Mari** Ez bata eta ez bestea, ni bakarrik noa.
- Joxepa** Ongi da. Nirekin nahi ez baduk ni Maritxurekin joango nauk.
- Maritxu** Tira, ba, gu biok kupel batean.
- Begi Bakar** Lasai, nahikoa kupel dago denontzat. Baina zer kristotan ari gara? Oraindik ez dugu borrokarik egin eta, dagoeneko, hondoratzen bagara zer egin pentsatzen ari gara eta.
- Joxe Mari** Bai, bai. Baina hondoratzen bagaituzte ni bakarrik kupel batean.
- Begi Bakar** Nahikoa duk. Prestatu abordatzeko. Maritxu, prest kanoiarekin. Orain!!

**Maritxu**            Bete-betea, bete-betea! Aufi!

**Begi Bakar**        Hondora zoazak. Ja, ja, ja. Hondora zoazak, onenak gaituk!!  
Hondora zoazak!

**Txo**                Eta gu ere bai, kapitaina.

**Denek**             Zer?

**Txo**                Gu ere hondora goazak, ederki zulatu zigutek barkua.

**Begi Bakar**        Neptunoren bizarragatik, txalupetara, txalupetara!

**Txo**                Ez zegok txaluparik, Ji, ji, ji!

**Begi Bakar**        Ji, ji, ji! Ongi zagok, denok uretara. Eta hi, txo, lehena. Salto!

**Txo**                Nola, ni aurrena? baina ni...

**Begi Bakar**        Salto egiteko esan diat.  
  
*(txok salto egiten du. PLOF. txoren oihu ikaragarriak entzungo dira)*

**Begi Bakar**        Goazen beste aldetik, bizkor! Marrazoek pixka batean entreniturik egongo dituk-eta txorekin.

**Maritxu**            txo, gaixoa!

**Joxepa**            txo, gizajoa!

**Joxe Mari**        txo, umoretsua!

**Begi Bakar**        txotxolo! Kupeletara.  
  
*(Laurek beste aldetik uretara salto egingo dute)*

### 3. agerraldia

*Uhartean*

*(Palmondoz beteriko uhartea ikusiko da. Onik atera diren piratak azaltzen joango dira, banaka)*

**Joxepa** Bakarrik eta galduta, palmondoz jositako uharte honetan. Hau buruko mina! Eta non dira besteak? Eta nire bihotzeko Joxe Mari? Joxe Mari *(albo batetik desagertuko da)*

**Joxe Mari** Hara! Bai irla exotikoa eta dotorea! Bakarrik ote nago? Eta besteak? Eta Joxepa! Ea aurkitzen ditudan. *(desagertu egingo da)*.

**Maritxu** Eskerrak kupel zahar horri, nik ez dakit igerian eta. Non ote dira besteak? Hau egarria! Izan ere kupel zahar horretan ez dago ez ronik, ez koñakik, ura besterik ez. Bizirik ote daude nire lagunak?

*(Albo batetik desagertuko da. Albo banatatik Joxe Mari eta Joxepa azalduko dira)*

**Joxepa** Joxe Mari! Bizi al haiz?

**Joxe Mari** Ba..., baietz uste diat.

**Joxepa** Eta besteak?

**Joxe Mari** Ezta arrastorik ere.

*(Maritxu sartuko da)*

**Maritxu** Joxe Mari, Joxepa, bizirik zaudete! Hau poza! Eta kapitaina? eta txo?

**Joxepa** Ez zirudin bizirik atera direnik. Ito egingo zitunan.

**Maritxu** Ito! Hau desgrazia. txo, gaixoa! eta gure kapitain maitea?

- Joxe Mari** txo, gizajoa, tira, baina *gure kapitain maitea*? Egun guztia agintzen pasatzen zuen tipo zakar hori, itota hobe! Lasaitu ederra hartuko dinagu. Tira, goseak nagon, ea zerbait aurkitzen dugun!
- Joxepa** Eta jateko zerbait aurkitu beharrean lehoinabarrak, elefanteak eta lehoiak aurkitzen baditugu?
- Maritxu** (*txantxetan*) Eta kanibalak baldin badaude, gosez hiltzen egongo dituk, eta jan egingo gaitiztek.
- Joxe Mari** Nahikoa da. Ea, gutxienez, koko bat jaten dugun! (*Bata bestearen gainean, jarritz saiatuko dira*)
- Joxepa** Beste ontziko merkatariren bat onik irten ote da?
- Maritxu** Hara, merkatariak! Eta bizirik badaude? Beno, agian janaria ditek.
- Joxe Mari** Ai Maritxu, Maritxu, beraien artean heure bihotzeko Bartolo topatuko dunalakoan?
- Maritxu** Broma gutxiago. Irla madarikatu honetan bakarrik gaituk!  
(*Gizon beltz bat azaltzen da*)
- Joxepa** Bakarrik garela? Ez nagon oso seguru. Begiratu, zuen atzera.
- Joxe Mari** Bai, kanibal bat zegon nire atzean. Eta zer?
- Joxepa** Nola eta zer?
- Joxe Mari** (*Atzera begiratu*) Kanibala!!!!!!!
- txunda** STOP! txunda kala kata pin, pun teki son pong janari hil kost!
- Maritxu** Nola?

- txunda** Sisifi niskni.
- Joxepa** Baina zer esaten du horrek?
- txunda** Euskaldunak? Ah, nik ulertzen. Euskal Herri, Elkano, txakolina!
- Joxe Mari** txakolina ez, txakolinik ez gehiago!! (*Gonbitoka, albo bate-ra joango da*)
- Maritxu** Tira, Joxe Mari, nahikoa duk. (*txundari*) Eta hik nola ezagutzen dituk Euskal Herria, Elkano eta txakolina?
- txunda** (*Maritxuri*) Nik txunda dut izena. Nire aitona ere txunda zinan izena eta hark kontatu zidan istorioa. Goiz batean, nire aitona kokoak biltzen ari zela, itsasoan ontzi bat azaldu zunan. Bertatik txalupa bat abiatu zunan eta uharte honetara etorri. Bost lagun lehorreratu zitunan eta nire aitonari urik bazuen galdetu. Gizon haiek goseak eta egarriak zeudenan.
- Joxepa** Arraioa, gu bezala orduan.
- txunda** (*Joxepari*) Orduan nire aitona ura eta janaria eskaini eta, ondorioz, lagunak egin zitunan. Gizon haien buruzagia Juan Sebastian Elkano zunan.
- Joxe Mari** Gertaera xelebrea benetan.
- txunda** (*Joxe Mariri*) Eta Elkanok zuen herriaren berri eman zioan nire aitonari: zein politak diren hango ohiturak, dantzak (*dantza askatuan hasiko da*) jateko zaletasuna, txako...
- Joxe Mari** (*Moztu egingo dio*) Ondo zegok, ondo zegok. Baina ez dezaala hitz hori errepika!
- txunda** Zein hitz?

- Joxe Mari** txakolina. (*Goragaleak*) Arraioa, Aaahhh!! (*Albo batera korrika.*)
- Maritxu** (*txundari*) Orduan erdi euskalduna haugu?
- txunda** Bai, bai. Ni txunda Rastafari naun.
- Joxepa** Abizena ere jateko zaletasunetik datorrik.
- Maritxu** Nola?
- Joxepa** Horixe, ba: Rast (*ahora sartzeko keinua egiten du*) -Afari. Rast-Afari. Garbi dago, ezta?
- Maritxu** Kontxo, kontxo! Aizak, eta hire aitonak Elkanorekin egin zuen bezala, emango al diguk edateko eta jateko zerbait?
- txunda** Nola ez! Nire aitonaren ereduari jarraituz, uharte honetara heltzen diren euskaldun guztiak nire gonbidatuak ditun. Zatozte, mahaia ia prest dago-eta. Gainera, beste bi gonbidatu aurkeztuko dizkizuet.
- Joxe Mari** Beste bi gonbidatu? txo eta Begi Bakar gure lagunak ote dira?
- txunda** Ez diat uste, haiek ez dituk euskaldunak eta. Baina zatozte, zatozte.  
  
(*Denak alde batera joango dira, eta orduantxe txundaren hiru lagun eta bi merkatari azalduko dira, janariz gainezka*)
- Piratak** Merkatariak!
- Merkatariak** Piratak!!!  
  
(*Borrokan hasteko keinua egingo dute*)



- txunda** Geldirik denok! Nire gonbidatuak zarete eta nire gonbidatuen arteko borrokarik ez dut onartzen.
- Merkatari 1** Arrazoa dik. Baina gure kakaoa zer?
- Rasta 3** Nola?
- Merkatari 2** Kakaoa, kakaoa. Ontzia kakaoz leporaino beteta generamaan; dirutza ederra aterako genian saldutakoan.
- Rasta 1** Eta zertarako behar zenuten kakaoa?
- Merkatari 1** Ba, txokolatea egiteko. Europa guztian oso modan jartzen ari den janari gozoa. Orain dena galdu dugu.
- Joxepa** Ba, ez zarete dena galdu duten bakarrak. Guk ere ontzia galdu diagu.
- Maritxu** Eta tripulazioko bi lagun: txo eta Begi Bakar.
- Joxe Mari** Beno, txo galdu dugula, ados. Baina, Begi Bakar... hori galtzarekin ez diagu gauza handirik galdu. Alde ederreko lasaitasunean gaituk orain.
- Merkatari 1** Honek ezin du honela gelditu. Galdutako ohorea berreskuratut behar dugu.
- Rasta 1** Ontzia eta kakaoa galdu zenutela esan duzu lehen. Ohorea ere galdu al duzue?
- Merkatari 2** Baita!
- Rasta 2** Eta, non galdu duzue hori?
- Mekatari 2** Hori ez da inon galtzen, baina galtzen denean nabaritzen da.
- Maritxu** Ba guk ere galdu dugu ohorea.

- txunda** Ez didazue, ba, niri horrelakorik esan.
- Joxepa** Baina hala da, eta ohorea berreskuratzeko borrokarako prest gaude.
- Joxe Mari** Hori dun, Joxepa.(*merkatari*) Aukeratu armak!
- Merkatari 1** Pistolak!
- Joxe Mari** Ba, pistolek hitz egin dezatela. Joxepa...
- Joxepa** Nola? Joxepa! Zergatik ni?
- Maritxu** Ohorea berreskuratu behar dugulako.
- Joxe Mari** Eta borrokarako prest hagoelako, eta pistolekin trebeena heu haizelako.
- Maritxu** (*Joxepa besarkatuz*) Ohore bat izan behar du zuretzat, Joxepa.
- Joxe Mari** Aupa, zurekin gaude (*Joxepa besarkatuz, Joxe Mari ere*)
- txunda** Ez dut ezertxo ere ulertzen. Esplikatu al dit inork zertan ari zareten.
- Merkatari 2** Ba, erraza da. Elkarri bizkarra emanda jarri, hiru urrats egin, buelta eman eta tiro.
- Rasta 1** Eta?
- Merkatari 1** Eta kito!
- Rasta 2** Nola, eta kito?
- Merkatari 2** Ba, horixe! Bai hiltzen denak eta bai bizirik gelditzen denak ohorea berreskuratzen dute nork bere taldearentzat.

- Rasta 3**      Eta ez al dago beste sistemarik? Gu gure artean haserretzen garenean dantzan hasten gara, dantzan lehertu arte. Eta neka-neka eginda gaudenean, ba, goxo-goxo... (*dantza egingo dute, txaloka elkarri, ipurdia ipurdiaren kontra, e.a.*)
- Merkatari 1**    Ezta pentsatu ere! Hau gauza serioa da.
- Merkatari 2**    Oso serioa! Beraz, Antton, hartu pistola!
- Merkatari 1**    Nik? Eta zergatik nik?
- Merkatari 2**    Hau oso gauza serioa delako eta niri horrelakotan barregura txatxu bat jartzen zaidalako. Ja-ji-jo!!! Ikusten?
- txunda**        Ondo da, ondo da. Egin ezazue behingoz desafio hori eta kito. Baina zuen ohorea berreskuratu ala ez, bukatutakoan nire esana bete beharko duzue. Ados?
- Denek**         Ados!
- (Joxepa eta merkataria desafiorako prestatu dira. Hiru urratsak egin, buelta eta tiro. PIM-POM. Biak zutik, elkarri begira. Halako batean merkataria zaurituaren keinua egingo du, eskua bihotz aldera eramanda)*
- Merkatari 1**    Aaaah!! Berreskuratu dut ohorea. Herio, zatoz, prest naukazu!
- Merkatari 2**    (*Eskuetan hartu du*) Ba, zauririk ez da inon ageri.
- Merkatari 1**    Ez?
- Merkatari 2**    Ezta arrastorik ere!
- (Eta ezer gertatu ez balitz bezala jaikiko da. Orduan Joxepa izango da bere burua lurrera botako duena)*

- Joxepa**           Aaah!! Agur, nire lagunak; agur, Zuberoa; agur, parrandak eta gaupasak. Herio, har nazazu zure besoetan, musuka nazazu, laztan nazazu. Oh! hauek besoak! (*Heriotza gehiegitxo berotzen hasiko zaio*)
- Maritxu**           Ba, Joxepa, hemen odol arrastorik ez da ageri.
- Joxepa**           Zer?
- Joxe Mari**        Ezta tantarik ere!
- (*Joxepa zutitu egingo da disimuluan*)
- txunda**           Orain nire txanda da. Lehorrean ondo konpontzen ez zarete-  
nez, baltsa bat egingo duzue eta bertan itsasoratu, eta elka-  
rrekin. Itsasoan egun batzuk igaro ondoren zuen onera i-  
tzuliko zaretelakoan nago.
- Joxe Mari**        Baina...
- Rasta 1**           Erabakita dago. Guk lagunduko dizuegu ontzia egiten.  
Ondoren janariz eta urez ongi bete eta zuen lurraldera i-  
tzuliko zarete.
- Merkatari 1**     Ontzi berean pirata madarikatu horiekin?
- Rasta 2**           Eta segituan, gainera. Gure arbasoak kanibalak ote ziren zalan-  
tzan nago, zuek ikustearekin odola berotzen hasi zait eta...
- Joxepa**           Ondo da, ondo da. Nola edo hala konponduko gara. Baina  
arraunean zuek egin beharko duzue (*merkatariei*), gu kate-  
goria handiagoko piratak gara eta...
- Merkatari 2**     Zer?
- Rasta 1**           Nahikoa da, baltsa prestatzera eta kito!

#### 4. agerraldia

*Baltsa itsasoan*

*Piratak eta merkatariak baltsan, etzanda eta lehertuta, goseak eta egarriak daude. Aluzinatzen hasiko direla ematen du.*

- Maritxu** Zer, Joxepa, ontzirik ageri al da?
- Joxepa** Ezta arrastorik ere, badira lau egun Rasten herritik abiatu ginela eta oraindik ontzi ziztrin bat bera ere ez dut ikusi.
- Joxe Mari** (*Aluzinatzen*) Juana Larando, nire bihotzeko Juana Larando, eman iezadazu zure txakolin txar horretako basotxo bat, zintzurra freskatzeko.
- Merkatari 1** Eta orain zer du honek?
- Maritxu** Lasai, ez da ezer, egun batzuk edan gabe ematen dítuenean horrelako zorabioak izaten ditu.
- Joxepa** (*Juana Larandorena egiten*) Hartu, Joxe Mari maitea, hartu eta edan nire txakolin freskoa, ni, Juana Larando, zure ondoran izango naiz behar nauzun bakoitzean.
- Joxe Mari** (*Basokada bat edango du*) Buah! Benetan txarra da zure txakolina.
- Joxepa** Zer uste huen, ba! Itsasoko ura duk eta. Ea, Joxe Mari, esnatu hadi behingoz!
- Merkatari 2** Lurra ikusteko asko falta ote zaigu?
- Merkatari 3** Ez dezagun esperantza galdu.
- Maritxu** Bazter ditzagun amets eroak. Ez dugu inolako aukerarik. Hementxe hilko gara, gosez eta egarriz, eta laster gainera.

- Joxepa** Agur, nire Euskal Herri maitea; zu ikusi gabe hil beharrak min handia ematen dit.
- Joxe Mari** Agur parrandak. Agur Juana Larando eta zure txakolin nazkagarria. Agur.
- (Denak etzanda erdi hilik. Orduantxe uharte-terraza antzeko batekin gurutzatuko da baltsa. Bertan bi turista moderno daude, hamakan etzanda eta freskagarriak hartzen, itzalkin-sonbrila baten azpian. txo eta kapitaina zerbitzari lanetan ariko dira)*
- Turista 1** Zoragarria!
- Turista 2** Bikaina! Hau errealismoa!
- Turista 1** Ikuskizun paregabea. Benetakoa dirudi.
- Turista 2** Piratak, beren ontzia, beren aurpegiak. Eta Juana Laradoren aipamena.
- Turista 1** Eta merkatariak, eta txunda eta bere lagunak. Ikusgarria, benetan!
- (Baltsakoak jaiki egingo dira)*
- Maritxu** Zer, gustatu zaizue, beraz?
- Turista 2** Asko, zoragarria izan da
- (Bi turistak jaiki, aktoreak txalotu eta joan egingo dira)*
- Joxepa** Zer, Begi Bakar, ondo joan al da?
- Begi Bakar** *(Partxea altxatuz, dirua kontatzen hasiko da)* Tira, hainbestean. Sarrerak eta freskagarriak kontuan harturik ez da hain gaizki joan.

- Txo** Langabezian jarraitzea adinakoa izango ote da behintzat!
- Maritxu** Dena dela inoiz ez nuen pentsatuko artista lana horren neke-tsua zenik.
- Joxepa** Bai, neska. Atsedeen pixka bat behar dugula uste dinat.
- Merkatari 1** Ba, hurrengo taldea sartzeko zain dago.
- Merkatari 2** Eta ikuskizunaz gozatzeko irrikatzen omen daude.
- Merkatari 3** Baina gure atsedena?
- Begi Bakar** Ez dago astirik. Ea, bakoitza bere lekura! Abordaiara!!!

*(Eta antzezle guztiak gogo txarrez desagertuko dira. Iluna, eta berriro denak azalduko dira ikusleak agurtzeko)*

*AMAIERA*

# BERMEOKO PORTUAN

Ikasleak  
Aloña Erauzkin  
Estibaliz Gómez  
Ander Maguregi  
Itziar Ramos  
Jon Zabaleta  
Kostunbrista  
Eleizalde ikastola  
Bermeo  
1998

GAIA

Hemen ikusiko duzuen Bermeoko portuan egunero ikus daitekeen zer edo haren kontakizuna eta antzezpena da.

Atsegina izango duzuelakoan, azalpenetan luzatu barik, hona hemen **Bermeoko portua**.





## 1. agerraldia

*Lamerako (Bermeoko kale bat) jesarleku batean hiru andre daude jesarrita, kuxkuxean, arrain ontziak kaira noiz helduko zain.*

**Estibaliz** Ai., horrek umeak... beti opilak jaten...

**Aloña** Bai... eta hala dabil kolesterola gero, goitik beti!

**Itziar** Guk ere badauzkagu popak, ba, opilik barik ere!

**Estibaliz** Bai egia horixe be...

**Itziar** Bai, eta ederrak, euki be!

*Hasperenak, isilunea. Une isiltsu balez, bakoitza lantzean leku bati begira izango da, zer esan jakingo ez balebe legez. Halako batean Aloñak lameraren eskuma aldean dagoan oroitarriari erreparatu deutso*

**Aloña** Eskultura hori... hori berdie, barritz, ondo dauela pentsatzen zuek?

*Besteek euren begiradea bertara zuzendu dabez eta buruez arbuioa adierazoten dabe*

**Estibaliz** Hara, egijje, umie bilusik eta aitte koitadue "desformaue"!

**Aloña** Hori ein dauena be...

**Itziar** Bai, lotsabako "konpletue"

*Miiiiiiiiiiiiiiii!*

*Kofradiako sirenearen hotsa entzun da. Horren esangureaz inork ez dauka zalantzarik. Badakie baporak portutik hurre dagozana.*

**Itziar** Han! Bapora!

**Aloña** Bai, goazen!

**Estibaliz** Goazen arineketan!

*Hiru andrak eskoitik desagertzen dira eta une berean ezkerretik Jon sartzen da, harrituaren aurpegikereaz.*

**Jon** Nora duez horreek, ba, ez da gure bapora ta!

*OHIALA*

## **2. agerraldia**

*Kaian, urrun samarrera begira, portuaren sarrerarantz.*

**Itziar** Guk pentsa duna ez da izan gero!

**Aloña** Ez, baina etortiaz ondo egin dogu sikiera, beran atzean dator eta!

**Estibaliz** Ezagun da arrain asko dakarrena, popie honduen dakar eta.

**Aloña** Eh, fiyo, horrek beti dakar arraine ta!

**Itziar** Bai, barrabasak dakoz...

*Baporea heldu da kaira eta armadorea (Jon) traina lehorre-  
ra ataratzen hasi da. Arrantzaleak ez doguz ikusiko  
(Anderrek eta laguntzailearen batek eszenatokiko hegal bate-  
tik, ezkututik- itsasontzitik dalakoan- traina pasatuko dabe.  
Eszenatokian hiru andrek lagundu egingo deutse Joni traina  
halatzen. Andrak isilik eta indarka. Jon barruko arrantzaleei  
ozenki berbetan*

**Jon** Zer, maria ona? (*Isilik une batean, erantzuna entzuten lez*)  
Traine hausi jatzuela? Zer egingo joagu, ba, sikiera arrantzu  
ona ein dozuie ta!

Traina ataratzea amaitu dabe.

**Jon** Ia. Andrak, badakozue lana. Biharko amaituta euki bizuie eta  
hasi oraintxe bertan josten.

Hiru andrak sareginak dirala emoten da orduantxe ezagu-  
tzera. Euren tresneria atara, jesarri eta lanan hasiko dira.

**Jon** Ondo egin, gero, pasa dan marian be “por aquí pasó Maria”  
eiteagaitik hausi jaku ta.

**Estibaliz** Bai, trankil egon, ondo ingo du ta.

**Itziar** Ez zuez, ala?

**Jon** Ez, arrain enkantea amaitu arte geratuko naz gaur, irabazi  
ederra izan behar du ta.

**Aloña** Tire, ba, jagon negoziijue!

*Armadoreak eszenatokitik urtengo dau, eskumarantz. Sareginak abestuten hasiko dira "Bermeoko portuan goizeko ordu bietan... "*

*Abesten dagozala, ezker aldetik, astiro eta ikuslegoaren norabidean begiratuaz, kai ertza bailtzan eta baporetara begira bailegoan, gizon dotore bat sartuko da eszenatokian. Unexto bat igarotakoan horrela, Itziarrek erreparatu egingo deutso eta abesteari lagako deutso. Beste biek jarraitu egingo dabe, burubelarri trainaren josketan diharduela, Itziarrek berba egin artean.*

**Itziar** A ze morroi galanta!

**Aloña** Horixe bai. morroi dotorie!

*Ezezaguna, berari buruz kuxkuxean dabilzala jakingo baleu legez, eurenganantz zuzenduko da, asti, ikusleei leporik emon barik.*

**Estibaliz** Isi, Andrak, geugaine dator eta (*baxutxu*)

**Ander** Egunon, neure neska galantak!

**Itziar** Halan ekarri.

**Ander** Arraina erosi. nahi dot eta, zuen baporeko patroie non da, ba?

**Aloña** Patroiek ez dau ondino urten, baina armadora dako zu hortxe, kofradijen

**Estibaliz** Tratu hori eiteko bera onena, barritz.

*Jon, etorri, arraine erosko doskuie ta! (Piska bat aldarrika, eskuma alderantz begira)*

*Jon sartu da, interesaturik, eskuak igurtzika*

**Jon** Zenbat gure dozu, ba?

**Ander** Bederatzirehun tona.

**Jon** *(piska bat harrituta eta pozez, era berean)* Arrantzu hori egiteko maria bi behar doguz, txo!

**Ander** Lau milloi pezeta ordainduko deusuet.

**Jon** Ez dakit, ba...

**Ander** Bost milioi pezeta.

**Jon** Bai, txo! Noizko ekarko dozu dirua?

**Ander** Oraintxe bertan, neure " Joils Joice " -an daukat.

**Jon** Zer da "Jos-Jos " be, ba?

**Ander** Kotxe hori, jaune! *(Ezkerreantz seinalaturik, eszenatokitik kanporantz).*

**Jon** Oraintxe ekarkotsut arraine loijatik. Eta zuok, androk *(sareginei zuzenduaz).* tira, juen karrue hartute.

**Aloña** Bai, oraintxe guez *(josteko tresneria batzen arituko dira)*

**Itziar** Oraintxe hartuko dogu.

**Estibaliz** Bederatzirehun Tona izan diez, ezta?

**Jon** Bai, tira... juen.

OHIALA

### 3. agerraldia

*Lameran dagoz danak jesarrita (Ander izan ezik)*

- Itziar** Zer egingo dozu diru horregaz, ba?
- Aloña** Bapore barria erosi zeinke...
- Jon** Bai, baneike, baneike... Baina ez dot erosiko, ondo dakot ondiño ta.
- Itziar** Eta orduen zer erosiko dozu, ba?
- Jon** Etxe barri bat, eta sobratzen jatana Artza garbituteko emongo dot.
- Estibaliz** Eta etxiori non erosiko dozu?
- Itziar** Onenak Baztarren edo Talan ei dagoz.
- Jon** Ez dakit...Ez dakit
- Aloña** Horrenbeste dirugaz Artza garbi-garbi itziko dauie!

*OHIALA*

# **BERTA, BERTA, AGERTU ZAITEZ**

Eneritz Artetxe  
Seber Altube ikastola  
Gernika  
2001

GAIA

Iñazio prest dago Bertarekin ezkontzeko. Baina ezkontza egu-  
nean Berta desagertu egiten da, eta Iñaziok izpirituen mundua-  
rekin kontaktatu nahi du, ea han aurki dezakeen Berta.





## 1. EKITALDIA

*Agertokiaren goialdean edo, aktore batek duen kartelean "Espirituen Mundua" jartzen du... Espirituen buruzagiaren bulegoan gaude. Buruzagia, eserleku mugikor batean eserita, egunkaria irakurtzen ari da, beste batek hilea apaintzen dion bitartean. Beste lau espiritu garbiketa lanetan ari dira atzealdean.*

- Garbitzaile 1** Lurreko arazoak ohi den baino larriago daudenetik, ez daukagu behar bezalako erratzik ere!
- Garbitzaile 2** Egia da, espiritu on-egile guztiak joan dira Ekialde Hurbilera edo Estatu Batuetara, ea lagun dezaketen edo...
- G2** Bai, haien bidaiak eta janaria ordaintzeko dira gure diru guztiak eta hemen ez daukagu ezertarako ere, egunero patatak jaten.
- G4** Menuak bai aldatu zaizkigula! Patata frijituak, patata egoziak, porrusalda... egunero patatak azken batean.
- G1** Lehen desberdina zen, egia da. Baina, izan ere, une larriak dira orain lurrean! Zer egingo diogu ba!

- G2** Bai, une larriak lurrean, baina hor dagoen horrek (*buruzagiarengatik*) nahikoa txuleta eta brazo gitano jaten ditu orain ere gure aldean.
- Buruzagia** Ai, ene jainkoa! zer desastretan dabiltza lurrean orain ere?
- Ileapaintzailea** Egunero kontu berdinarekin, denak estresatuta bizi zarete lurreko arazoak direla eta! Ez duzue lorik ere behar bezala egiten. Ondo etorriko litzaizueke deskantsuren bat, une dibertigarriren bat edo beste.
- Buruzagia** Ixo! Hau ez da txantxetakoa Baina bai, bai, uste dut gehiegizkoa dela. Lasaitu egin beharko genuke. Nerbiotatik jota ez dugu ezertan laguntzen.
- (Bat-batean argiak aldatzen dira. Denak geldi. Musika baten ondoren ahots misterioitsu eta xelegre bat entzuten da)*
- Ahotsa** Berta, Berta, non zaude? Berta, Berta, agertu zaitetz!
- (Une labur baten ondoren, eszena lehengo egoerara itzultzen da)*
- Buruzagia** Baina zein demontre da hori? Egunero ari da lurretik gu espiritu on-egileak deitzen. Zer arraio gertatzen zaio?
- Ileapaintzailea** Ai ama, penagarria da! Emaztegaia galdu zuen ezkondu behar zuen egun berean. Inork ez daki lurrean hari gertatutakoaren berri, edo behintzat inork ez du ezer esaten. Hiru hilabete pasatu dira harrezkero eta tipoa zoratzear dago. Orain espirituen munduan atea jotzea bururatu zaio, bere andre-gaiaren bila.
- Buruzagia** Baina espirituen mundu honetan ez dago Berta izeneko inor.
- Ileapaintzailea** Argi dago hemen ez dela ageri, baina mutil gizajoak nola edo hala aurkitu egin nahi du eta...

- Buruzagia** Hau al da lurtar ero bakarra? Denak daude burutik jota! (*Garbitzaileei*) Zuek, alferrontziok, gutxiago entzun eta gehiago garbitu!
- G1** Bai, Espiritu ahalguztidun andrea.
- G2** Bai, berorren presentzia maiestatikoakoa.
- G3** Bai, gure erregina maitagarria.
- G4** Bai, gure ipurdi handi-handia.
- Buruzagia** Nola?
- G4** Gure ilargi handi-handia.
- Buruzagia** A, beno!
- G1** Neskak, hau zeharo aspergarria iruditzen zait.
- G2-G3-G4** Bai, bai, bai.
- G1** Entzun al duzue lurrean, bere emaztegaia espirituen munduan aurkitu nahian dabilen gizajoaren istorioa?
- G2** Penagarria.
- G3** Zeharo tristea.
- G4** Hark ere gure antzean dibertsio pixka bat beharko luke.
- G1** Hori da, dibertsioa! Neskak, ideia zoragarri bat datorkit burura. Uste dut une dibertigarri bat pasatzeko beta izango dugula oraingoan. Entzun, entzun...
- Beraien artean marmarrean hasten dira, barreka eta marmarrean. Ondoren argiak itzaltzen dira.

## 2. EKITALDIA

*(Publikoaren artetik mutil bat ateratzen da agertoki gainera. Baldar jantzita eta ile lorrinduekin)*

### **Iñazio**

Egun on dizuela, jaun andreok. Benetan eskertuko nizueke minutu pare bateko arreta, mesedez. Ni oso zorionsua nintzen. Bertatxo nire emaztegaiarekin ezkontzekotan nintzen. Lortu nuen, azkenik, hark bere lehengo senargaia, Jon ize-neko petral hura, ahaztea eta, bai, ezkondu egin behar genuen. Elkar maite genuen, baina... ezkontzaren egunean, meza baino lehen desagertu egin zen... Inork ez daki non dagoen eta ni laguntza eske natorkizue, trantze latz honetan.

Espirituen munduekin kontaktatu nahi nuke, ea han aurki dezakedan edo... Baina nire energia ez da inoiz haraino heltzen, antza, eta zuek nire emaztegaiari nirekin batera deitzea da nire eskaria. Mesedez, errepika ezazue nirekin! Kupitu zaitezte zorigaiztoko honetaz! Errepika ezazue nirekin: Berta, Berta, agertu zaitez!

*(Ikusleek laguntzen diote eta bat-batean saiakera batzuen ondoren argiak itzaltzen dira eta spirituen musika entzuten da. Espiritu garbitzaileak publikoaren artetik datoz agertokirantz. Laurak emaztegai jantzian, dantzan. Agertokira heltzean Iñazio inguratzen dute, dantzen artean, azkenik lerrokatu eta gelditzen diren arte)*

### **Iñazio**

Baina, baina, arranopola! Zer da hau? Nortzuk zarete?

### **G1**

Ni Berta naiz.

### **G2**

Ni Berta naiz.

### **G3**

Ni Berta naiz.

### **G4**

Ni Berta naiz

- Iñazio** O, Berta, Berta! Ai, ene jainkoa, nola jakingo dut orain benetakoa zein den! (*Negarrez hasten da*)
- G1** Ni naiz benetakoa, Iñazio. Ez al duzu gogoratzen zein sukaldari ona nintzen. Zure janaririk gustukoena espagetiak ziren eta nik inork baino hobeto jartzen nizkizun. Ez al da egia, Caro Mio?
- Iñazio** Bai, espagetiak tomate eta pepinilloarekin.
- G1** Goizero jaiki, ileak apaindu, kantuan hasi eta zuretzako espagetiak prestatzen nituen, zuk postre zoragarriren bat asmatzen zenuen artean. “*Ta dona e movile, cua piuma al vento...*” (*kantatzen eta sukaldari plantak egiten*) Gogoratzen al duzu, laztana?
- Iñazio** Bai, maitea. Berta zu zara. Gogoratzen dut, nire Berta (*besarkatu egiten du eta G1-k barre egiten du*)
- G2** Ixo, geldi hor! Zer da hau? Gezurti halakoa, alde hemendik! (*G1a bultzatzen du*) Gizon gizajoa engainatzen. Iñazio, Iñazio, ez zara sekula aldatuko, beti berdín. Edonork edozer esan eta zuk sinetsi. Tentel halakoa, horregatik ez zeukan inolako etorkizunik gure artekoak. Nola izango zuen, ba? edozein neskaren besoetara hegan egiten baduzu edozein txotxolokeria sinetsita. Zure kontuekin gaixotu egingo naiz, orain ere tentsioa igo zait zure erruz. Beti berdín...
- Iñazio** Baina, Bertatxo, zuk beti izan duzu ikaragarriko tentsio altua.
- G2** Isilik, potro handi, isilik!
- Iñazio** Potro handi deitzen zidan krisialdi guztietan! Laztana, Berta, lasaitu zaitetz. Orain berriro elkarrekin gaude eta.
- (*Musika erotiko bat entzuten da eta 3G agertokiko beste aldean jartzen da, mugimendu sentsualak eginez, dantzán*)

**G3** Iñazio, Iñaziotxo, gogoratzen duzu nolako musuak ematen nizkizun, laztanak, besarkadak, pentsatu, gogoratu, ondoren zetorrena...

*(Iñaziok Berta berriari lelotuta jarraitzen dio, azkenean bere oinetara erortzen den arte)*

**G4** Ahhh! Oxa Kutxiro, Ianagi. A, A, A, beti Bertak salbatu behar zure burua. Aaa, Oxa Kutxiro... Gogoratu martzialetan erregina nintzela. Behin lapurretan zetorkigun bat honela hartu eta arratoitxo bat bezala bota nuen. Zenbat aldiz salbatu zaitudan gupidagabeko horien eskuetatik!

**Iñazio** Mila esker, Bertatxo, mila esker!

**G1** Nola? Baina ez al naiz ni benetako Berta?

**G2** Ni naiz Berta.

**G3** Ni naiz Berta.

**G4** Ni naiz Berta.

*(Barreka hasten dira, eta borobilean dantzatzen, Iñazio barruan zoratzear dagoelarik. Bat-batean zarata izugarria entzuten da, argiak itzaltzen dira eta espirituen buruzagia azaltzen da agertokiaren atzealdetik ileorde ikusgarri batekin, ile-apaintzaileak bere eserlekua gidatzen duela-rik)*

**Buruzagia** Akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak adarrak okerrak ditu, ditu, ditu. Sarian zun, zun, sarian zun, zun, sarian zun, zun zena. Lau kiriku, lau kiriku, lau kirikurena. Sarian zun, zun... Zer da hau? Zertan zabilzate?

**G1** Gu kantatzen, ezta, neskak? *(beldurrez)* Lalari, lalara *(kanta plantak egiten dituzte)*.

- Buruzagia** Ixo! Zuek espiritu on-egile bezala heziak izan zaretenak, zuek nagikeriagatik espirituen mundua garbitzera kondentatuak zeundetenak, zertan zabiltzate gizakien bazter nahasiak gehiago nahasten? Gure zeregina ez al da gizakiei ahal den neurrian laguntzea?
- G2** Nagusi, baina guk lagundu besterik ez genuen nahi.
- Nagusia** Nola?
- G3** Bai, (*Iñaziori*) benetan, Iñazio, bakar bakarrik ikusi zintugun eta zure arazoez ahazteko lagun beharra zenuela iruditu zitzaigun.
- Iñazio** Ez daukat lagunik, nire lagun eta maite bakarra zen Berta. Eta orain ez dut aurkitzen. Egia jakitea bakarrik eskatzen dut, non dagoen jakitea, gertatu zitzaiona argitzea.
- Buruzagia** Ondo da. Gurari hori emango dizut. Itxi begiak eta entzun... entzun... entzun... Begiak irekitzen dituzunean, aurrean agertuko zaizu zure ezkontza egunean gertatutakoa.
- (Mugimendu magikoak egiten ditu eta denek atzera egiten dute. Agertokiko argia ere aldatzen da. Berta andregaiatz erdi jantzita dago. Ile-apaintzaileak orrazten du... Kantuka eta barrezka sartuko dira)*
- Ileapaintzailea** Eser zaitetz, ezkontzarako ederrena izan behar duzu, ederra jarriko zaitut. Azkenean heldu da zure eguna.
- Berta** Bai, heldu da.
- Ileapaintzailea** Badirudi ez zaudela oso pozik.
- Berta** Zergatik diozu hori?
- Ileapaintzailea** Ikusi al duzu Jon?



**Berta** Zein Jon?

**Ileapaintzailea** Ez ezazu tuntunarena egin, zure nobioa zena, biziki maite zenuen hura.

**Berta** A, hura! Ez, ez dut ikusi.

**Ileapaintzailea** Zure ezkontza ikustera etorri da, baina zuk ez duzu ikusi ere egin nahi, ezta?

**Berta** *(Isilik)*

**Ileapaintzailea** Ez duzu maite, ez? Esadazu ez duzula ikusi nahi, jainkoaren amoreagatik, Iñaziorekin ezkondu behar duzu gaur!

*(Jon sartzen da)*

**Jon** Egun on. Zer polita dagoen gaur andregai.

**Berta** Zer egiten duzu zuk hemen?

**Ileapaintzailea** Zuk ez zenuke ezkontza honetan egon behar.

**Jon** Bai, badakit nik ez daukadala ezkontza honetan gehienek duten diru maila, horrexegatik batzuek nahiago dute aberatsekin nahastea eta ni ez ikustea. Berta, zer esan nahi duzu horrekin?

**Jon** Ondo dakizu esan nahi dudana. Ziur naiz maite ninduzula, baina diruaren distirak beste baten besoetara eramán zintuen. Aitortu ezazu!

**Berta** Hori ez da egia!

**Jon** Orduan zergatik utzi ninduzun? Esadazu ez nauzula maite, esadazu aurpegira.

**Berta** *(Isilik)*

**Ileapaintzailea** Alde hemendik!

**Berta** Utzi ezazu bakean.

**Jon** Esadazu musu haiek ez zirela benetakoak, esadazu gezurrez josi zenituela nire belarriak, esadazu elkarrekin pasatako gauak ez zirela gau izan. (*Gonbidatuen zaratak entzuten dira*)

**Ileapaintzailea** Mesedez, hau ezinezkoa da, oraintxe ezkondu behar du eta!

**Jon** Lasai, lasai, banoa. (*aterantz doa*)

**Berta** Itxaron. (*Jonengana doa korrika eta besarkatu egiten dira*)  
Amaia, ez iezaiezu ezer kontatu, mesedez. Pentsa dezatela lurrak irentsi nauela.

Argiak aldatzen dira. Ile-apaintzailea lehengo tokira doa eta berriro lehenagoko eszenara bueltatzen gara.

**Buruzagia** Orain badakizu egia guztia eta onartu egin beharko duzu.

**Iñazio** Ai, jaungoiko laztana! Eta orain zer egin behar dut nik?

**G1** Orain hasten da zure bizitza, Iñazio. Mundua neskez beterik dago.

**G2** Ez bazintuen maite ez zintuen merezi.

**G3** Momentuz hor gauzkazu gu, pixka bat animatzeko. Lagunen beharrean zaude.

**G4** Bai, lagunak dira une hauetan lagun diezazuketen bakarrak. Ez arduratu, motel, berehala bidaliko ditugu adiskide berriak.

**G1** Egunero etorriko gara zu pixka bat animatzera. Izan ere geu ere nahikoa aspertzen gara goialde horretan.

- G4** Gure laguntza onartzen duzu?
- Iñazio** Ez dakit.
- Buruzagia** Uste dut, lehenik eta behin, egin diozuen broma txar horregatik barkamena eskatu beharko zenioketela.
- G1, G2, G3** Iñazio, Iñazio, barka iezaguzu.
- Iñazio** Bai, uste dut lagunen premia izango dudala pasatakoa gainditzeko.
- G1,G2,G3,G4** Gora, gora gure Iñazio!  
*(Bostak korruan dantzatzen hasten dira)*
- Buruzagia** Aski da! Geldi!  
  
Sentitzen dut une hunkigarri hau apurtu behar izatea; baina, neskatzak, zeregin ugari daukazue gure munduan.
- G2** Baina utziko al diguzu egunero Iñazio bisitatzen?
- Buruzagia** Goizeko garbiketak bukatu ondoren bai.
- G1, G2** Mila esker, polita!
- Iñazio** Mila esker, panpoxa!
- Buruzagia** Beno, beno, ez egin zurikeriarik niri gero! Eta orain bagoaz, jateko ordua iritsi zaigu eta.
- G1** Zer ote dugu gaur bazkaltzeko?
- Buruzagia** Ba uste dut...
- G1,G2,G3,G7** Patatak!

**Buruzagia** Ba, bai, patatak errioxar eran eta gero tarta jelatua.

**G1,G2,G3,G4** Tarta jelatua!!!

**G1** Beno, Iñaziotxo, bagoaz gorantz, lasaitu, saiatu lagunak aurkitzen eta pentsatu bihar elkar ikusiko dugula. Bihar arte.

*(Barre egiten dute eta etorri bezala alde egiten. Buruzagia ere karroan dantzan desagertzen da, agertokian Iñazio bakarrik utziz)*

**Iñazio** Ba hauxe da guztia (*ikusleei hizketan*). Mila esker, denoi, laguntzeagatik. Azkenean ulertu dut gertatutakoa. Gainditu egin behar dut, gogorra izango da nire Bertatxo ahaztea..., baina oraingo honetan behintzat ez naiz bakarrik izango, lagun berriak ditut. Nire bizitzan, lehenengoz, lagunak ditut. Mila esker, guztioi, eta beste bat arte.

*(Atetik irteten da)*



# ESAN OMEN DUTE

Ikasleak/Irakasleak  
Satirikoa  
Ibaigane ikastetxea  
Bilbo  
1998

GAIA

Lehengo eskola, gaurko eskola eta etorkizunean izango dugun eskola.



## **AURKEZLEAK**

**Javier**           Kaixo, lagunak!

**Joana**           Kaixo eta ongi etorri gure antzezlanera.

**Javier**           Orain ikusiko duzuen antzezlanaren handi baten emaitza da.

**Joana**           Beno, Javi, zenbat gustatzen zaizun hitz egitea, gure ikasleak aspertu egingo dira.

**Javi**             Zuek...

**Joana**           Zuek ikasleak zarete, gu bezala, eta orain ikusiko duzue nola ikasten zen lehen, beno, nola uste dugun ikasten zela.

**Javier**           Agian ez zen horrela, baina gutxi gorabehera, besterik gabe.

## **1. agerraldia**

### **PERTSONAIAK**

Maisua: Rogelio  
Ikaslea: Segismundo  
Ikaslea: Rosario



Ikaslea: Petra  
Ikaslea: Augusto  
Ikaslea: Bigilio  
Ikaslea: Remigio

*(Maisua gelara sartzen da, denak zutik jartzen dira eta, Ave Maria...)*

**Rogelio** Beno, espero dut gaur ez gertatzea atzo gertatu zena.

**Augusto** Zer gertatu zen atzo, On Rogelio?

**Rogelio** Zer? Augusto, adarra jotzeko gogoarekin altxatu gara gaurkoan. Zutik!

**Augusto** Ez, mesedez, barkatu, On Rogelio!

**Rogelio** Beno, ba, baina kontuz hurrengorako, lanak egin dituzue?

**Denek** Bai, On Rogelio.

**Rogelio** Ez dut tutik ere entzun! *(Haserre)*

**Denek** Bai, On Rogelio.

**Rogelio** Hori hobeto dago. Ea, ba, Remigio, lehenengo ariketa.

**Remigio** 98 or., 4. ariketa

$$4/7 + 2/7 = (4+2)/7 = 6/7$$
$$3/9 + 7/9 = (3+7)/9 = 10/9$$

*(Pixka bat gelditzen da)*

**Rogelio** Azkar! Lotan gaude ala?

**Remigio** Ez, barkatu, On Rogelio, arrazoi duzu, jarraituko dut.

$$5/11 + 9/11 = (5+9)/11 = 14/11$$

**Rogelio**

Hurrengoa, Petra.

*(Alvarok, errespetuz zein beldurrez, eskua jasotzen du)*

**Rogelio**

Zer demontre nahi duzu, Bigilio?

**Bigilio**

Barkatu, On Rogelio, komunera joan naiteke?

**Rogelio**

Ez! Baina zer uste duzue dela hau? Jarrantu, Petra.

**Petra**

98 or., 5. ariketa

10,7- Diez unidades y siete décimas.

24,86- Veinticuatro unidades y ochenta y seis centésimas.

113,0273- Ciento trece unidades y doscientas setenta y tres diezmilésimas.

**Rogelio**

Ondo da, Rosario. Hurrengoa.

**Rosario**

98 or., 6. ariketa

1go problemaren emaitza= 45 sacos de patatas.

2. problemaren emaitza= 63 años más que Jose.

3. problemaren emaitza= Manolo estuvo 23 días de pesca.

**Rogelio**

Segismundo, hurrengoa.

*(Segismundo oso urduri jartzen da)*

**Segismundo**

On Rogelio, barkatuko didazu, izekoa gaixorik daukat eta arratsalde osoa eman nuen izeko zaintzen ospitalean. Baina, On Rogelio, biharko, falta gabe, eginda ekarriko dizkizut ariketa guztiak.

**Rogelio**

Zutik!

- Augusto** On Rogelio, egia da!
- Bigilio** Arratsalde osoa ospitalean egon zen.
- Rogelio** Segismundo, badakizu zer egin behar duzun!
- Segismundo** Bai. Barkatu, On Rogelio, ez da gehiago gertatuko.
- Rogelio** Ea egia den!
- Segismundo** Bai, On Rogelio, ziurtatzen dizut!
- Rogelio** Besteok bost minutu dituzue jolasteko.
- Segismundo** Ni ere jolas naiteke?  
*(Maisuak keinu bat egiten dio, ezetz esanez)*
- Segismundo** Barkatu, On Rogelio. Arrazoi duzu, ez dut merezi.
- Bigilio** Joango zarete igandean mezetara?
- Petra** Zelako galderak egiten dituzun, Bigilio, beti joaten gara mezetara.
- Remigio** Gainera, nik praka berriak estreinatu behar ditut.
- Augusto** Nik, amak egindako jertsea.  
*(Rogeliok baxuago hitz egiteko keinu bat egiten die umeei)*
- Petra** Zuek, ez dakit, baina nik ingurune ikasgai osoa ikasi dut, eta On Rogelio oso pozik jarriko da nirekin.  
*(Elkarrizketa baxuan jarraitzen dute)*
- Rogelio** *(Erlojuari begiratzan dio)* Ordua da, badakizue nola jarri.

**Denak**                    *(Zerrendatzen dira)* Agur, On Rogelio.

## **AURKEZLEAK**

**Joana**                    Antza denez, gauza asko ikasten zituzten.

**Javi**                     Baina ez gaude hain ziur ondo pasatzen zutenik. Orain ikusiko duzuen familia gero egingo zaizue.

**Joana**                    Bai, orain ikusiko duzuen da gaur egun, egun normal batean, gertatzen dena, gutxi gorabehera.

## **2. agerraldia**

### **PERTSONAIAK**

Andereño: Janire Pilar

Ikaslea: Eider

Ikaslea: Nerea

Ikaslea: Aitor Abendaño

Ikaslea: Eder

Ikaslea: Asier

Ikaslea: Leire

*(Andereño gelara sartzen da eta denak berbetan ari dira)*

**Andereño**                Egun on, Bizkaia! Zer moduz asteburuan?

**Denek**                    Egun on, andereño.

**Eider**                    Primeran, amamaren etxean egon naiz.

**Leire**                    Andereño, nik Pierce Brosnan-en azkeneko pelikula ikusidut, nahi duzu kontatzea?

- Asier** Bai zera; Leirek pelikula kontatzen badigu, nik Friasen zer egin dudan kontatuko dizuet.
- Nerea** Zer egingo dugu gaur dinamikan?
- Eder** Zuk, betikoa! Ziur gaur ere jausi egingo zarela.
- Nerea** Andereño, horrela jarraitzen badu zaplazteko ederra emango diot.
- Andereño** Ea, ba, ez zaitetze haserretu! Zuzen ditzagun etxeko lanak eta, gero, egun osorako plana esango dizuet. Bota, ba, Aitor.
- Aitor** Ea, ba, hasi matematikekin (pozik esaten du). 1. ariketa:  
 $3 \times 4 = 12$ ,  $5 \times 8 = 40$ ,  $4 \times 8 = 32$ ,  $7 \times 3 = 21$ ,  $8 \times 3 = 24$  un patito y un cuatrito.
- Andereño** Aitor, ez zaitetz pailazoa izan.  
*(Denek barre egiten dute)*
- Andereño** Aitor, ez zaitetz pailazoa izan. Tira, jarraitu. Hurrengoa, Eider.
- Eider**  $24 > 13$ ,  $54 < 98$ ,  $13 > 9$ ,  $57 < 49$ ,  $17 > 8$  y me como un bizcocho.  
*(Berriro ere denek barre egiten dute)*
- Leire** Komunera joan naiteke?
- Andereño** Pixka bat agoantatu ahal duzu?
- Leire** Pixkatxo bat, bai. Hurrengoa egin dezaket? *(Baleko keinu bat)*  
 Biko seriea 2-4-6-8-10-12-14-16-18-20 y así hasta cien.
- Andereño** Beno, orduan jarraitu egingo dugu, eta?

- Nerea** Laugarren ariketa zuzendu gabe dago, andereño.
- Asier** Hiru bakarrik agindu zenituen.
- Andereño** Ez, arrazoi duzue, barkatu, zer gertatzen da Asier? ez duzu azkeneko ariketa egin?
- Asier** Nik pentsatzen nuen hiru bakarrik. zirela. (*konturatzen da andereñok ez diola sinesten*). Ez, ez nuen egin, enparantzan futboleko jolasten ibili nintzen eta berandu egin zitzaidan, baina nahi baduzu. jolastorduan egingo dut.
- Andereño** Oraingo honetan ez, baina kontuz hurrengorako. Ea, Nerea, azkeneko ariketa.
- Nerea** 1go problemaren emaitza: 22 caramelos de naranja.  
2. problemaren emaitza: yo meriendo más bocadillos de nocilla que...
- Eder** (*Denak barrez hasten dira*)
- Andereño** Nerea, mesedez, irakurri ondo emaitza.
- Nerea** Barkatu, andereño, 2. problemaren emaitza: me sobra más dinero para comprar nocilla.
- Leire** Andereño, dena ondo egin dugunez, hamar minutu utziko dizkiguzu jolasteko?
- Aitor** Ez, hamar minutu, ez, hobe hogei.
- Andereño** Beno, ba, ordu laurden bat, nik bitartean probatxo batzuk zuzenduko ditut; beraz, ez egin zarata handirik.
- Leire** Ni urduri samar nago.
- Asier** Zer ba?

- Nerea** Zergatik izango da, ba? Ba andereñoren urtebetetzeagatik, memelo!
- Eder** Ondo prestatu beharko diogu jaia andereñori.
- Aitor** Bazen ordua, denbora piloa da merendola bat egiten ez dugula.
- Eder** Zu beti gauza berdinean pentsatzen; Aitor, egun osoa ematen duzu jaten, ez zaude aspertuta?
- Aitor** (*Irribarretsu*) Ba, ez, gainera ni andereñoren jaiagatik pozten naiz, ez janariagatik.
- Leire** Bai, zera!
- Eider** Bai, baina, altu hitz egiten baduzu, ez diogu ustekaberik emango.
- Asier** Nik uste dut jertsea liburua baino gehiago gustatuko zaiola.
- Aitor** Bai. Gainera behar du jertse berri bat. Beti jertse berberarekin dabil.
- Leire** Bai, baina andereño beti irakurtzen dabil. Nik uste dut ilusio handiagoa egingo diola liburuak jertseak baino.
- Nerea** Eta bi gauzak erosten badizkiogu.
- Denak** (*Harridurazko tonua erabiliz eta gogor*) Biak?
- Andereño** Baina zer gertatzen zaizue?
- Denak** (*Barrezka*) Ezer ez, ezer ez, andereño, txistek kontatzen ari gara.
- Andereño** Orduan konta iezadazue niri, mesedez...
- Denak** Ez, ez, oso txarra da-eta.

**Andereño** Berdin da, zuek konta iezadazue. Seguru ez dela horren txarra.

**Denak** Ez, andereño, hobeto ez... (*horrela jarraitzen dute*)

### **Narratzaileak**

**Javi** Beno, oraingo eszena honetan, dirudienez, nahiko gustura egoten dira klasean.

**Joana** Gainera, gauza asko ikasten dituzte klasean; guk, behintzat, bai. Gauza asko ikasten ditugu, ezta, Javi?

**Javi** (*Eman behar du Javi ez dela ia konturatzen*) Bai, bai, arrazoi duzu Joana, orain ikusiko duzuen etorkizunean gertatuko litzakete, gutxi gorabehera.

**Joana** Noski, guk ez dakigu nolakoa izango den etorkizuna eta hurrengo eszenari umorea ematea erabaki dugu.

### **3. agerraldia**

#### **PERTSONAIAK**

Maisua: Rocky  
Ikaslea: Adrian  
Ikaslea: Beatriz  
Ikaslea: Cristina  
Ikaslea: Amaia  
Ikaslea: Silvia  
Ikaslea: Ander

*(Gelan daude eta oraindino ez da maisua ailegatu, Jonnhy, Bety eta Willy musika entzuten daude, kaskoak jarrita dauzkatela. Musikaren erritmora mugimenduak egin behar dituzte, bitartean besteak eserita daude)*



- Minnie** Zer, Susi, atzo azkenean zinemara joan zinen edo etxean geratu zinen?
- Susi** Zinemara, geneuzkan etxeko lan guztiekin? Zu burutik jota zaude ala?
- Minnie** Etxeko lanak egiten arratsalde osoan!, Zu ez zara batere modernoa!
- Wendy** Ni bai, ni zinemara joan nintzen gurasoekin.
- Minnie** Falta zena, oraindik gurasoekin joaten zara zinemara?
- Wendy** Bai, eta zer?
- Minnie** Ezer ez, horrelako jarrera izaten jarraitzen baduzu, lagun berriak egin beharko dituzula.
- Susi** Beno, neskak, ez zaitezte haserretu!
- (Maisua gelara sartzen da, baina guztiek berdin jarraitzen dute)*
- Maisua** Beno, lan egiteko gogoz?
- Denak** Ez, eta zu?
- Maisua** Ez gara hasiko gaur atzo bezala ezta?, Jonhhy, Bety eta Willy, oraintxe bertan kenduko dituzue kaskoak.
- Hirurak** Lasaitu zaitez, maisu, zer nolako umorearekin altxatu zaren gaur!
- Beste hirurak** Edo zer esan duten!
- Maisua** Tira, hasiko dugu klasea? Ea, ba, etxeko lanak egin dituzue?
- Denak** Ez!

- Maisua** Nola?
- Denak** Baietz, txantxetan genbiltzan!
- Maisua** Ea, ba, bota Minnie.
- Jonhhy** Maisu, nik bota dezaket?
- Wendy** Aiba, maisu, zer esan dizuten!
- Amaia** Baina, neska, ez zaitez zorria izan!
- Maisua** Nahikoa da!
- Minnie** Lehen ariketaren emaitza: Cuatro manzanas sí pesan más que dos manzanas. 2. ariketaren emaitza, hau ez dut egin, maisu, oso zaila da.
- Maisua** Willy.
- Willy** Nik ere ez nuen ezer ulertzen, gero eta ariketa zailagoak jartzen dizkiguzu, maisu.
- Jonhhy** Zein ergelak zareten! Nik, bai, egin dut; utziko didazu, maisu?
- (Baiezko keinu bat egiten dio)* Se tarda más en ir a Murcia que en ir a Burgos.
- (Willy altxatu egiten da eta, baimena eskatu gabe, komunera doa)*
- Maisua** Nora zoaz, Willy?
- Willy** Komunera, ezin dut ala?
- Maisua** Tira, baina hurrengoan komunera joan nahi baduzu eskatu.
- Willy** Tira, maisu, nola jartzen zaren horrelako txorakeria batengatik!

**Bety** Maisu, nik egingo dut bigarren ariketa. Aupa, Bety! (*Denak barrezka hasten dira*), para medir la longitud de la goma se utilizan los centímetros.

**Denak** Torera!, Torera! (*txistuak egiten eta oihukatzen*)

**Maisua** Nahikoa da!

**Bety** Para medir la distancia de Deusto a Algorta (*emozioa emateko denbora uzten du, eta besteek danborrekin errepikak egiten dituzte*), prest?

**Denak** Bai!

**Bety** Se utilizan kilómetros.

**Denak** Torera!, Torera! (*Oihukatzen*)

**Maisua** Nahikoa da! Jonnhy, hurrengoa.

**Jonnhy** Jope, maisu, beti galdetzen didazu niri, galdetu Susiri.

**Susi** Bai zera, zuk esaten duzulako!

**Jonnhy** Ba, nik ez dut esango eta kito!

**Maisua** Jonnhy, susmatzen dut ez duzula egin, egia da hori?

**Jonnhy** Ba, bai, ez dut astirik izan, konsola berria erosi didate.

**Maisua** Hori ez da aitzakia!

**Denak** Ez pasatu, maisu!

**Maisua** Beno, egia da, batzuetan urduri jartzen nauzue, biharko utziko dugu azkenekoa, orain nik gauza batzuk zuzentzen ditudan bitartean, zuek hitz egin baxu-baxu.

**Wendy** Aizue, joango zarete Alejandro Sanz-en kontzertura?

**Susi** Ni, agian, bai.

**Bety** Alejandro Sanz?, hori ez da molongia?

**Minnie** Utzi beharko dizuet utzi didaten zinta bat.

**Willy** Zer da ileko zinta?

**Jonhhy** Goma bat izango da, saltatzeko goma bat!

**Minnie** *(Oihukatzen)* Maisu!

**Maisua** Baina zer gertatzen da?  
*(Denak isilik geratzen dira)*

**Wendy** Zer gertatu zen atzo Vigilantes de la Playako saioan?

**Susi** Ezer gutxi, ez zen Ronny atera. Jainkoa, nola dagoen Ronny!

**Willy** Ronny, Ronny ez da ezer, ikusi zelako planta daukan mutil katxarro honek *(eta zutik jartzen da bere planta erakutsiz.)*

**Neskak** Fantasmatoxo hori!

**Jonhhy** Aiba, bururatu zaidana!  
*(Daukaten orria zimurtu eta maisuari botatzea erabakitzen dute)*

**Denak** 1, 2, 3, iiiiep.

**Maisua** Baina, zer arraio da hau?

## **Aurkezleak**

**Joana**            Eta besterik ez, eskerrik asko eta...

**Javi**             Eta txaloak ematera.

**Biak batera**    Mesedez!

*AMAIERA*

# ERNIORA TXANGOA

Ikasleak/Irakasleak  
Drama  
Aizarnako eskola  
Aizarna  
97/98

GAIA

Iraileko igande goizean etxeko mutikoak Erniora gurasoekin joateko gogoia agertu du, bere laguna eta haren etxekoak ere joatekoak direla eta... Etxean badute, ordea, arazorik. Hala ere, aurkitu dute konponbidea eta abiatu dira.

Ernion festa-giroan dabiltzala trumoi haizea nabaritu dute, atzetik laino mardul ilunak dakartzala. Zalapartan bukatuko dute jaia.



## **PERTSONAIAK**

Pello (Amaiaren senarra)  
Amaia (Pelloren emaztea)  
Aitor (bien semea)  
Josune (haurra)  
Joseba (haurra)  
Jagoba (haurra)  
Nerea (haurra)  
Dendaria  
Julen (Amaiaren senarra)  
Ane (Julenen emaztea)  
Gorka (aurreko bien semea)  
Dantzariak  
Eta abar

### **1. EKITALDIA**

*Agertokia: Sukaldea. Eskuinean kalerako atea eta aulkiren bat. Ezkerraldean etxe barrurako atea eta mahaia bere aulkiekin.*

*(Aitor eskuineko bazterrean oinetakoak janzten ari da, lurrean eserita. Bitartean, ama aitarentzako gosaria ateratzen ari da mahaira)*



- Amaia**                    (*Ezkerreko atetik*) Pello! Esna zaitetz, gosaria prest dago eta.
- Pello**                      (*Kanpotik*) Jaikita nago! Banoa! (*Agertuz*) Zer dugu gosaltzeko?
- Amaia**                      Salda, ogi-zopa batzuekin.  
  
(*Pello mahaian jartzen da*)
- Pello**                      (*Salda hartzen hasi da eta aurreneko zurrutean ahoa erre zaio*) Ai! Mingaina erre egin dit! (*Aitorrek eta Amaiak barre egiten diote*) Barre gura ematen al dizue? Edukazio ederra, inoren minari barrez!
- Amaia**                      Ez al dakizu polikiago edaten, ala?
- Pello**                      Hago isilik, txolin hori!
- Amaia**                      Aizu! Errespetua behar dugu, e! Zein da txolina hemen?
- Pello**                      Etxe honetan errespeturik izan al da, ba, inoiz?
- Amaia**                      Zu falta zarenean nahiko errespetu izaten dugu. Zu etxean zaudenean izaten ditugu kontu xeblebre hauek.
- Aitor**                      (*Belarriak estaliz*) Ama! Beti haserre zabiltzate. Belarriko mina egiten didazue horrenbesteko zaratarekin!
- Pello**                      Hago isilik hi, kaka-mokordo huts hori. (*Harridura serioz begiratzen dio Aitorrek. Pellok damu itxura hartzen du*) Beno, ez nian horrelakorik esan behar!
- Amaia**                      Salda beroegia atera dizudalako horrenbesteko eskandalua jartzea ondo irudituko zaizu!
- Pello**                      Barkatu zuk ere, Amaia. Arrazoi duzu, baina... hara, barre egin didazue eta nire onetik atera naiz.

**Amaia** Ekar iezadazu salda hori, pixka bat hoztuko dizut eta.

**Pello** *(Luza biezaio katilua) (Goxo)* Eskerrik asko, Amaia!

**Amaia** *(Buruari eraginez)* Ez horregatik! *(beste katilu batera aldatzen du salda)*

**Aitor** *(Oraindik ere oinetakoa lotuz, indarka)* Aita, nora joango gara gaur?

**Pello** Ez zekiat, ba, eguraldi ederra zagok behintzat eta... Nora joan nahi huke?

**Aitor** Uztapideko Gorka-eta Erniora doaz.

**Pello** Zeinek esan dik hori?

**Aitor** Berak esan zidan atzo.

**Pello** Ez duk ez ideia txarra. Zeintzuk doaz?

**Aitor** Familia guztia.

**Pello** Familia osoa?

**Aitor** Bai.

**Amaia** Nora doazela esan duk?

**Aitor** Erniora edo Zelatuna edo... Han festa omen dago gaur.

**Amaia** Gaur? Irail guztiko igandeetan izaten duk han jai, mutiko!

**Aitor** Joan egingo gara, aita.

**Pello** Ez zekiat, ba. Gaur ez zaukaat gogo handirik. Nekatu samarra nagok. Atzo lan gogorra izan nian eta... Hurrengo igandean joango gaituk.

- Amaia** Zuri gertatzen zaizuna zera da: inoiz ez duzu etxetik irten nahi izaten, eta irtendakoan, berriz, ez dakizu itzultzen. Goizaldera etortzen zara orduan.
- Pello** Ondo da. Joan egingo gara.
- Aitor** *(Jaikiz) Aupa! (lasterka irteten da barrurako atetik)*
- Amaia** Bejondeizula! Horrelako gizonak gustatzen zaizkit niri; nekeak neke, familiaren onerako edozer egiteko prest daudenak.
- Pello** Utzi zurikeriak eta zoaz jateko zerbait prestatzera.
- Amaia** Zer jarriko dut?
- Pello** Fruta pixka bat eta ura.
- Amaia** Ganora ederreko bazkaria, mendira eramateko!
- Pello** Hori biderako da. Bazkaldu hango tabernan egingo dugu.
- Amaia** Hango tabernan? Gu joaterako ondo betea egongo da Zelatungo taberna.
- Pello** Iturriotza jaitsiko gara, orduan.
- Aitor** *(Motxila eskuan dakarrela. Azkeneko esaldiak entzun bide ditu) Aita!*
- Pello** Bai?
- Aitor** Ze ordutan abiatuko gara?
- Pello** Ez zekiat, ba. *(Maltzur)* Orain emazteak agintzen dik hemen.
- Aitor** *(Amari, gozo)* Noiz joango gara, ama?

- Amaia** Hobe izango duzue zuek biok joatea. Aurretik pentsatu izan bagenu, joango nintzateke pozik, baina... Gainera etxea inor gabe uztea ez zait behin ere gustatu, horra!
- Pello** Ateak eta leihoak ondo itxiz gero, ez dago gurean lapur beldurrik, neska.
- Amaia** Hi, Aitor! Joan hadi tabernara eta ekar ezak Kas lata bat, laranjazkoa.
- Aitor** (*Abiatuz*) Banoa.
- Pello** Ez hadi joan, Aitor. Zelatunen ere aurkituko diagu Kas hori, garestixeago bada ere. Bestela alferrik joaten gara, jornal bila lanera.
- Amaia** Zure jornala gastatzeko ez dugu guk festa beharrik, ez.
- Pello** Begira, Amaia, gurekin joatekotan, presta zaitez azkar; bestela, gu bagoaz.
- Amaia** Zoazte, ba, bakea emango duzue eta.
- Aitor** (*Erreguka*) Ama!
- Pello** (*Gozo*) Amaia, mesedez, zatoz gurekin.
- Amaia** Xelebreak zarete ondo! Zakarkeria besterik ez didazue egiten eta orain zeuekin eraman nahi!
- Aitor** Ea, ama, mugi zaitez.
- Amaia** Jo! Lata ederra ematen duzue behintzat.
- Pello** Ea! presta zaitez.
- Amaia** Zer uste duzue, nik ez daukadala Erniora joateko gogorik, ala?

- Aitor** Goazen, ba.
- Amaia** Hara! Ez nizuen esan nahi, arduratu ez zaitezten.
- Pello** (*Arduratu*) Zer gertatzen da, ba?
- Amaia** Ahaztu egin al zaizue behia, une batetik bestera, ume-gale jar daitekeela?
- Aitor** Gaur ez du txahalik egingo, ama.
- Amaia** Eta zuk nola dakizu hori? Ez al dago, ba, egunak beteta?  
(*Pellok buruari hatz egiten dio, pentsakor*)
- Aitor** Laga aitzakiak eta goazen hemendik!
- Pello** (*Ahots lodiz*) Goazen, ba!
- Amaia** Ez al dugu beste baterako utziko? Oraindik irail osoa daukagu.
- Pello** Ez, ez! Gaur da festa nagusia: Ume-jolasak, trontzalariak... Aiztin eta Arria aizkolariak ere han izango dira. Oso ikuski-zun bikaina jarri dute.
- Amaia** Benetan?
- Pello** Bai. Bene-benetan!
- Amaia** Goazen, ba, Erniora, mutilak.
- Aitor** Automobileraz joango gara, ez?
- Amaia** Oinez!!!
- Aitor** Zer, ba, oinez, eta, zergatik ez autoz? Zu joan, nahi baduzu, oinez, eta gu autoz joango gara.

- Amaia** Nahi duzuen egin. Ni behintzat oinez noa.
- Aitor** Eta ni automobilerik! (*Aitari*) Eta zu, aita?
- Pello** Eguraldi ona zagok, eta, oinez joango gaituk.  
(*Amaia, Aitorren motxila hartu eta gauzak sartzen hasi da.*)
- Aitor** Jo, aita! Goazen autoan.
- Pello** Hi!, kontuz kasketa horrekin, e! Bestela hemen geldituko haiz etxe-zain.
- Aitor** Ondo da. Oinez joango gara.
- Pello** Azkar aldatu duk iritzia!
- Aitor** Baina motxila nik eramango dut.
- Pello** Hago isilik, beste kasketa bat hartu gabe. Nik eramango diat motxila.
- Aitor** (*Oso haserre*) Ka-ka!!! (*Erdi-negarrez gelditzen da.*) Bale! Zeuk ikusi!
- Pello** Lehen ere nahikoa ikusten diat nik.
- Aitor** Zer ikusten duzu, ba, zuk?
- Pello** Hik motxila hartzen baduk, bide erdia baino lehen pot egingo duala.
- Amaia** (*Mendirako txalmak dakartzala agertzen da*) Zer? Abiatzeko prest al zarete?
- Pello** (*Buruari eraginez*) Bai, baina behiaren kontu horrekin urdu-ri jarri nauzu, emakumea.

- Amaia** Bai, neu ere ez noa batere lasai. (*Pentsatuz*) Eta Asketakoei esango bagenie... Aldian behin begiradatxo bat ematea nahikoa litzateke.
- Pello** Ba, aizu, ez da ideia txarra. Gainera pozik egingo digute mesede hori.
- Aitor** Aupa!!! Banoa lasterka. (*Abiatzen da*)
- Pello** (*Haserre*) Geldi hor! Nora hoa hi, inozo hori?
- Aitor** (*Lotsagabe*) Ez al duzu, ba, esan Asketara joan behar dela?
- Pello** Hi? Fundamentu ederra egingo huke!
- Aitor** Zuk baino hobea, igual!
- Amaia** (*Aitorri*) Har ezak txamarra (*Emanaz*). Gurasoari errespetu pixka bat gehiago zor zaiok!
- Aitor** Bera hasi da!
- Amaia** (*Pellori*) Har itzazu zuk ere zeure trasteak! (*txamarra emanaz*) Baten tokian bi ume dauzkagu guk etxean. Gezurra dirudi!
- Pello** (*Aitorri, modu onean*) Goazemak. Asketakoekin harantzakoan hitz egingo diagu.  
(*Bihoaz*)

## 2. EKITALDIA

*Ernio tontorpeko ordekatxoa. Eskuin nahiz ezker aldetik sARBIDEAK. Agertokiaren eskuin aldean, salmahaitxo bat: zintak, elastikoak, gazta... Ezkerraldean jendea dantzari, beste jende bat begira..., eta ezkutuan trikitia.*

- Josune**            *(Hotzikarak eginez)* Uuuf! Hau duk haizea, hau!
- Jagoba**            Ni ere hoztu naiz.
- Nerea**             *(Eskuak igurtziz)* Bai ni ere!
- Joseba**            *(Hoska)* Jo trikitixa, Joxe, hotzak hiltzen gaudek eta.  
  
*(Soinua hasten da eta haurrak dantzan)*
- Dendaria**        Etorri, etorri! Erosi Ernioko opariak, merke eta onak!  
Ernioko gazta, munduko onena! Eskola txikien elastikoak!  
Eta...  
  
*(Eskuinetik Gorka, Ane eta Julen agertzen dira. Gorka, zuzenean, dantzariak dauden aldera doa eta haiei begira gertatzen, bere gurasoak saltzailearengana hurbiltzen diren bitartean)*
- Julen**             *(Saltzaileari)* Egun on!
- Dendaria**        Baina, gizona! *(Zintak erakutsiaz)* Zer egiten duk Ernion zintarik gabe?
- Julen**             Zenbatean dauzkak?
- Dendaria**        Zintak? Berrogei duroan xorta bakoitza.
- Julen**             Ez dituk merkeak, alazankoa!
- Dendaria**        *(Kopetilun)* Ez direla merkeak? Guk ere bizi beharko diagu, ba?!
- Ane**                *(Ukalondoaz senarra joaz)* Arrazoi du.
- Dendaria**        *(Alai)* Zenbat nahi dituzue?
- Julen**             Emazkidak bi xorta.



- Dendaria**      (*Banaka emanaz*) Bat eta bi. 400 pezeta.
- Julen**            Orain ere irabazi ederra atera duk hik.
- Ane**                (*Gazta erakutsiz*) Gazta ederra ematen du honek!
- Dendaria**        Munduko onena!
- Ane**                Zenbatean daukazu?
- Dendaria**        Mila eta zazpiehun pezetan kiloa.
- Julen**            Eta merkea dela esango duk lotsa gutxirekin?!
- Dendaria**        Hala duk eta!
- Ane**                (*Senarrari*) Egia da, Julen, mila eta zortziehun egiten du herrian.
- Julen**            (*Dendariari*) Emakumeak ederki engainatzen dituk hik! Ekar ezak bat bakearengatik.
- (*Ane dantzariengana pixka bat hurbildu eta haiei begira jartzzen da*)
- Dendaria**        (*Eman biezaio gazta, zorro batean sartuta*) Ez duk hik sekulan hau bezalakorik jan.
- Julen**            Hobe hiretzat. Deskuiduan txarra ateratzen bada, gogortzen utziko diat, eta, datorren udazkenean, berarekin burutik behera emango diat.
- Dendaria**        (*Barrez*) Usteltzen ez bazaik bai.
- Julen**            Hobe ustelduko balitz. Pastel bikaina itsatsiko niake buru handi horretan, har eta guzti.
- (*Denek barre*)

- Dendaria**        Berriketak utzi eta emadak dirua.
- Julen**            *(Dirua atera eta emanaz)* Eta pisatu?
- Dendaria**        Kiloa justu duk.
- Julen**            Hori ere sinetsi egin behar!
- Dendaria**        *(Emanaz)* Ez zaik damutuko.
- (Bitartean, Gorka dantzarietara begira dagoela ikusi du Anek, eta ondora joaten zaio)*
- Ane**                *(Gorkari)* Zer egiten duk hor, dantzan hasi gabe?
- Gorka**            *(Sorbaldeak eraginez)* Ez daukat gogorik.
- Ane**                Festara etorri eta, dantzarako gogorik ez?
- Gorka**            Ama!
- Ane**                Zer behar duk?
- Gorka**            Erosiko al didazu zinta xorta horietako bat, mesedez? Berrehun pezeta besterik ez du balio.
- Ane**                Dantzara joaten baldin bahaiz, erosiko diat.
- Gorka**            *(Muturtuta)* Orduan ez dut batere behar.
- Ane**                Biok egingo diagu.
- Gorka**            Ezetz, ba, ama!
- (Une honetan trikitia isildu egiten da. Dantzarietara txalo jo eta lasterka alde egiten dute ezker aldetik)*
- Ane**                *(Juleni hoska)* Julen, eros iezaiozu mutikoari zinta xorta bat.

*(Gorka aitarengana doa)*

**Julen** *(Dendariari)* Entzun diok.

**Dendaria** *(Zintak Gorkari emanaz)* Berrogei duro.

**Julen** *(Dirua emanaz)* Har itzak. *(Gorkari)* Besterik behar al duk?

**Gorka** Aita!

**Julen** Zer?

**Gorka** Zoaz amarekin dantzara, irrikitzen dago eta.

**Julen** Dantzara ni?! Bai eta zera ere! Bueltak ematen hasi orduko lurrean nindukek!

*(Anerengana hurbildu dira eta honek azken hitzak entzun dizkie)*

**Ane** *(Barrez)* Eta zer du horrek txarrik? Horrela barre pixka bat egingo dugu denok.

**Gorka** *(Lehentxeagotik ezkeralderantz urruti begira)* Hara han non datozen Aitor eta bere familia. Ni Aitorrengana noa! *(Gorkak, besterik gabe, alde egiten du)*

**Ane** Hoa, bai; gurekin baino gusturago ibiliko haiz eta.

**Julen** *(Datozenei, agertzen ari diren bitartean)* Erre... Judas!!! Azaldu zarete, horratio!

**Pello** *(Agertu berria)* Eguerdi on!

**Ane** Bai eta zuei ere!

**Julen** Non kristo sartu zarete?

**Pello** Gu? Hemen ibili gaituk. Zelatun guztia miatu diagu zuen bila eta arrastorik ez!

**Ane** Noiz?

**Pello** Hamabiak alderako hor gintunan.

**Julen** Zelatungo tabernan bazkaldu al duzue?

**Pello** Non, bestela?

**Ane** Ba al zegoen tokirik?

**Pello** Gu etorri garenean bai. Goiz etorri gaitun eta aurren-aurrena mahaia hartu dinagu. Ordu biak aldera ez zunan giro, hango jendearen emana!

**Julen** Hori pentsatu diagu guk.

**Pello** Eta non bazkaldu duzue?  
*(Gorka eta Aitor agertzen dira ezkerretik)*

**Julen** Iturriotzen.

**Aitor** *(Kopetilun)* Ikusten?! Esan dizuet nik.

**Julen** Zer?

**Aitor** Zera! Zuek autoz etorri zaretela, lasai asko.  
*(Pellok barre egiten du)*

**Gorka** Berandu ibili gaituk eta. Nik nahiago nian oinez.

**Aitor** Ba, nik ez. Tontoa izan behar dik alferrik nekatzeko.

- Julen** Ez duk arrazoiaren faltarik, baina gorputza pixka bat zail-  
tzeko ez duk txarra mendian ibiltzea.
- Aitor** Aita! Noiz goaz tontorrera?
- Pello** Zoazte zuek. Baina bizkor etorri, arratsaldea aurrera zoak  
eta!
- Ane** Lasai ibili. Etxerakoan gurekin joango zarete autoan.
- Aitor** *(Pozik)* Aupa! Eskerrik asko! *(Gorkari)* Goazemak!
- Pello** *(Aneri)* Ondo zagon. Baina arratsaldekoa nire kontu egingo  
dinagu Iturriotzen.
- Dendaria** Etorri! Etorri! Erosi Ernioko opariak, merke eta onak!  
Ernioko gazta, munduko onena! Eskola txikien elastikoak...
- Pello** Zer esaten du horrek? Zer dira elastikoak?  
*(Ane ezkeralderantz urruti begira)*
- Julen** Kamisetak, motel! Eskola txikien eguneko kamisetak saltzen  
dizkik.
- Pello** Ba, nik ez zeukaat eta, erosi behar zioat bat. Goazemak!  
*(Salmahaira hurbildu eta hizketa itxuran hasi dira)*
- Ane** *(Datorrenari)* Hara, Amaia! Azaldu haiz noizbait!
- Amaia** *(Agertuz)* Lagun zahar batzuekin egin dinat topo, eta mingai-  
na dantzan hasiz gero... Badakin...  
*(Soinua hasten da)*
- Ane** Horretarako leku aproposak ditun erromeriak.

*(Haur taldea sartu eta dantzari hasten da)*

**Amaia** Goazeman dantzara. *(Umeen taldera doaz)*

**Ane** *(Umeei)* Utziko al diguzue zuekin dantzari?

**Josune** Bai, bai!

**Amaia** Pello! etor zaitezte dantzara!

**Pello** Bai eta zera ere!

**Joseba** Lotsaaati! Lotsaaati!...

**Pello** Harrapatzen bahaut! *(Korrika doakio harrapatzera. Josebak ihes. Azkenean harrapatzen du eta... musu bat emanetz)* Ni ez naiz lotsatia!

**Nerea** Orduan etor zaitez, ba.

**Jagoba** Ea. ea! Etor zaitez!

**Pello** Ongi da. *(Dantzara doa)*

*(Julen zerurantz urrutira begira. Izu aurpegia jartzen du)*

**Josune** Aupa! Lagun bat gehiago.

*(Denak dantzari)*

**Julen** *(Izutua)* Utzi dantzari eta, goazen hemendik azkar.

**Pello** *(Harritua)* Zer duk?

**Julen** Trumoia zatorrek.

*(Denek begiratzari dute zerurantz)*

- Pello** Egia. Hamar minutu barru hemen dugu.  
*(Ume denak zalapartan abiatu dira) (Soinua ere isildu da)*
- Amaia** *(Umeei)* Kontuz joan, bide txarra dago eta.
- Ana** *(Hoska, Ernio tontorrerantz)* Aitor! Gorka! Jaitsi bizkor Zelatuna!
- Gorka** *(Kanpotik)* Bai, ama!
- Dendaria** *(Trasteak biltzen)* Lagunduko al didazue hau jasotzen?  
*(Bi emakumeak ere badoaz)*
- Pello** Jasotzen? Eramaten ere lagundu beharko diagu!  
*(Laguntzen diote. Trasteak hartu eta korrika batean alde egi-  
ten dute)*

# ESKOLATIN GOIZEGI

Ikasleak/Irakasleak

Drama

Aizarnako h.i.

Drama

99/00

GAIA

Jagoba uste baino goizago etxeratzen da eskolatik, bere lagun Asierrekin piper egin ondoren. Amonak Jagobari esplikatzen dio honen amari eta aitari Groenlandian gertatutakoa. Bitartean andereño agertzen da etxean eta han argitzen dute eskolara joan ez izanaren arrazoia. Zigorrik izango ote dute?





## **PERTSONAIAK**

Karmen (amona)  
Jagoba (umea)  
Asier (Jagobaren laguna)  
Maite (andereño)

### **1. EKITALDIA**

*AGERTOKIA: Etxeko egongela edo antzeko bat. Ezkerrean, sukalderako atea. Erdian, mahaia hiru aulkirekin. Atzean, erditik eskuinxeago, geletarako atea, eta ezkerrera, leihoa.*

#### **1. agerraldia**

*(Amona babarrunak aletzen ari da, bertsotan, eskuin aldeko aulkian)*

#### **Amona**

Mutil zahar bat tentatzen  
hasi naiz lehenguan,  
izan ere halako  
polita zeguan;  
umil eta serio  
hitz egin genduan,  
baina gusto guztiak  
ez dira munduan.

## 2. agerraldia

*-Amona eta Jagoba-*

- Jagoba** *(Kanpotik)* Amona! Non zaude?
- Amona** *(Erlojuari begiratu eta kopeta zimurtuz, berekiko)* Arrano-pola! Erlojuak atzera egin ote zidan?
- Jagoba** Amona!
- Amona** Egongelan ari nauk. Hator!
- Jagoba** *(Erdiko atetik agertuz)* Egunon, amona!
- Amona** Besteetan baino goizago etorri haiz gaur.
- Jagoba** Bai, korrika etorri naiz.
- Amona** *(Oraindik ere harriduraz)* Hala ere..., hamabiak oraintxe dituk eta...
- Jagoba** *(Musu bat eman dio, eta, atzeratzerakoan, mantalaren hegaletik heldu eta babarrun denak botatzen dizkio)* *(Ustekabean egin balu bezala, triste)* Barkatu, amona!
- Amona** *(Oso haserre)* Alde egin ezak hemendik, ume madarikatu horrek!
- Jagoba** *(Negarrez)* Ustekabean heldu diot, deskuiduan.
- Amona** Deskuiduan?
- Jagoba** *(Negar zotinka)* Bai, amona! Barkatu!!!
- Amona** *(Kupituta)* Hator hona.*(Hurbiltzen zaionean, losintxa egiten dio burua ferekatuz)* Aizak!

- Jagoba** Zer?
- Amona** *(Lurreko babarrunak erakutsiz)* Ikusten al dituk babarrun horiek?
- Jagoba** Bai, oraintxe bilduko dizkizut. Zu lasai! *(Ontzi bat hartu eta badoa)*
- Amona** Kontuz ibili, zapaldu eta erori gabe.
- Jagoba** Zer?... *(Esatearekin batera babarrunak zapaldu eta hortzaz gora erortzen da, aihumaz)*
- Amona** Min hartu al duk?
- Jagoba** *(Ipurdia igurtziaz)* Ai ama!...
- Amona** Ama? Tokitan zagok ama.
- Jagoba** Non dago, ba?
- Amona** Badakik! Groenlandian.
- Jagoba** Baina, non dago Groenlandia?
- Amona** Ekar iezadak mapa borobila.
- Jagoba** *(Jaiki eta gelako ezker aldeko txokoan dagoen mahai txikiaren gainean dagoen maparen bila doala)* Mapa, baloia?
- Amona** Bai! *(Pentsatzen)* Zuen aita ere hamaika horrelako egina omen zuan.
- Jagoba** Askotan erortzen al zen?
- Amona** *(Irribarretsu)* Esaten dutenez, beti bihurrikeriak egiten eta lurretik bueltaka zuan.

- Jagoba** Askotan hartzen al zuen min?
- Amona** Ez zekiat zenbateko mina hartzen zuen, baina arrantza galantak ateratzen omen zizkian behintzat.
- Jagoba** Asko ibiltzen al zen jolasean?
- Amona** Asko ez, beti. Azkenean, jolasean alde egin ziguan mundu honetatik ere. (*Goibel, isil eta pentsakor geratzen da*)
- Jagoba** (*Mapa borobila emanaz*) Har ezazu mapa, amona. Ea non dagoen Groenlandia edo delako hori.
- Amona** (*Amerika nabarmen erakutsiz*) Hau ba al dakik zein den?
- Jagoba** (*Ustetsu*) Bai, Afrika.
- Amona** (*Kopetilun*) Nork irakatsi dik gezur handi hori?
- Jagoba** Ez dakit, ba, Andereñok edo...
- Amona** Andereño ederra hago hi egina. (*Europa erakutsiz*) Eta hau?
- Jagoba** (*Ziurtasunik gabe*) Hori... Asia izango da.
- Amona** Asia? Sasia daukak hik galanta buru eder horretan. Europa duk, Europa!
- Jagoba** Orain errietan hasi behar al duzu?
- Amona** Lan ederrak zeuzkak andereñok hirekin eta hi bezalakoekin!
- Jagoba** Erakutsiko al didazu, behingoz, Groenlandia hori non dagoen?
- Amona** Atlantiko Itsasoa ba al dakik zein den?
- Jagoba** (*Behatzez adieraziz*) Bien arteko hau izango da.

- Amona** Asmatu duk oraingoan. Ba, Amerika eta Europaren arteko lekurik iparrenean zegok kokatua Groenlandia. Atlantiko itsasoaren ipar muturrean, Artikoa deritzan lur eremuan.
- Jagoba** Zertara joaten da ama hain urrutira?
- Amona** Berriketak utzi eta jaso ezak mapa hau. (*Mapa eman eta babarrunak aletzen hasten da*)
- Jagoba** (*Mapa jasoaz*) Zertara joaten da?
- Amona** (*Haserre antzean*) Noiz bildu behar dituk babarrun horiek?
- Jagoba** (*Biltzen hasiz*) Nik bilduko ditut babarrunak; baina kontatu zuk ere ama zertara joaten den Groenlandiara.
- Amona** Zenbat urte dituk?
- Jagoba** Zazpi, amona; dena ahazten zaizu aspaldi honetan.
- Amona** Ederki ari haiz, bai, koskortzen.
- Jagoba** Bai, badakit hazten ari naizela. Baina zer ikusteko du horrek amarekin?
- Amona** Horrek amarekin ez zekiat; baina amak horrekin bai. Zeinek uste duk ekarri hinduela mundu honetara?
- Jagoba** Amak. (*Babarrun guztiak bildu ditu eta zutitzen da*) Baina esango al didazu, behingoz, zertara joaten den Groenlandiara?
- Amona** Jaso al dituk denak?
- Jagoba** Bai!
- Amona** (*Mahaiaren beste aldeko aulkia erakutsiz. Triste samar*) Eseri hadi aulki horretan.

**Jagoba**            (*Amonari begirik kendu gabe, eseriz*) Berriro ere haserre, amona?

**Amona**            Ez! Ez nagok haserre. Serio nagok!

**Jagoba**            Zer, ba?

**Amona**            Amaren historia jakin nahi duk ala ez?

**Jagoba**            Bai, noski! Aitarena ere bai. Baina ez didazue behin ere kontatzen.

**Amona**            Oraintxe kontatuko diat dena..., behingoz isiltzen baldin bahaiz.

**Jagoba**            Mutua baino isilago egongo naiz.

**Amona**            Oraintxe dituk bederatzi urte hire ama Nairobotarrak izeneko talde batean izena eman eta bi hilabeterako Groenlandiara abiatu zela.

**Jagoba**            Ni ere pozik ibiliko nintzateke hegazkinean.

**Amona**            Zeinek esan dik hegazkinez joan zela?

**Jagoba**            Nola joan zen, ba?

**Amona**            Nola? Inoiz ikusi al duk titiriteroen autobus xeleb्रे horietakorik?

**Jagoba**            Bai. Jan eta lo eta dena han egiten omen dute.

**Amona**            Ba, horrelakoxe batean joan zuan, hippyak bezala.

**Jagoba**            Bera bakarrik?

**Amona**            Bai, zera! Esan ez diat, ba, talde batean joan zela.

- Jagoba** Gure herrikoa al zen, ba, talde hori?
- Amona** Arrazoi duk. Gure herritik bera bakarrik joan zuan. Baina ez zuan bera bakarrik etorri, ez!
- Jagoba** A, ez?
- Amona** Ez, horixe! Gero hire aita izango zenarekin etorri zuan.
- Jagoba** Groenlandian ezagutu al zuten elkar?
- Amona** Ez. Aurretik ere ezagutzen omen ziaten elkar. Hala esan zidatean gero. Mendizaleentzako ikastaroren batean edo.
- Jagoba** Zuk ez al zenuen aurretik ezagutzen aita?
- Amona** Bidaia hartatik etorri eta ate horretatik sartzen ikusi nuen arte ez.
- Jagoba** Etxera ekarri al zuen?
- Amona** Ekarri..., etorri..., ez zekiat. Ikustekoak agertu zituan behintzat! elkarrekin txora-txora eginda!
- Jagoba** Zoratu egin al ziren Groenlandian?
- Amona** Zoratu, zoratu... Hire ama jaiotzetik duk zoroa. Eta aita ere bai, gero ikusi genuenez.
- Jagoba** Aita eta ama ez zeudela burutik sano esan nahi al didazu?
- Amona** Erabat sano..., ez zekiat. Ez zituan besteak bezalakoak.
- Jagoba** Gaiztoak?
- Amona** Hago isilik, kontaktzen jarraitzea nahi baduk! Ez zituan gaiztoak. Pertsona maitagarriak zituan: beti inori laguntzeko prest eta naturazale porrokatuak.



- Jagoba** Horregatik dauzka amak lagun asko.
- Amona** Aita ere asko maite zian jendeak. Baina beti jolasean ibili behar: abentura bat bukatu eta bestea prestatzen...
- Jagoba** Bi zoro zirela.
- Amona** *(Triste)* Zoro samarrak behintzat.
- Jagoba** Horregatik esan duzu txoratuta zeudela.
- Amona** Ez duk berdin! Elkarrekin txoratuta egoteak elkar asko maite dutela esan nahi dik.
- Jagoba** Asko maite al zuten elkar?
- Amona** Baaai!
- Jagoba** Amak ni haina bai?
- Amona** Gutxienez.
- Jagoba** *(Harridurazko txistua joaz)* Horrenbeste, e?
- Amona** Bai. Horregatik, elkarrekin bizitzen jartzea erabaki zitean, eta, handik urtebetera, ezkondu egin zituan.
- Jagoba** Eta?
- Amona** Ezkontza bera ez zitzaiean nonbait nahiko abentura iruditzen eta beste bati ekin ziotean.
- Jagoba** *(Goibel)* Ezkonbidaia Groenlandiara.
- Amona** *(Negarrez)* Bientzako zoritxarrean.
- Jagoba** *(Isilune labur baten ondoren)* Nola gertatu zen aitarena?

- Amona** Badakik Groenlandian, artiko alde guztian bezala, elur asko izaten dela.
- Jagoba** Bai. Zenbait tokitan ez omen du behin ere lurmentzen.
- Amona** Halaxe duk. Trineoak zer diren ba al dakik?
- Jagoba** Elur bideetan, txakurrak tiraka direla, irristatzen diren lera edo gurpilik gabeko gurdiskak.
- Amona** Ba, trineoa gidatzen han bertakoak bezain iaioa omen zuan hire aita.
- Jagoba** Baai?
- Amona** Hango udako egun amaigabe betean... Ba al dakik Artikoan uda guztia irauten duen eguna izaten dutela?
- Jagoba** Uda guztia batere gaurik gabe?
- Amona** Halaxe duk.
- Jagoba** Eta noiz egiten dute lo?
- Amona** Logura etortzen zaienean. Baina hago isilik!
- Jagoba** Beno, ba.
- Amona** Ilunik gabeko egun haietako batean, trineoak hartu eta jola-saldi bat egitera irten omen zituan.
- Jagoba** Ama eta biak?
- Amona** Eta beste lagun talde bat. Elur zelai zabaletan zabaldu omen zituan denak. Eta, (*dramatismo handiz*) halako batean...
- Jagoba** (*Larri*) Zer?

- Amona** Haize zurrunbilo izugarri batek zakurrak ikaratu omen zizkioan aitari, eta herio suhar eraman omen zitean.
- Jagoba** Nora?
- Amona** Haize zurrunbiloak harrotu zuen elur-lainoak erabat estali omen zizkian aita eta txakurrak, euren trineo eta guzti, urruti samar zebiltzan lagunen begietatik.
- Jagoba** Eta?
- Amona** Haizetzarra apur bat baretu orduko hasi omen zituan lagunak haren bila.
- Jagoba** Trineoaren arrastoak jarraituta, laster aurkituko zuten?
- Amona** Ez zitzaiean hain erraza gertatu, ez. Haize zakarrak orbela bezala astindu zizkian gainazaleko elurrak, arrasto guztiak ezabatuz.
- Jagoba** Zer egin zuten, orduan?
- Amona** Lau taldetan banatu eta alderdi guztiak arakatzeari ekin ziotean, nondik nora zebiltzan elkarri adierazteko, aldian behin adarra joaz. Horrela ordubetez, biz, hiruz... (*Isilunea*)
- Jagoba** Eta, ilundu egin zitzaien?
- Amona** Esan ez diat, ba, Artikoan gaurik gabeko egunak izaten direla udakoak. Utziko ote didak bukatzen!
- Jagoba** Isildu egin zara eta, nik ere zerbait esatea nahi zenuela pentsatu dut.
- Amona** Arnasa ere hartu beharko diagu, ba...
- Jagoba** Barkatu!...

- Amona** txakurrak agertu zitzaizkiean, nagusia galdutzat emanik, poliki-poliki, etxerantz buru makur zihoazela.
- Jagoba** txakurrak azkarrak izaten dira eta jakingo zuten aita non galdu zitzaien.
- Amona** Ume ipurterre mihiluzea! Utz iezadak bukatzen.
- Jagoba** Bazekiten non zegoen, ezta?
- Amona** Nontsu zegoen behintzat bai.
- Jagoba** Banekien nik.
- Amona** Bai. txakurrei esker aurkitu zitean zulotzar batean, elur artean erdi estalia, izterrezurra puskatua eta ezkerreko sorbalda bere lekutik aterea zituela, mugitu ezinik.
- Jagoba** Baina, bizirik.
- Amona** Bai, bizirik. Baina, erdi izoztua ere bazegoan nonbait eta, hezurak sendatu orduko, pneumoniak harrapatu zian.
- Jagoba** Zer da hori?
- Amona** Pneumonia? Ba..., biriketako gaitz txar bat. Handik hilabete-ra...
- Jagoba** Hil egin zen.
- Amona** Bai. Han bukatu zituan haren jolasak eta abenturak.
- Jagoba** Eta, ama?
- Amona** Lur jota geratu zuan. Laster hasi zuan bizkortzen, ordea. (*Tarte irribarretsu baten ondoren*) Aita hil baino egun batzuk lehenago, aitak eta amak, elkarrekin egindako jolasaldi eder

batean, hi sortu hinduten. Poliki-poliki sabela borobiltzen hasi zitzaioan. Hik berpiztu hion bizitzeko ilusioa.

**Jagoba** Han jaio al nintzen?

**Amona** Amaren sabelean zortzi hilabeteko hintzela etorri zineten.

**Jagoba** Zertara joaten da ama, orain, Groenlandiara?

**Amona** Asko maite zian aita eta... Han utzi behar izan zuenez... Urtero joan izan duk egun batzuetarako.

**Jagoba** Aurten egun batzuk baino gehiago ari da pasatzen.

**Amona** Bai, joan zen urtean ere bai. Ez zekiat jolas lagun berriren bat ez ote duen aurkitu.

**Jagoba** Bai, Mark.

**Amona** (*Harriduraz*) Maaark?

**Jagoba** Bai, joan zen urtean amarekin etorri eta gurean egun batzuk pasatzen egon zena.

**Amona** Bazekiat nor den Mark. Oraingoan betiko etorriko dela uste diat gurera.

**Jagoba** Iupi!

**Amona** Gustatzen zaik?

**Jagoba** Kristoren tipoa da, eta, joan zen urtean ere, txora-txora egin-da zeuden.

**Amona** Nola dakik hik hori? (*Ateko txirrina*)

**Jagoba** Aaaa!

**Amona** *(Babarrunak ontzira hustu eta, Jagobari)* Eraman itzak sukaldera.

*(Amona erdiko atetik doan bitartean, Jagoba sukaldeko atetik zelatan geratzen da pixka batean)*

### 3. agerraldia

*-Lehengoak, Andereño eta Asier-*

**Amona** *(Kanpotik.)* Ea, ba, zein dugun? *(Irekitze hotsa)*

**Andereño** *(Kanpotik)* Egunon, amona!

**Amona** *(Kanpotik)* Egunon, andereño. Sartu, sartu barrura.

**Jagoba** Ni bai sartuko naizela barrura. *(Ezkuta bedi)*

**Andereño** *(Kanpotik)* Eskerrik asko.

**Amona** Ez dakizu zer poza ematen didan zu hemen ikusteak.

*(Andereñooren barre-hotsa)*

**Jagoba** *(Burua agertuz)* Zertara datorren baleki! *(Ezkatatu egiten da)*

**Amona** *(Andereñoekin eta Asierrekin agertuz, Asierri)* Eta zein dugu mutiko polit hau?

*(Asierrek ez dio erantzuten; lurrera begira isilik jarraitzen du)*

**Amona** Hara! Bidean mingaina galdu zaio ala mutua da?

**Andereño** Ez, ez da mutua. Baina, dirudienez, badu hizketarako gogoak kendu dion zerbait.

- Amona**            *(Maleziaz)* Bai, e?
- Andereño**        Jagoba ez al dago etxean?
- Amona**            Baietz uste dut. Sukaldera joan da, babarrun aletuak jasotzera.
- Andereño**        Hemen balego, agian, esango liguke Asierrek zer ote duen mutu egoteko. *(Asierri)* Ez al duzu uste?
- (Asierrek hitzik ez. Burumakur jarraitzen du)*
- Amona**            Hots egingo diot, nahi baduzue.
- Andereño**        Hala iruditzen bazaizu...
- Amona**            *(Hoska)* Jagoba, hator hona; hire bila etorri dituk eta!
- (Denak atera begira geratzen dira, eta Asierrek atzera egiten du apur bat)*
- Jagoba**            *(Burumakur agertzen da eta azpi-begiratu gaiztoa botatzen dio Asierri)* Zer?
- Andereño**        Asierren amarekin topo egin diat, eskolatik irtetea, eta Asier gaixorik ote dagoen galdetu zioat. Eta zuek biok elkarrekin joan zaretela eskolara esan zidak.
- Amona**            Eta, ez dira eskolara joan?
- Andereño**        Nik behintzat ez ditut han ikusi.
- Amona**            *(Haserre)* Piper egin dutela, alegia.
- Andereño**        Piper edo... Eskolaz kanpoko ikaskizuna aukeratu dute behintzat. Koba-zulo bat arakatzen ibili omen dira, linterna bana kopetan dutela.

- Jagoba**            *(Asierri, haserre)* Mingainluze zikina, ez nauk gehiago hire laguna izango.
- Asier**                Harrapatu egin naitek, hi!
- Amona**              Nondik atera dituzue linternak?
- Asier**                Goi Mendi elkartekoei eskatu genizkien.
- Jagoba**              Eta eman egin zizkiguten. Gero Asierren oilategian gorde genituen, teilatu azpiko pareta gainean.
- Andererño**          Asierren oilategian?
- Jagoba**              Beno, Asierren osabarenean.
- Andererño**          Bai, eta gero, berriz ere, hantxe bertan jaso omen dituzte. Ordurako oso nekatuak omen zeuden, eta oilategi atariko gaztainapean eseri omen dira atsedean hartzeko.
- Amona**              Nolako zuhaitza halako ezpala!
- Andererño**          Izugarritzko gosea omen zeukaten, gainera, eta Asierrek arrautza bana lapurtzeko..., oker esan dut, lapurtzeko ez; hartzeko baimena eman omen dio, goseak hilko ez bazituen.
- Amona**              Eta orain zer?
- Andererño**          Egia esan, ez dute oker handirik egin. Benetako okerrik bate-re ez dutela egin esango nuke nik. Koba-zuloa miatzera joatea, eskolara joan beharrean..., okerra dela iruditzen al zaizu, amona?
- Amona**              Horrela esanda..., ez dakit, ba. Baina baimena eskatu edo..., gutxienez nora zihoazen esan balute...

*(Bi mutikoak barrez)*



- Andereño** Zeri egiten diozue barre?
- Jagoba** Eskolara joan beharrean, mendia ezagutzera joaten utziko al zenigukete?
- Asier** Belarrondokoren bat ederra eman bai! (*Biek barre*)
- Andereño** (*Irribarrez, hau ere*) Agian arrazoi pixkaren bat baduzue. Horretaz ere hitz egin beharko dugu.
- Amona** Eta arrautzena?
- Andereño** Hori serioxeagoa da.
- Jagoba** Beno, Asierrek lagundu ere egiten dio.
- Asier** Bihar oiloen kotak garbitu eta simaurrak ateratzen lagundu behar diot.
- Jagoba** Ni ere joango nauk laguntzera.
- Andereño** Ondo da. Laguntzeko jarrera jatorra duzueenez gero, lagun-duko al didazue orain niri?
- Asier** Zertan?
- Andereño** Begira. Ordu pare bateko lana daukat eskolan, gauzak beren tokietan jartzen eta abar. Eta, bakarrik, aspergarria gertatzen zait.
- Jagoba** Bai, bai!
- Andereño** Horrela, gaur egin gabe utzi dituzuen lanak egiteko denbora izango duzue. Eta, hala, denok konforme.
- Asier** Ni ere konforme.
- Andereño** Goazen, ba... (*Abiatuz.*) Agur, amona!

**Jagoba** Gero arte, amona.

*(Bihoaz hirurak)*

**Amona** *(Berekiko)* Zertarako dira zigorrak? Horra hor arazoa erraz asko konpondua.



# ETA BAZKALONDOAN

Idazleak: Iñaki Otaegi Etxeberria  
Eneritz Lizarribar Aizpurua  
Aritz Izagirre Alustiza  
Komedia  
Aizarnako eskola  
Aizarna  
98/99

GAIA

Tximista Ostatuan, egun arrunt bat. Pello, atezaina, bere eginkizunak betetzen. Mikel, bezero bat, taxi baten zain. Margarita, zerbitzaria, mahai batean dauden hiru lagunen bazkariaren kargu. Eta bat-batean... atrakua! Zer gertatuko ote da gero? Ba... gezurrezko lapurrak, gezurrezko ertzaintzat.



## **PERTSONAIAK**

Pello (kontserjea)  
Miel (bazkaltiarra)  
Joxe (bazkaltiarra)  
Amaia (bazkaltiarra)  
Mikel (hoteleko bezeroa)  
Margarita (mahai zerbitzaria)  
1. ertzaina, edo Urtzi  
2. ertzaina, edo Aritzeder

## **EKITALDI BAKARRA**

*AGERTOKIA: Hotela*

*Bionbo batek erdiz erdi banatzen du agertokia, eta bi zatitan banatua dago, ezker eskuin; atzealdean alderik alde pasabidea libre uzten duela.*

*Ezker aldean hoteleko harrera aretoa dago. Fondoan, ezker aldean, mostradorea dauka, eta, eskuinean, bionboari erdiz erdi, hotel barrurako atea. Ezker paretan, lehen mailan, kanporako atea. Eskuinekoan, bionboaren kontra, zizeilua.*

*Eskuin aldean jangela dago. Fondoan, ezker aldean, bionboari erdiz erdi, sukaldarako eta abarretarako atea.*

*(Ezkerreko aldean, lan eta lan ari da Pello, atezaina, noiz-behinka datorkion jendeari kasu eginez. Eskuinekoan, bi gizonetzko eta emakume bat bazkaltzen: Miel, Amaia eta Joxe)*

*(Telefonoak jotzen du)*

**Pello**

*(Telefonoa hartu eta...) tximista Ostatua hemen... Baita zuri ere. Zer nahi zenuke?... Nondik esan duzu?... Lizasotik... Nafarroan dago hori ezta?... Ederki. Ea, ba, zer nahi zenukeen... 2.000 pza pertsonako eta gaueko... Gosaria barne, noski, bai... Jaten emango ez dugu, ba?... mila pezetan egunekoa.... A!, hori bai!, astebururako nahi izanez gero, tokia aurrez eskatzea komeni zaizue... Ondo da... Nahi duzun arte... Bai, eskerrik asko! *(Pozik esekitzen du telefonoa).**

**Miel**

*(Pistola atera eta jolasean) Piff!...*

**Joxe**

*(Haserre, Mieli) Ezkuta ezak pistola hori, zerbitzaria laster duk hemen eta!*

**Miel**

*(Sukaldeko aterantz apuntatuz) Piff!... (Joxeri) Kakatia hi!*

**Amaia**

*Zoratu egin al haiz?...*

**Joxe**

*Zerbitzariak ikusten bahau, laster deituko dik Ertzaintzara. Ikusiko duk orduan.*

**Amaia**

*Oraindik goizegi duk horrela hasteko.*

**Miel**

*Baita zera ere. Oraintxe saiatu behar diagu.*

**Joxe**

*Ez al duk entzuten?*

**Miel**

*(Pistola ezkutatuz) Zer?*

- Amaia** Jendea dabilela, jendea!  
(*Jaten segitzen dute*)
- Mikel** (*Barrurako atletik agertu eta giltza Pellori ematen diola*)  
Eguraldi ederra!
- Pello** Bai, aspaldiko partez, halaxe dago, ba! Norabaiteko asmo-  
tan?...
- Mikel** Bai. Taxia nahi nuke.
- Pello** (*Telefonoa hartu eta markatuz*) Oraintxe deituko diogu.
- Mikel** Zizeiluan eseriko naiz bitartean. (*Joan, eseri eta egunkaria irakurtzen jartzen da*)
- Pello** (*Telefonoa belarrira daramala, Mieli*) Nahi duzun bezala.  
(*Taxilariari*) Aizu... Etor zaitez, mesedez, tximista Ostatura...  
Bai. Bezero bat daukazu zain... Norako?... A!, horixe ez dakit. Berari galdetu beharko diozu... Ezaguna den?... Bai, gizona! zeuk ere ezagutzen duzu... Iñaki du izena... Huraxe bera!... Ez horregatik! Gero arte! (*Telefonoa eseki eta bere lanetan hasten da*)
- Miel** (*Harroxko*) Hutsarengatik izutzen zarete zuek!
- Amaia** txoropito bat ematen duk!
- Miel** Jolasean ari nindunan, neska!
- Joxe** (*Oso haserre*) Egitekoa, erabaki dugun garaian egingo diagu.
- Amaia** Entzun al duk?
- Miel** Arrazoi duzue, baina ez zaitezte horrela jarri!



- Joxe** Jan ezak isilik, hobe duk eta!  
(*Hirurak jaten*)
- Pello** (*Mikelengana hurbilduz*) Kafetxo bat nahi al zenuke, zain egon behar duzun bitartean?
- Mikel** Ez. Ondo nago. Laster da hemen taxia, ez?
- Pello** Hamar bat minutu barru. Nora zoazen galdetu dit. Eta, nik...
- Mikel** (*Damuz*) Bai. Esan egin behar nizun.
- Pello** Ez, ez. Ez didazu zure ibilien berri eman beharrik. Besterik ez genuke falta!
- Mikel** Taxilariari, ordea, bai.
- Pello** A, beno!, hori beste kontu bat da. (*Bere tokira doa, Mikelek irakurtzeari ekiten dion bitartean*)
- Margarita** (*Boligrafoa eta bloka eskuetan dituela, bazkaltiarrengana hurbilduz*) Ea, ba! Ondo al doa dena?
- Joxe** Hobeto ezin!
- Miel** Janari ona, benetan. Eta ongi prestatua.
- Amaia** Sukaldari bikaina daukazue.
- Margarita** Bai, saiatzen da bezeroen gutuziak betetzen. Eta zuek bezalakoak direnean...
- Miel** Eskerrik asko!
- Joxe** (*Harriturik*) Ezagutzen al gaituzue?
- Margarita** Ez, ez. Baina antzematen da.

- Amaia** Nolanahi ere, eman zorionak sukaldariari.
- Margarita** Zuen izenean. Orain postrerik nahi?
- Miel** Ba al duzu zerbait berezirik eskaintzeko?
- Margarita** Ea zuen gustukoak diren: mamia, arroz esnea..., sagar budi-na...
- Amaia** Ez da gehiagoren beharrik. E, gazteak?
- Joxe** Nik arroz esnea.
- Miel** Baita nik ere.
- Amaia** Hiru, orduan.
- Margarita** (*Idatziz*) Hiru arroz esne. Berehalaxe. (*Bihoa*)
- Joxe** (*Amaia ogiarekin platera igurtzi eta igurtzi ari dela*) Hori dun hori jan beharra, neska!
- Amaia** Hain zegok gozoa!
- Miel** Eta gero, gizona hagoela eta kexatu egingo haiz.
- Amaia** Gaurkoagatik, motel!
- (*Platereko hondarrak biltzen jarraitzen du*)
- (*Bozina hotsa entzuten da*)
- Pello** (*Mikeli*) Taxia hor duzula uste dut, Mikel (*Hori esanez aurreraino etorri eta leihotik bezala begiraten du*)
- Mikel** (*Egunkaria bilduz*) Ba ote?
- Pello** Bai, hortxe daukazu beti bezain fin.

- Mikel**                    *(Aterantz doala)* Bai, fina da hori.
- Pello**                    Egunetarako al zoaz?
- Mikel**                    Bai zera! Getariara noa. Hemen nauzu afaltzerako.  
*(Bihoa)*
- Pello**                    Ondo ibili!  
*(Margaritak alboko mahaian uzten ditu postreak, eta mahai-ko ontzi zikinak jasotzen ditu)*
- Margarita**            *(Mahaikoei)* Jaso al ditzaket?
- Joxe**                    *(Ontziak biltzen lagunduz)* Bai, bai! Beste botila bat ardo ekarriko bazenigu?
- Margarita**            *(Postreak banatuz)* Berehalaxe, jauna! *(Ontzi zikinak hartu eta badoa).*
- Miel**                    *(Pistola atera eta lagunak apuntatuz)* Jan azkar!, edo beste-la...
- Amaia**                    *(Haserre)* Berriz!?! *(Pistola kentzen dio)* Gorde ezak hau bere tokian, inozo horrek! *(Eman biezaio)*
- Joxe**                    Ahaztu egin al zaik gauzak bere garaian egin behar direla, e?  
*(Jaten jarraitzen dute)*
- Miel**                    *(Albora begira)* Nik ez dakit nolaz nabilen karroza pare honekin!
- Amaia**                    Hirekin beste inork ibili nahi ez duelako, zera!
- Margarita**            *(Ardoa basoetara aterez)* On dagizuela!
- Amaia**                    Eskerrik asko!

- Margarita**      Besterik?
- Miel**              Lehenbailehen kontua ekarriko bazenigu!
- Margarita**      Berehalaxe, jauna! (*Bihoa*)
- Joxe**              Oraintxe diagu ordua. Presta gaitezen!
- Amaia**            Miel, begira ezak hor zer jende dabilen.
- Miel**              Banoan! (*Zutitu eta eskua pistolara darama*)
- Amaia**            Geldi esku hori! Baina nola esan behar diagu? Utz ezak pistola hori bakean, motel!
- Miel**              (*Esana eginaz*) Zertarako ekarri dinat orduan?
- Amaia**            Ekintza hasitakoan ateratzeko. Begira ezak hor!
- (*Mielek harrera aretora begiratzen du, Joxek kanpo aldera eta Amaiak barru aldera. Eta, ondoren, euren mahaira biltzen dira berriro*)
- Miel**              Hor atezaina besterik ez dago.
- Amaia**            Jendea siestan zagok orain.
- Joxe**              Kanpo alde horretan ere ez dun ezer nabarmenik ageri.
- Amaia**            (*Gogor*) Goazen, ba!
- (*Amaia eta Miel aurretik eta Joxe atzetik, atezainarengana doaz. Amaiak eta Mielek pistolaz apuntatzen dute atezaina*)
- Amaia**            Altxa eskuak! (*Pellok jaso bitza*)
- Miel**              Hau atrakua da! (*Pello larri*)

- Joxe** Hustu diru kutxa hori mostradore gainera.
- (Margarita kontuarekin etorri, gertatzen denaz ohartu eta sakelako telefonotik dei egin eta ezkutatu egiten da, etorri den lekutik)*
- Pello** *(Dardaraz, diru mordo bat ateratzen du eta...)* Horra hor dena.
- Amaia** *(Zorrotz, begiratu)* Dena? Ez didak esango kutxa horretan hau besterik ez zegoela!
- Joxe** Hemen ez hasi txantxetan, e!
- Miel** Atera ezak diru guztia; bestela laster izango haiz zuloan!
- Pello** Ez daukagula gehiago! Astelehena izan balitz...
- Miel** Astelehena? Joxe, mia ezak ondo kutxa hori!
- Joxe** *(Joan eta begiratzen du)* Hau hutsik zagok, motel!
- Amaia** *(Barrez)* Astelehenean etorriko gaituk orduan.
- Miel** *(Diruengatik)* Sar itzak kutxan berriro!
- Pello** *(Ulertu ezinik)* Kutxan?
- (Ur pistolekin tiro egiten diote aurpegira, barrez)*
- Joxe** Kutxan, bai! Baina, Pello, ez al gaituk oraindik ezagutu?
- Pello** *(Oraindik beldurrez)* Aurpegi ezagunak bai, baina...
- Amaia** Hire lehengusu Joxe.
- Pello** Amerikan ez al hintzen, ba?
- Miel** Bai, baina etorri egin gaituk.

- Pello**                    *(Mieli)* Hi, orduan, Miel haiz. *(Besarkada bat elkarri)*
- Joxe**                    Kosta zaik heure lagunik onena ezagutzen, e?
- Pello**                    Eta hi, Joxeren emazte Amaia?
- Amaia**                  Bingo!!! *(Bi musu elkarri)*
- Joxe**                    Sar ditzagun diru hauek kutxan! Inork ikusita ere...  
  
*(Sartzen hasi orduko, bi ertzain sartzen dira istiluka)*
- 1.ertzaina**            *(Makurtu eta apuntatuz)* Polizia! Altxa eskuak!
- 2.ertzaina**            Armak lurrera!  
  
*(Amaiak eta Mielek bota bitzate ur pistola.) (Eskuak goian, Pellok izan ezik.)*
- Pello**                    *(Ertzainei)* Lasai, mutilak! Ez dituk lapurrak. Aspaldiko lagun zaharrak dizkiat, susto ederra eman badidate ere.
- 1.ertzaina**            *(Apuntatzeari utzi gabe, aurrera doazela)* Benetan al diok?
- Pello**                    Baietz, ba!
- 2.ertzaina**            Hau duk hau marka! Gezurrezko lapurrak *(Hauek ere ur pistolekin tiro eginez)* gezurrezko ertzaintzat.
- Miel**                    *(Bere onera etorri ezinik)* Beldur ederra pasa diat!
- Joxe**                    Nork deitu die, ertzain-edo direlako horiei?
- Margarita**            *(Sakelako telefonoa erakutsiz agertu eta)* Nik!  
  
*(Denen erdian hartzen dute eta txalo egiten diote)*  
  
*(Ondoren publikoari agur egiten diote)*



# ETA HORRELA BIZITZEN GERA

Ikasleak/Irakasleak  
Satirikoa  
Langile ikastola h.i.  
Hernani  
98/99

GAIA

Gaur egungo haurren jolasen eta bizimoduaren konparaketa egi-  
ten da orain dela 60-80 urte haur zirenekin, erakutsiz gaurko  
neska-mutilek ez dutela eskola-orduz kanpo jolasteko denbora-  
rik.





Antzezlan honetan bi garai ezberdinetako bizi-giroa islatu nahi da, etxea eta familia ardatz hartuta. Batean, orain dela 80 bat urte inguru, gure baserrietako sukalde txokoetan ikus zitekeena, hau da, familiako bakoitzaren zeregina: aitona, amona, aita, ama... Biloba txikieneraino, elkarren arteko erlazioa nolakoa zen, antolaketa, e.a. Baita janari motak, haurren jolasak, jantziak, e.a., zein eratakoak ziren ere. Bestean, aldiz, gaur egungoa: etxeetan ditugun tresna izugarriak, harantz honanzko presak, janari motak, jolaserako denbora urria, e.a.

Beraz, agertokian bi dekorazio antolatuko dira, bata, orduko garai hartan eguna nola igarotzen zen ikusteko eta, bestea, orain nolakoa den eguneroko bizimodua agertzeko, etxeko gela nagusia harturik; batean eta bestean zer erabiltzen zen edo den erakutsiz. Batean; beheko su eder baten inguruan garaiko tresnak daude: egurrezko sehaska kulunkaria, mahai handi bat... Bestean, berriz, kolore biziko armairua, musika-ko aparatua, ordenagailua, telebista, telefonoa...

Oihalean Euskal Herriko edozein bazter izan daitekeen para-je baten irudia ipiniko da, atzealdean baserri bat duela.

Lehenengo atalean sehaskan dagoen haurtxoa eta bigarren atalean agertzen den amona pertsona bera dira, 80 urteko aldearekin, ordea.

Lan honetan aipagarriena zera da, antzezlan kantatua dela, izan ere, antzerkiaren zati handi batean elkarrizketak bertsoan egiten baitira; hori bai, esan behar da, garai bakoitzari dagokion doinu eta hizkerarekin.

Horrela lotu ditugu bi baliabide eder hauek, ezen, edozein garai edo egoera adierazteko neska-mutilentzat oso modu konkretua eta ulergarria izateaz gain, bertso-doinu ugari ikasi baitzituzten, eta ez hori bakarrik, hainbat bertso zahar ere bai, nola bertso taldean dabiltzanek, hala beste guztiek, entseguetan eta abar entzuterakoan bereganatu baitituzte.

Hogeita zazpi neska mutilek parte hartzen dute.

*Jendea sartzten den bitartean, IKUSTEN DUZU GOIZEAN abestia entzuten da, agertokian baserriaren irudia ikus daiteke.*

*Musika bukatzean, oihala baztertu eta lehenengo atala hasiko da.*

*Bertan, amona Bernarda ageri da, sehaskari eragiten, txahatilean haria egiten duen bitartean. Ezker aldean, beheko suaren aurrean eta mahai eder baten inguruan, lau lagun, Joxemiel, Bixente, Inazio eta Joxe, karta jokoan.*

*Aurrerago, lau neska-mutil, Praixku, Madalena, Martin eta Pello, lurrean eserita. Bat txilibitua egiten ari da, bere labanaxoarekin; beste batek tiragoma bat dauka; eta beste biak taba-jolasean dabilza.*

## **PERTSONAIAK**

Pello  
Praixku  
Madalena  
Martin  
Pantxika

Bernarda (amona)  
Joxemiel (apaiza)  
Bixente  
Inazio  
Joxe

## EKITALDIA

- Bixente** Handira... Zer, onak al dituk?
- Joxemiel** *(txapelari bi buelta ematen dizkio)*
- Bixente** Zer kristo, hamar gehiago!
- Amona** Umeak, hasi zaitetze lehenbailehen ikasten, bestela bihar On Joxemielek astindu egingo zaituzte.
- Praixku** Martin, hasi egin beharko diagu, bestela...
- Martin** Nik ez zaukaat gogorik! Nahiago nitek txoriak harrapatzera joan.
- Pello** Bai, hi beti txoriak harrapatzera joateko prest egoten haiz, eta lanak noiz?
- Praixku** Gero joango gaituk biok.
- Madalena** Eta ni, zer?
- Martin** Hi amonari laguntzen gelditu, guk sutarako egurrak ekarri dizkinagu.
- Pello** Horixe, nik, gainera, iturritik bi pertzakada ur ekarri dizkinat.
- Madalena** Bai, eta abezedariora, ikasi al duzue? Nik bai.
- Praixku** Guk ere ikasi dinagu.

- Martin** Hi, hasi hadi, Praixku.
- Praixku** Ez, hasi hadi hi, Pello.
- Pello** Ez, ez, zuek hasi behar duzue.
- Amona** ANA, BENITA, CECILIA, DONATO, ERNESTO, FIDEL, GABRIEL., HIGINIO, INES, JOAKIN, LUISA...
- Martin** A ja ja! Nik gehiago zekiat: ANA, BENITA, CECILIA, DONATO, ERNESTO, FIDEL, GABRIEL, HIGINIO, INES, JOAKIN, LUISA...
- Pello** Zera dakizue zuek, begira: ANA, BENITA, CECILIA, DONATO, ERNESTO, FIDEL, GABRIEL, HIGINIO, INES, JOAKIN, LUISA, MARTA, NORBERTO, ODULIA, PETRA, QUIRICO, ROSA, SABINA.
- Madalena** Badakizuela? A zer burua, begira: ANA, BENITA, CECILIA, DONATO, ERNESTO, FIDEL, GABRIEL, HIGINIO, INES, JOAKIN, LUISA, MARTA, NORBERTO, ODULIA, PETRA, QUIRICO, ROSA, SABINA, TERESA, URSULA, VICENTA, XANTI, PEZOA. Eta txoriak harrapatzera joan nahi duzue zuek?
- (Martin, Praixku eta Pello dotrina ikasten hasten dira)*
- Aitona** Bernarda, tripa zorriak dauzkat eta zerbait jango nuke.
- Amona** Hortxe dituzu prest taloa eta txorizoa, hartu besterik ez duzu!
- Aitona** *(Muslarien mahaira joan eta)* leku pixka bat egingo al didazue?
- Bixente** Karta onak dituela-eta ondo kargatuta hago *(Mus jokalariek aitona zirikatzen dute, bere adina eta bizkarreko kargarekin sartuz)*

**Joxe** Aitona, urteak bizkarrean?

**Joxemiel** Kargamentu txarra, jauna, nahita ere ezin utzi bazterrean!

**Aitona** *(Bertsok botatzen ditu zahartzaroari buruz)*

Gaztea izan nintzan  
eta orain zahartu,  
ondu egin beharrean  
jenioa txartu.  
Burua zuritu ta  
gerria gogortu,  
ez det aspaldi hontan  
asko aurreratu.

Zahartu ta sendatu  
ez litekeen mina  
horrek txikitutzen du  
gizonik handina.  
Orain nahiko txuleta  
badaukagu baina,  
halere ez naiz lehen  
aza janda aina.

Guk ere lehen ez gendun  
sasoiaren falta,  
orain lehen bezala  
ezin degu salta.  
Desgastea ta reuma,  
kojua galanta,  
aurpegian zimurra  
hau degu hau planta!

Horra nolakua dan  
zahartutako martxa,  
alderdi guzietan  
zikina ta mantxa.

gustora izateko  
bizimodu motxa,  
exertzen dan tokitik  
zutik ezin altxa.

- Joxemiel** Aitona, bejondeizula!
- Madalena** Ta dotrinakoa, ikasi al duzue?
- Praixku** Nik, bai.
- Martin** Nola esaten duk aita?
- Praixku** *EL PADRE*, eta semea, nola?
- Pello** *EL HIJO*, eta hik badakik nola esaten den espiritu santua?
- Praixku** *EL ESPIRITU SANTO*, hori erreza duk.
- Madalena** Eta egilea nola esaten da?
- Praixku** *EL CREADOR*.
- Madalena** Oso ondo, eta eroslea?
- Martin** Zera, zera, ummmm! *EL REDENTOR*, eta bukatu diagu.  
Goazen txoriak harrapatzera!
- Madalena** Ni ere bai (*eta irten egiten dira*).
- Joxe** Pareak onak al dituk?
- Inazio** (*Buruari hazka egiten dio*)
- Joxe** Zer kristo, enbido!  
  
(*Apaiza eztulka hasten da*)

**Joxe**                   *(Apaizari puntua botatzen dio)*

Zuretzako botika  
da ardo zaharra...

*(Apaizak honela erantzuten dio)*

**Joxemiel**           Orain ere balego  
ez litzake txarra  
barrena sartu ezkerro  
ematen du indarra  
bainan ez dagonian  
sufritu beharra.

*(Amonak txokotik apaizari)*

**Amona**               Joxemielen bizimodua  
seitun azaltzera noa  
elizan txintxo ibiliagatik  
kalen aze pajaroa!  
Tabernan baldin badago berriz  
beti eskas du ardoa  
ez baita tanta bat edo bikin  
betetzen den kantaroa.

*(Apaizak amonari)*

**Joxemiel**           Mus partida bat genula eta  
etorri naiz derrepente  
jokoak ere gizasemea  
ahultzen dula dezente  
Bernardak pozik ateratzen du  
noizik behin kaxuela bete  
sukaldeko pertz handi hortatik  
nik'e probatuko nuke.

*(Amonak apaizari)*



- Amona** Noiztik hasita  
eiten dezu regimena?  
  
*(Apaizak erantzun)*
- Joxemiel** Hoi da gauean  
lotan egiten detena.
- Joxemiel** Beida inazio ni zuregana  
nator gaur txoraturikan  
erremedio on batzuk ere  
dauzkazula jakinikan,  
zerorri ere nola baitzauden  
hainbeste argaldurikan  
neri emango al zenidake  
flakatzeko botikikan.
- Inazio** Ni hain argala nagoelako  
eta Joxemiel lodi,  
zer egin behar den jakin nahian  
etorri da gizon hori.  
Uko egin nahi baldin badiozu  
zure gizentasun horri,  
nere andriakin bizitzera  
gure etxera etorri.
- Pantxika** Eguerdi on! *(Etxeko andrea feriatik dator, bi saski albo  
banatan dituela, haurrak atzetik sartzen dira)*
- Praixku** Ama, zer ekarri duzu feriatik?
- Pantxika** *Zerzeta burruntzin puntan erreta!*
- Madalena** Ama, eta pastelak zer?
- Pantxika** *(Letoizko kaxa saskitik atera)* Tira, baina, bi bakarrik, beste-  
la babarrun goserik ez duzue izango.

- Martin** Ama, niri asko eman, asko-asko.
- Pello** ama nei ere.  
Ama, niri ere bai.
- Pantxika** Bi, besteei bezala, eta ixo!
- Inazio** Jokoa... Onak al dituk? Zer kristo, hamar gehiago!
- Pantxika** *(Bertsoa botatzen die muslariei)*  
  
Azokara juan naiz  
jeneruan bila,  
pentsatzen jarrita ere  
hau dek alper pila!  
Puro, kafe ta kopa  
bastoi ta makila;  
pobriak altxatzeko  
hauxe dek koadrila
- Inazio** Lasai, emakumea!
- Pantxika** Ordu batian joan zinala  
ari al zera ujuka?  
Tabernatikan etorri zera  
balantza eta kojoka  
goizalderako sumatu zaitut  
etxeko atia joka  
zu ohera baino lehenagotik zan  
oilarra kukurrukuka.
- Aitona** Zer dirala uste dek hik  
ardoaren saltsak?  
Bart nola ibili haizen  
goatutzen al zak.  
Komunera bidean

galdu zaizkik galtzak  
ezkontzeko egindako  
ohialezko beltzak.

**Bixente** Inazio ez zaude  
familiar gaizki  
mozkorrik pasa gabe  
bizi zera noski  
edan ta pagatzeko  
poltsan diru gutxi  
holakuak elikek  
andrerik merezi.

**Inazio** Hi mutil zahartu haiz, arraioa! Oinezkorik nahi ez eta zaldiz-  
korik aurkitu ez!

**Bixente** Urkiolako San Antonioi  
eginagatik bixita  
mutlizahartuta bizitzen haiz hi  
neska denek gaitzetsita.  
Asko bezela ez haiz ibiltzen  
lujoz ta galaz jantzita  
harriak negar egin lezake  
hire planta ikusita.

**Joxe** Bixente hire kontura orain  
egin nahi nizekik parrak  
merezi ere badituk eta  
eman bihaizkit ederrak.  
Ondo kenduko baldin badituk  
hire begiko makarrak  
atxur batekin hamabost egun  
bihaizkik gizon bakarrak.

**Bixente** Aizak ez nindun ezkondu eta  
horregatik nagok aske  
bakar bakarrik nagok etxean  
ez kerida ez emazte

baina inguruan bazeuzkeat nik  
makina bat neska gazte,  
ezkondu gabe egiten dit nik  
hik ezkondata hainbeste

**Aitona**

Ea gaztiak gurekin hartu  
guztiok eskarmentubak  
txit mudakorrak izaten dira  
andrien pentsamendubak  
belaxe uju bihurtzen dira  
hasierako muxubak  
ezkontzeko hitzak ematerako  
ondo atera kontubak.

**Inazio**

Ni oso zoriontsu nauk, ordea!

Ez da lurrean gizonik  
printzerik ez erregerik  
ni baino hobeki denik;  
badut andrea, badut semea  
badut alaba ere nik,  
osasun ona batetik  
ondasun asko bestetik,  
zer behar dut, ba, besterik?

*(Denak sehaska ingurura biltzen dira, alaba jaio berriaren  
bueltan. Noren antza duen eztabaidatzen dute)*

**Bixente**

Kopeta, aitonarena dik honek, berdina!

**Joxemiel**

Nik oraindik ez zioat inoren antzik hartzen, txikiegia duk  
oraindik. Begiak itxita dizkik gainera...

**Aitona**

Sudurra amonarena duela esango nizek, edo amarena, bai,  
bai, amarena.

**Inazio**

Ez, ez, ume honek nire antz handia du, ez al zarete kontura-  
tzen: ahoa, sudurra...

**Pantxika**

Bejon da ez dakikela  
senar saltserua,  
gaur ematen didak hik  
nahiko endredua  
erdia mozkorra dek  
bestea erua.  
Ez jaiotzea hobe  
hire jenerua.

**Inazio**

Joxepa gure alabaren izenean zuhaitz hauxe landatuko dugu.  
(*Eta denek abesten dute*)

Mila zortzirehun larogei eta  
zortzigarrengo martxoan  
mundu hontara etorri zera  
Joxepa era gozoan.  
Landare hauxe sartuko dugu  
etxe aurreko soroan,  
zuhaitzarekin batera hazi  
zaitezen era sendoan.

(*Landarea hartu eta agertokitik ateratzen dira. Oihala jaitsi*)

(*HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ATALA*)

**2. EKITALDIA**

Joxepa (amona)  
Ander (biloba)  
Itziar (laguna)  
Andoni (aita)  
Aitona  
Miren (ama)

*MUSIKA: TAPIA ETA LETURIAREN STRESSA*

(*Gaur egunean kokatuta, etxebizitza bateko egongela*)

*(Amona puntua egiten ari da, aurreko ataleko manta deigarria sorbaldan duela. Biloba eta laguna Game-Boy-arekin. Jolasten dabiltza. Telefonoaren txirrina entzuten da)*

**Amona**

Nor ote da oraingoan? *(amona aulkitik altxa eta ilea orrazten du, manta ondo jarri eta telefonoa hartzen du)*

*Doinua: Bizkaiko aberatsak*

Jaungoikoak egunon!

A! En erdera? Si...

si aqui mismo vive

señor aristegi

pero prezixamente

ez zaigu ageri

para mi opinion

trabaja gehiegi

creo que va a venir

hazia las ordubi.

**Amona**

Ene! Nire bizkarra! *(bizkarrari helduz esertzen da)*

**Ander**

Amona, zer, bizkarrari eusten?

*(Rap doinua)*

Punto eginaz leno

zeraman trotea

dagoeneko nekatu

al zera ordea?

Nahi nuke atzetikan

kuerda ematea

pila falta al zaizu

amona maitea?

**Amona**

Gaurko gaztiak lotsik

ez dute ta tira

galtzerdian erdia

egin det sikira

biloba nere pilei  
al zaude begira?  
Zure pilak'e noizbait  
fundituko dira

*(Berriro telefono txirrina entzuten da)*

*Doinua: Bogart eta Bilintx*

**Amona**

Diga? Euskeraz badakizula?  
Pozten naiz egia esanda.  
ez, ez, nausia lanera jun da  
kafe xixtrin bat edanda  
ze bulego ta ze otxokuarto?  
Ofizina aldera joan da!  
turnoa zeukan, horri esaten  
al diozu ba zuk txanda?

*(Telefonia eskegi eta umore txarrez)*

Euskeraz ahaztu egin ote zait  
baserrikoa izanda.

*(Amonak aldizkari bat hartzen du marmarrean, eta bere kaxa  
hitz egiten hasten da)*

**Amona**

Emakume honek zenbat aldaketa egiten ditu? Jainkoa!.  
Hara!, eta beste gizon hau, aurreko astean emakume batekin  
eta orain beste batekin? Alajaina!

*(Umeen arteko elkarriketa, bertsoan, doinua: Betroiarena)*

**Itziar: a)**

**Ander: b)**

a) Guai pasatu det baina  
noa bazkaltzera.

b) Goazen jolasteko  
gaur geratzera

a) Bale! Zer mouz bostetan  
ikusten bagera?

b) Eske biolin daukat  
ta seiak aldera?

a) Noa inglesera,

b) Zazpiretan? a) ez, keba!  
Partikularrera.

b) Gero? a) futbolera!

b) Arnasteko denbora  
Hartu sikiera!

*(Berriro ere telefono deia, amona gero eta haserreago)*

*Trikiti doinua.*

## **Amona**

Kastillanua edo  
euskalduna ote da?  
*(Telefonoa eskuetan hartuz)*  
Buenos dias lehenbizi  
zu zein kristo zera?  
Nola? Gud morning? Ez, ez  
gu aristegi gera  
nekatu nauzu gainera  
ta zuk joan behar dezu  
haizea hartzera!

*(Amonak telefonoaren entxufea ateratzen du, jenio biziz)*

*(Aita sartzen da, exekutibo ítxura duela, bere maletatxo eta  
guzti; amonak mantal azpian gordetzen du telefonoa)*



- Andoni** Kaixo! Telefonoz deitu al dute?
- Amona** Ez, ez, inortxok ere ez du deitu. (*Berriro telefono txirrina entzuten da, amonak telefono kablea mantal azpian gordeta duen lekutik atera eta...*)
- Zer sorginkeria da hau?
- Aitona** (*Txandal dotorearekin sartzen da*) Eguerdi on!
- Andoni** (*Patrikako telefonoa atera eta belarrian jarriz*)
- REPSOLeko akzioak, 10 gehiago, Telefonicoak!... Onak al dituk? Zer kristo! Hamar gehiago!
- Amona** (*Jenio biziz*) Ordago!
- Aitona** Gaurko gizona aurreratu da eskola faltik ez dago ta zenbat eta gehiago jakin orduan da estuago. Eskolik gabe bizitu ginan orain baino lasaiago aurreratzea hau baldin bada hobeto geunden lehenago.
- Andoni** Lan astunak ez baitu uzten hainbat grazi ahal dala nekatzerik ez baitu merezi. Zuk zer egiten dezun antzematen hasi baserria famatu ta kalean bizi.
- Andoni** Etxekoandrea aerobicetik oraindik etorri ez denez, bazkaria prestatuko dut.

- Miren**                    Iritsi naiz, baina ez dut horretarako denborarik eta has zaitez.
- Amona**                    txukun ibili hadi gero sukaldean!
- Miren**                    Darabilkidan martxan  
ezin da aguanta  
eroskira joan naiz  
karroai tiraka.  
Lixatu, hautsak kendu,  
erraztu ze lata  
orain aerobiketetik  
banator presaka,  
moñoña ere izan  
behar omen da ta  
Orain dutxatzera noa.
- Andoni**                    Bai, hemen Aristegi etxea, bai, ekarri lehenbailehen pizza  
pare bat (*eta irten egiten da*)
- Ander**                    Amona, zu txikitan non bizi zinen?
- Joxepa**                    Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean  
menditxo baten gainean.  
Etxe txikitxo aitzin txuri bat  
lau haitz handiren artean  
iturritxo bat aldean  
txakur txuri bat atean  
han bizi nintzan bakean.
- Nahiz ta ez den gaztelua  
maite dut nik sorlekua  
aiten aitek hautatua  
etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbait naizela galdua,  
nola han bainaiz sortua  
han utziko dut mundua  
galtzen ez badut zentzua.

**Ander** Amona, baserrira itzultzeko gogorik ba al duzu?

Lehenbiziko arnasa  
hartu zen lekura  
zeinek ez du izango  
joateko ardura?  
Txoriak kabiari  
nahi dion modura  
nik maitatzen det beti  
txoko eder hura.

**Andoni** *(Eskuan pizza bat duela sartzen da)* Bazkaltzera!

**Aitona** *(Momentu horretan sartzen da egongelan)*

Etxeko lanak sukaldekuak  
amonak bere karguan,  
ezeren faltik izaten bazan  
haurrak kale enkarguan,  
arrautzak eman, sardinak bueltan,  
merke baizegon orduan,  
talua janda esnez aseak  
egunero otorduan.

**Andoni** Ja! Ja! Ja!

**Joxepa** Zer? Oso pozik ikusten haut, zer dela eta?

**Andoni** Ez da lurrean pertsonik  
ministro ez bankaririk  
ni baino hobeki denik;  
badut etxea, badut kotxea  
internet ere badut nik  
*(Kartera erakutsiz)*  
kartera diruz beterik  
ez pentsa konformatzerik  
gehiago nahi dut oraindik.

*(Ia ezer jan gabe, erlojuari begiratu eta presaka lanera alde egiten du) Agur!*

**Ander** Agur, aita!

**Joxepa** Xake klasea tokatzen zaizu gaur, abiatu beharko duzu?

**Ander** Ez, amona, gaur ez noa klasera, zeregin bat badut. Iluntzean itzuliko naiz.

**Joxepa** Ongi, ulertu dut.

*(Mutikoa amonaren baserrira joan da, jaiio zenean landatu-tako zuhaitza ikustera)*

**AMAIERA**



# **GAIKO**

Agustin Amiano irakaslea

Komedia

Zumadi h.i.

Amezketak

98/99

**GAIKO**

Mediku kontsulta batean zenbait gaixo inguratzen da eta bere arazoa agertzen dute, egoera xebreak sortuz.



*Anbulatorio batean gaude. Gela bi zatitan ageri zaigu, bionbo batez erdiz erdi zatituta. Ezker aldea: Itxarongela. Eskuin aldea: Kontsulta-gela.*

*(Garbitzailea fregona pasatzen ari da eta Kaxinto dator)*

**Garbitzailea** *(Ezkerretik agertu den Kaxintori)* Aizu, ez al duzu ikusten bustita dagoela?

**Kaxinto** Hegan ezin pasako naiz, ba.

**Garbitzailea** Hegan ez, baina izkinatik bai, hanka puntetan.

**Kaxinto** Bostetan etortzeko?

**Garbitzailea** Bostetan ez, hanka puntetan.

**Kaxinto** Zera, zuk zer uste duzu, bailarina naizela? *(Kontsultara doa zuzenean)* *(Une honetan F sartzen da ezkerretik eta itxarongelan eseri)*

**S1** Zer moduz zabilta, Kaxinto?

**Kaxinto** Baita zuri ere

**S1** Zer berri dakarkizu?



- Kaxinto** Eskerrik asko. (*eseri egingo da*)
- E1** Honi garrasika hitz egin beharko diozu, ba.
- Kaxinto** Hemen naiz aspaldiko partez.
- E1** Aurreko astean ere ez zen, bada, etorri?
- SI** Noski. Ez al zaizu aparatu hori ondo egokitzen?
- Kaxinto** Aparatua edo... Behar bada neroni izango naiz egokitzen ez dena.
- S1** Ea, ikusi. Aparatu hau ez dabil. Botikara bisita egin beharko duzu. (*Ordenadoretik errezeta ateratzen du eta erizainari eman*)
- Kaxinto** E! Politikarik ez, nik ez dut ulertzen.
- E1** Politika ez, botika, botikara joan beharko duzula.
- S1** Ondo jartzeko esan.
- E1** Paper honekin zoaz eta bertan erakutsi. (*Errezeta eman ez*)
- Kaxinto** Aizu, eta asko kostako ote zait?
- E1** Ez dakit, ba, mila durokoa eraman behintzat.
- Kaxinto** Ene! Hobetoxeago aditzen ote dudan iruditzen zait. (*altxa eta badoa*)
- S1** Tira, guk esandakoa egin behintzat.
- Kaxinto** Beno, egun ona pasa. (*Bihoa etorri den toki bila*)
- (*Kaxinto irten den bezain laster sartzten da F. kontsultan, inork deitu gabe*) (*Orduan, Antonio, Kontxu eta Indalezio itxaron gelan sartu eta eseri egin dira*)

- F** (Alai) Egun on, bioi.
- S1,E1** Berdin zuri ere.
- E1** Aurpegi hobea daukazu, on egin al dizu xarabe honek?
- F1** Bai horixe, ez naiz aspaldi hain gazte eta zorionsu aurkitu.
- S1** Pozten naiz, emakumea, kosta zaigu asmatzea, baina halako-  
ren batean behintzat.
- F** Uste dut neronek aurkitu diodala sekretua.
- E1** Sekretua?
- F** Bai, begira. Hasiera batean ez zidan efektu handiegirik egi-  
ten eta gero hasi nintzen anis pixka batekin laguntzen.
- E1** Anisa!
- S1** Ixo, ixo!
- F** Eta askozaz hobeto, aizue. Hamar minutura hura freskura eta  
umorea etortzen zaidana. Bertsotan ere ekingo nioke edozeini.
- S1** Tira, tira, horrela bada berriro ere xarabea errezetatuko dizut  
gustura. Horretara etorriko zinen, noski?
- F** Bai, asmo horrekin etorri naiz, bada. Ederki asmatu duzu.
- E1** Anisa ez da errezetan sartzen.
- F** Errezetan ez, baina nire poltsan sartu da. (*Erakusten du*)  
Beno, mila esker eta datorren aстера arte. (*Bihoa*)
- S1** Orain asma ezazu zeinek sendatu duen, anisak edo botikak.
- E1** Botikak sendatu eta anisak alaitu. (*Zerrenda begiratzen*)

- S1** Latzak ikustekotan gaude oraindik. (*Tresneria zuzendu, hurrengoaren fitxa atera...*)
- G** (*Eszenatik agertua*) Nork bota du zigarro hau? Zu izango zinen?
- I** Ez, nik ez dut erretzen.
- G** Ezetz? Eta nolaz dago, ba, zure hanka ondoan?
- I** Ez dakit nondik etorriko zen.
- G** Erre, erre. Gero medikutara joango zara eztulka. Ez al daki-zu horrek bizitza mozten duela?
- I** Eta mingaina mozteko zer da ona. Ez dizut, ba, esan nik ez dudala bota?
- G** Niretzat, behintzat, lana. Axola zaizue zuei. (*Alde egin berak*)
- E** (*Bionboaren atzetik, noski*) Antonio Bizkarrondo, aurrera.  
  
(*Antonio kontsultan sartu eta berehala, Anbroxi, Ramona eta Leon sartzen dira itxarongelan eta eseri, isilka elkar agurtu ondoren*)
- An** Hemen naiz, ba, armonia batean.
- S1** Egun on, Antonio, zer arraio gertatzen zaizu, ba?
- An** Eskuineko hanka honek lo hartzen dit.
- S1** Gaez edo egunez?
- An** Gaez neronek ere lo hartzen dut. Egunez, egunez.
- S1** Ea, etzan zaitetz hemen pixka batean.

- E** Belaunaren pareraino jaso ezazu gutxienez galtza barrena.
- S1** Hemen ez da ezer arrarorik ikusten.
- An** Ikusi ez, baina sentitu bai ordea.
- S1** Zuri geldi egoteak kalte egiten dizu.
- An** Ez naiz, bada, asko gelditzen.
- S1** Nik uste dut bizikletaz ibiltzeak mesede izugarria egingo lio-keela zure hanka horri.
- E1** Nire izeba bat ere holaxe ibiltzen zen, eta bizikletaz hasi zenetik txoria baino arinago dabil.
- An** Eta zenbat kilometro egin beharko nituzke?
- E1** Nire izebak egunero hogeiren bat egiten ditu.
- An** Hoge kilometro? Zuek burutik arinduko nauzue...
- E1** Ezetz, ba. Proba egin ezazu eta bi aste barru alde ederra antzemango diozu.
- An** Hala izango ahal da! Hasi hadi orain bizikletari hautsak kendu eta olio ematen. Bi gurpilak zulatuta, frenoak gastatuta.
- S1** Tira, Antonio, horrenbeste aitzakia ere!
- An** Beno, banoa hemendik, zuek maratoina bidaliko nauzue ni bestela eta.
- (Biajanteak sartzen dira eta kontsultarako sarreran geratzen dira, zain, inori kasurik egin gabe)*
- E1** Galtza barrena jaitsi, bizikleta hartutakoan igoko duzu berriro.

- An** A! Eskerrik asko. Izan ere, halako ustekabea jaso ondoren...
- S1** Adio, Antonio. Lasai ibili, Indurainen marka hautsi beharrik ez dago.
- (Patxadan, galtza-barrena eraitsi, makila hartu eta badoa)*  
*(Bitartean itxarongelan)*
- R** *(Biajanteengatik)* Baietz zuek gu baino lehenago sartu!
- A** Ez gaude alferrik gu hemen ordua hartuta.
- B1** Norbait ote dago barruan?
- A** Bai, ni.
- L2** Zer ordutan daukazue zuek hitzordua?
- B2** Ez, gu produktu saltzaileak gara.
- I** Eta ni esne saltzailea, baina txanda itxoin beharra daukat.
- B1** Ordua gaixo daudenek hartu behar izaten dute, ez guk.
- B2** Zaudete lasai, katalogo batzuk utzi besterik ez dugu egin behar eta.
- (Antonio irtetean, biajanteak atea jo eta sartzen dira)*
- B1** Kaixo, behar beharrezko dituzuen botika batzuk dakarzkigu.
- SI** Ez dugu denborarik, lehen ere atzeraturik gabiltza.
- B2** Konturatu gara jendea zain dagoela. Beno, gauza bat egingo dugu, katalogoak hemen utziko ditugu eta beste egun batean pasako gara.
- S1** Bai, hobe, presaka gabiltza eta.

- B1** Agur, bai.
- B2** Ez dizuegu denbora asko kendu, esan bezala.
- I** Trajeatuta etortzeak al ditu holako abantailak?
- R** Ez dut uste arrakasta handiegirik izan dutenik zuen produktuek, azkar bidali zaituztete.
- B1** Onak dira, ez izan zalantzarik.
- A** Zuek eskainitakorik ez ahal dit niri behintzat errezetatuko!
- B2** Mesede ederra zenuke, umorea behintzat hobetuko litzaizuke.
- E1** (*Bionboaren atzetik, hoska*) Concepcion Pinudi, aurrera.
- CO** (*Sartzean*) Kaixo.
- E1** Kaixo, Kontxi.
- KO** Hemen naiz, bada, bisitan.
- S1** Aspaldi ez zintudan inguru honetan ikusi.
- KO** Ez, eta gaur ere ez nator oso gogo onez.
- E1** Kontatu beharko diguzu, ba, zer duzun.
- KO** Zer dudan? Eztula! Ito beharrean jartzen naiz noiznahi.
- S1** Noiz hasi zinen?
- KO** Ez dakit, ba, duela astebete edo.
- S1** Astebete? Eta orain arte noren zain egon zara?
- KO** Zera, sendatu zain.

- E1** Bere kasa joango zitzaizulakoan edo...
- KO** Tipularekin eta eztiarekin-eta saiatu naiz baina. Sendatzen ari naiz baina...
- S1** Baina, zer?
- KO** Zera, gauez ere eztulka hasten naiz tarteka, eta gozoa jartzen zait aldamenetik senarra.
- E1** Holakoa al da, ba?
- KO** Beno! Ez duzue ondo ezagutzen. Bart gauean ere eztulka ari-tzekotan ganbarara alde egiteko esan ez dit bada! (*Erdi negarrez*)
- S1** Lasai, Kontxi. Orain arte eramandako bidea ez zait okerra iruditzen eta jarraitu zure erremedio horiekin. Nik pastilla batzuk emango dizkizut.
- E1** Zuk mesanotxean prest eduki, eta eztulka hasten bazara hauetako bat hartu. Ikusiko duzu zer goxo egingo duzun lo.
- KO** Zer ondo. Ea asmatzen duzun. Beste bat arte.
- E1** Hau komeria hau, etxeko arazoak ere guk konpondu behar!  
*(Atezaina presaka sartzen da, atea jo ondoren)*
- AT** Larrialdi batekin nator, ba
- E1** Zer gertatzen da, Joxe?
- AT** Aldameneko baserrian, bertako aitona sukaldetik ganbarara erori omen da.
- E1** Sukaldetik ganbarara?

- AT** Ene! Ganbaratik sukaldera esan nahi nuen.
- E1** Eta zer du?
- AT** Bi amona ikusten omen ditu baten lekuan.
- S1** Goazen, ez zaigu ezer kostatzen bisita egitea.
- E1** Norbaitek etorri beharko du, ba, gure orde.
- AT** Nik beste biri kasu egin diet, aldatzen ari dira eta oraintxe datoz.
- E1** Ondo, Joxe. Goazen azkar.
- AT** Larrialdi batera joan beharra dute Baina oraintxe datoz ordekoak. Ez larritu!
- (Bihoaz hirurak, bizkor)*  
*(Itsuen loteria saltzailea dator, eta itxarongelan)*
- IT** Gaurko..., gaurko..., itxaropena eta dirua, eskaintza segurua.
- R** Nik, nik. Zazpian bukatzen dena, mesedez.
- IT** Tori, mila esker. Gaurko..., gaurko..., zenbakia hartu, aurpegia alaitu.
- I** Ekatzu niri. Edozer ere berdin zait.
- IT** Hauxe! Gaurko..., gaurko..., itsuen alde, ia-ia debalde.
- A** Sekula ez dut hartzen Baina ekar ezazu bat.
- IT** Tori!
- A** Baina, hamahiruan bukatzen dena eman didazu.



- IT** Hau gehiago gustatzen zaizu?
- A** Bai, bai. Tenerifera bidaia egiteko haina emango balit...
- IT** Gaurko..., gaurko..., aberatsa konturatu orduko.
- G** Ai, ai, itxoin, ez alde egin. Zortzia niri, beti bezala. Aizu, hilabete osoan ez zait ezer tokatu. Posible al da?
- IT** Behar bada kolpetik etorriko zaizu mordoska
- G** Orduantxe eskoba zahar honek emango luke ziztu ederra lei-hotik behera.
- IT** Mila esker, denoi. (*Itsua badoa kantuan, ezkerretik, garbitzailea lagun duela. Une berean, sendagile eta erizain berriak sartzen dira*)
- Eguna zabaldu gaur ere  
eta ezin da oso ondo nabari,  
onartu nauzuen gizon eta andre,  
jaso bizitzan poz ugari.
- (*Langile berriak sartu ondoren*)
- R** Ni izango naiz orain.
- E2** Egun on, Ramona.
- R** Tentsioa hartzera etorri naiz.
- E2** Oso ondo, tarteka begiratzea ez da gaizki etortzen.
- R** Ondo nago, e, espezial. Baina, badakizu...
- E2** Ikusi ondoren hobeto sinetsiko duzula...
- R** Hori da, hori da.

- E2** Ea, eser zaitez lasai, eta berehala ikusiko dugu.
- R** Zutaz fidatzen naiz ni, bai horixe.
- E2** Hamahiru eta zazpi. Oso ondo.
- R** Treze-xiete! Komo una txabala nago orduan?
- S2** Bai horixe, nahiago nuke nik ere zuk bezala edukiko banu.
- R** Hau poza! Datorren larunbatean afarira joateko moduan naiz.
- S2** Jo! Horregatik etorriko zinen aurretik.
- R** Bai, ba. Osasun onarekin umore puntua ere hobea izango ote dudan, bada.
- E2** Ondo ibili, Ramona. Baina zaindu, gero.
- R** Bai, adio! (*Bihoa*)  
*(Garbitzailea agertu da, berriro, ezkerretik. Ambroxiri oinetara begiratu eta, haserre)*
- G** Zapatak lokaztuta ez etorri niri berriro!
- A** Eta horrenbeste euri egin badu zer nahi duzu egitea?
- G** Ba, zapatilak poltsan ekarri eta sarreran aldatu.
- A** Aizu, ez al duzu zure lanerako gehitxo agintzen?
- G** Kobratu gutxi egiten dut eta agindu egin behar gehixeago.
- A** Nagusiaren bulegora joandakoan umilxeago ibitzen ez bazara...
- E2** (*Kontsulta sarreratik, hoska*) Indalezio Bakazio, zure txanda.

- I** Egun on, lehenengo!
- E2** Berdin.
- I** Zer berri dagoen jakiteko irrikitzen nago oraintxe.
- E2** Nola, zer berri?
- I** Zera, aurreko ostiralean analisiak egin nituen, bada.
- E2** A, izan ere! Hementxe ditugu emaitzak.
- S2** Ea, ikusi. Azaldu zaizu koska bat.
- I** Bai? Koska ala amildegia?
- S2** Ez, zaindu beharrekoa.
- E2** Kolesterola daukazu altu samar.
- I** Hara, berriz! Orain arrautzarik ez jateko esango didazue.
- E2** Barazki eta fruta asko jateko, eta gozo gutxi.
- I** Goizeko gosariari bizkotxo eta kruasanak nahastea gustatzen zait, bada, niri.
- S2** Ba, horien ordeztu laranja zukua hartu behar zenuke.
- I** Zukua? Baina ahuldadeak jota naiz berehala.
- S2** Behar bezala jateak ez du esan nahi gutxiago jateko.
- I** Gustatzen ez bazaizu, beharko gutxiago jan!
- S2** Zuk ikusiko duzu, Indalezio, zure gorputza zaindu edo ospitalerako bidean jarri, gutxiena uste duzunean.

- I** Tira, ba. Beldurra sartzen hasi zara eta banoa hemendik fruta eroatera.
- E2** Ondo joan, Indalezio.
- E2** Leon Jalea, nahi duzunean.
- (Leon aita-semeak sartzen dira)*
- L2** Tripako minez pasa du gau osoa. Esaten diot nik gutxiago afaltzeko Baina honek duen sakearekin astoa ere jango luke.
- S2** Orain larri. Eta sakea izatea zeri deitzen diozu zuk?
- LI** Oilasko osoa jan nuen. Izeba batek oparitu zigun, ederra zegoen eta nik dena jan.
- L2** Hola da, bai. Izter bat besterik ez nuen jan nik. Baina, segi, segi, konta iezaiezu dena.
- E2** Oilasko osoa jan ondoren, oraindik gehiago?
- LI** Gazta puska bat ondoren eta intxaur batzuk.
- L2** Gazta laurdena esan nahiko duzu, eta bi dozena intxaur.
- S2** Jesus, Maria eta Jose! Ez zinen gosez geratuko!
- E2** Zure ondoan afaltzera ez noa behintzat ni.
- L2** Behin baino gehiagotan geratu naiz gosez ni ere.
- S2** Ez naiz harritzen. Orain konpontzea nahiko duzu?
- LI** Horretara etorri naiz, adreiluz beteta bezala sentitzen naiz eta.

- S2** Ba, bere denbora eman beharko diozu. Ez jan ezer, eta gosen hasitakoan likidoak bakarrik hartu.
- L2** Laster ahaztuko zaizkio honi hemengo kontuok.
- E2** txokolatina bat nahi al duzu?
- LI** Ez horixe!
- L2** Nik jango dut zure ordeaz. Eskerrik asko.(Leontarrak irtetearekin batera) Anbroxi! Sar zaitezke!
- S2** (*Sartu orduko*) Adio, bikote, beste bat arte.
- A** Baja papera prest al daukazue?
- S2** Baja? Sendatuko zinen honez gero!
- F1** Sendatu? Ez arraioa. Oraindik ere nire eztarri hau ez da bere onera etorri.
- S2** Baina, eztarriko minez bi aste daramatzazu bajaran eta.
- E2** Zertan egiten duzu lan?
- A** Bulego batean nabil.
- S2** Lanerako moduan izango zara zu. Ea, ireki ahoa. Hemen ez da ezeren arrastorik, prestatu alta honi.
- A** Buruko minez ere banabil, ba, ezkerraldetik begiraino.
- S2** Aspirina pare bat hartu. Segi alta prestatzen.
- A** Baina estresatuta nabil ordea.
- S2** Estresa? Zuk hondatuko duzu enpresa. Alta!

- A** Mediku goxoagorik ez ote dut merezi?
- E2** Kito, prest daukazu alta, zure lantokian erakutsi behar duzu.
- S2** Ondo segi, Anbroxi, benetan gaixotutakoan azaldu.
- A** Ez alferrik! orain lanean hasi behar nik! eguzkia hartzeko horrelako eguraldi bikainak egiten dituenean. (*Badoa*)
- E2** Aurpegi latza du honek ere, eguzkia hartzeko baja!
- S2** Bukatu al dira denak?
- E2** (*Altxa eta begiratu ondoren*) Bai, hemen ez dago beste inor.
- S2** Goazen, hortaz, gure lana antzerki bihurtu baino lehen.  
(*Mantalak erantzi eta ateratzen dira*)



# GAZTETXEAN EDO GAZTA ETXEAN

Agustin Amiano, irakaslea  
Zumadi herri ikastetxea  
Amezketan  
2001

GAIA

Sukalde epelean aiton-amonen elkarrizketan eta biloba gazteen elkarrizketan sortzen diren kontraesan eta oker ulertuak.





## **PERTSONAIAK**

Amona Kuxtodi  
Aitona Pio  
Zepeina  
Margari  
Koxme  
Sara  
Aitor  
Edurne  
Iker  
Agoazila  
Saltzailea  
Bi erosle

## **EKITALDI BAKARRA**

### **1. agerraldia**

*(Arratsaldea da eta aiton-amonak sukaldean daude goxogoxo. Amona Kuxtodi galtzerdia josten ari da eta aitona Pio makila zuritzen)*

#### **Kuxtodi**

Pio, ez al zara aspertzen makila zuritu eta zuritu? Zeinentzat dituzu horrenbeste makila?

- Pio** Margarik eskatu dizkit, eskolan behar omen dituzte, antzerki bat egiteko edo...
- Kuxtodi** Gure eskolan makilarik azaltzen bazen denok dardarka jar-tzen ginen. Ipurdi aldean seinale ederrak erabilitakoa naiz neroni ere.
- Pio** Zuk, ez dakit, baina ni behintzat atzamar muturrak ederki minberatuta nituela azaltzen nintzen etxera. Jarri honela eta sasta! (*erakutsiz*)
- Kuxtodi** Okerrak egingo zenituen eta, Pio.
- Pio** Okerrak ez, Kuxtodi, ez nuela ikasten, horixe, besterik ez.
- Kuxtodi** Eta makilarekin atzamarrak minberatuta hobeto ikasten al zenuten?
- Pio** Bai zera! Bazen bat, Don Anselmo izenekoa, gailegoa uste dut zela, "tú en la cabeza sólo tienes sopas de ajo" esaten zidan. "Pon la mano" hurrena, eta sasta! Nik orain harrapatu-ko banu...
- Kuxtodi** Zer egingo zenioke, bada?
- Pio** "Yo sopa de ajo, pero tú asto-pixe" esango nioke.
- Kuxtodi** (*Barrez*). Ez lizuke ulertuko.  
  
(*Atea jo dute eta Zepeina sartu da, Kuxtodiren laguna*)  
  
Sartu aurrera!

## 2. agerraldia

*-Lehengoak eta Zeferina-*

- Zepeina** (Agertuz). Arratsalde on!
- Kuxtodi** Hara, Zepeina, etorri zara. Aurrera, aurrera... Eser zaitez hementxe.
- Zepeina** Denbora gutxi egongo naiz, pelukeriarako ordua hartu dut eta.
- Kuxtodi** Tarte bat egin beharko duzu. behintzat, kafesne bat hartuz, Zepeina.
- (Zutitu da eta kafesnea prestatzeari ekin dio)*
- Pio** Nik ere kafesne bero bat hartuko nuke.
- Kuxtodi** Bai, gizona, ez zaitut ahaztuta utziko.
- Pio** Eskolako kontuez ari ginen, Zepeina.
- Zepeina** Izan ere, zuek alaba maistra daukazue eta.
- Pio** Bai, baina aspaldiko kontuak berritzen ari ginen.
- Zepeina** Aspaldikoak nolabaitekoak izango ziren, baina oraingoak behintzat ez dira gaizki bizi.
- Kuxtodi** Gure Margari ez da, bada, askotan gozoa etortzen.
- Zepeina** Bah! Bi edo hiru umerekin haserrealdiren bat, baina hori zer da, bada? Zenbaitentzat herri osoa da txarra.
- Pio** Gaurko zenbait ume ere...
- Zepeina** Baina hiru edo lau ordu han egon eta libre, eta gainera noiz-nahi oporretan daude.

**Pio**                   Zaude isilik, gure alaba laster etorriko da eta.  
*(Margari sartu da, kopeta beltzarekin)*

### 3. agerraldia

*-Lehenagoak eta Margarita-*

**Margari**           *(Haserre)*. Arratsalde on, zerbait esateagatik.

**Zepeina**           Lasaitu zaitetz, emakumea, lau egun bizi behar eta.

**Margari**           Nik gehiago pasatzeko asmoa dut.

**Pio**                   Oporretarako egun batzuk besterik falta ez direnean jenio horrekin?

**Margari**           Aita! Ikasle batzuk gero eta lotsagabeagoak dauzkat. Hara! txiki-txiki egingo nituzke. Nerbioak hortzetaraino zabaltzen dizkidate.

**Zepeina**           Lasai, emakumea, gaurko lana bukatu duzu eta.

**Margari**           Gero ederki bizi garela esango du zenbaitek...

**Zepeina**           Badakizu jendea nolakoa den. Ez kasurik egin.

*(Amona dator kafesneekin)*

**Kuxtodi**           Kafesne bero-beroa denontzat.

**Zepeina**           Eskerrik asko, Kuxtodi. Hauxe hartu eta banoa.

**Margari**           Um! Hau baino trago txarragoak pasa ditu gaur.  
*(Koxme, aita, pilotariz jantzita sartu da gelan)*

#### 4. agerraldia

*-Lehengoak eta Koxme-*

- Koxme** (Agertzean) Ari zarete...
- Kuxtodi** Bai, zuk ere har ezazu kafesne bat, pilotan saioa egin aurretik.
- Koxme** Ez, presaka nabil, lagunak zain ditut etxe aurrean.
- Pio** Koxme, takoak jarri al dituk?
- Koxme** Bah! Horiei irabazteko ez dut tako beharrik.
- Margari** Gero hor etorriko zara eskua globoa bezala puztuta, etxeko izotz guztiak beharko dituzu.
- Koxme** Bai zera! Gero arte!
- Pio** Adio, Titin, bigarren koadrora iritsi ezin.
- Koxme** Aizu, Pio, ezkerrarekin bakarrik egingo dizut desafio.
- Pio** Segi, Beloki, jokatu beharko duk hobeki.
- Koxme** Banoa, honek latzak esan baino lehen. (*Bihoa*)
- Zepeina** Adio, Koxme. Eta ni ere banoa, presaka nabil eta. Aldizkari batzuk ekarri dizkizut, Kuxtodi.
- Pio** Bueno! Izango da txoro kontu ugari.
- Zepeina** Bai bada, ezkontza handik eta kondesa beste aldetik eta...
- Kuxtodi** Mila esker, denbora pasatzeko zerbait behar izaten da beti.
- Aepeina** Beno, bihar zu etorri gure etxera, Kuxtodi.

- Kuxtodi** Bai, eta etzi edo azalduko naiz.
- Zepeina** Adio, denoi, ondo segi. (*Bihoa*)
- Margari** Ama, kafesne hau hartuta asko lasaitu naiz.
- Kuxtodi** Noski, Margari, eserita kontu batzuk esateak asko lasaitzen du, eta kafesne bero batekin bada, gehiago oraindik.
- Pio** Bokadilo eder bat jan ezazu orain urdaiazpikoarena, eta primeran geratuko zara. Eta baso bat ardo edaten baduzu, hobeto.
- Margari** Horixe egin behar dut gainera, aurrena dutxatu eta gero bokadiloa jan.
- Kustodi** (*Margari badoa eta une horretan atea jo dute*)
- Aurrera!

## 5. agerraldia

*-Pio, Kuxtodi eta Agoazila-*

*(Agoazila agertzen da atean)*

- Pio** Herriko agoazila da. Aurrera, aurrera!
- Agoazila** Arratsalde on, kontadoreak ikustera nator.
- Pio** Bai, begiratu lasai.
- Agoazila** (*Kontadorea dagoen tokira joan, begiratu eta apuntatuz*).  
Ea: 3457. Ur asko gastatu duzue, eh! Asko kobratu dutela-eta ez kexatu gero!
- Kuxtodi** Izan ere gure etxe honetan batzuk egunero bi edo hiru aldiz dutxatzen dira. Ez dute zikin handirik izango.

- Pio** Ardo trago bat nahi al duk?
- Agoazila** Ez, estimatua dago, baina oraindik beste hogeit hamar etxe falta zaizkit eta bakoitzean baxoerdi bana edango banu...
- Pio** *(Barrez)* Zenbaki zuzenak apuntatuko hituzke azkenerako.
- Agoazila** Adio, familia, ondo segi. *(Badoa)*
- Kuxtondi** Ur asko gastatu? Noski! Egun osoan dutxa martxan dago, erlaxatzeko bainera ona omen da... gastatuko ez dugu, bada.
- (Sara, etxeko biloba, etxera dator beste hiru lagunekin)*

## 6. agerraldia

*-Pio, Kuxtondi, Sara, Aitor, Edurne eta Iker-*

- Sara** *(Lagunekin sartuz)* Kaixo, aitona, kaixo, amona. Lagun batzuekin etorri naiz bilera bat egitera.
- Aitor** Iepa!
- Edurne** Etorri garela!
- Iker** Ondo al zarete?
- Kuxtondi** Hala esan beharko.
- Sara** Zuek ez larritu, gu hementxe bilduko gara. *(Mahai inguruan esertzen dira)*
- Pio** Bai, bai, gazteen inguruan egoteak poza ematen dit niri.
- Sara** *(Lagunei)* Coca Cola bana nahi al duzue?
- Aitor** Atera ezan, bada, neska!



- Edurne** Horixe, bestela denak herorrek edango ditun eta.
- Iker** Hi, kolega, freskoa atera ezan gero!
- Pio** (*Amonari*) Zer esan du? *Kolega?* Hori zer arraio da?
- Kuxtodi** Ez dakit, gizona, ni gazteen hizkuntzan galduta nabil.
- Aitor** Aizan, Sara, kakahuete batzuk-edo atera itzan, ahoa pixka bat goxatzeko.
- Sara** Itxoin ezak pixka bat, ea aurkitzen ditudan.
- Edurne** Bitartean hasi egingo gara.
- Iker** Bai, ea, nola eskatuko diogu gaztetxea alkateari?
- Aitor** Kanean pasatzen denean, gelditu eta eskatu egingo diogu.
- Edurne** Nola esan hezake, bada, horrelako *parida?* (*Pentsatzen*)
- Aitor** Zer ba?
- Pio** Aizu, Kuxtodi, zer da *parida?*
- Kuxtodi** Nik parrila zer den badakit, baina beste hori ez.
- Edurne** Baina, Aitor, kontu hauek hori baino gauza serioagoak dituk, eta udaletxera joan beharra zagok. Han hitz egin behar diagu alkatearekin.
- Sara** Arrazoi dun Edurne! Nolanahi ere lanak emango dizkin kontu honek eta seriotasun pixka bat eman behar zionagu.
- Iker** Gaztetxea lortzekotan gauzak ondo pentsatuta abiatu behar diagu, tio.
- Pio** Zer, zer nahi zenuten?

- Sara** Zuri ez dizu esan, aitona.
- Pio** Pio ez al du, bada, esan? Ni naiz hemen Pio.
- Sara** Pio ez, *tio* esan du.
- Pio** Dagoeneko osaba egin al da?
- Iker** Ez du horrekin zerikusirik, gizona.
- Kuxtodi** Utz itzazu bakean, Pio, beraien kontutan ari dira eta.
- Pio** Nik Pio ulertu diot ordea.
- Iker** (*Mahaikoei*) Beste era batera egingo dugu.
- Edurne** Bota, Iker, hi haiz hemengo ideologoa.
- Iker** Eskutitz bat bidaliko dinagu udaletxera, txukun-txukun eta goxo-goxo idatzita, bilera bat eskatuz.
- Aitor** Zuzenean gaztetxea eskatzea ez al da hobe?
- Sara** Arrazoi du Ikerrek. Eskutitz bat idatziko diogu alkateari, eta bildutakoan esango diogu zein den gure asmoa.
- Edurne** Hori duk burutazioa, *tronko!* (*Hausnartzen*)
- Pio** Nola esan du,? *tronko?*
- Kuxtodi** Hala ulertu diot neronek ere.
- Pio** Eta aizkolaria al da?
- Kuxtodi** Nik zer esango dizut, bada.
- Aitor** (*Esnatuz bezala*) Eta nork jarriko dio zintzarria katuari?

- Sara** Herorrek, Aitor. Hi idazle txukuna haiz.
- Edurne** Egia, hik begiak itxita ere idatziko huke, bertsotan, gainera.
- Iker** Ez alferrik! Alkatea bertsolaria balitz, bai!
- Aitor** Ondo dago, ondo dago, horrenbeste lore bota ondoren neronek egin beharko dut, bestela
- Sara** Hori duk, Aitor, hi haiz gure salbazioa.  
*(Atea jo dute eta alfonbra saltzailea sartuko da)*
- Pio** Banoa zein den ikustera. *(Atera hurbiltzerako barruan du, baina aurrerago sartu gabe)*

## 7. agerraldia

*-Lehenagoak eta Saltzailea-*

- Saltzailea** *(Gazteek irriz jarraitzen dute episodioa)* Alfonbra, Joxemari, merke ta ona.
- Pio** Hara berriz, hauxe falta zitzaigun.
- Saltzailea** Kalitate espeziala, Joxemari.
- Kuxtodi** Ez dugu beharrik, ordea.
- Saltzailea** ¿Cuánto, Joxemari? Diez mil y para tí.
- Pio** Baita zera ere!
- Saltzailea** Dí cuánto. Ocho, ocho mil, Joxemari.
- Pio** Gure etxean nahiko alfonbra bada lehendik ere.

**Saltzailea** Bost, Joxemari. Bost mila, bueno, bonito, barato.

**Pio** Ezetz, ezetz, beste nonbait saldu beharko dituzu.

**Saltzailea** Gau on pasa, Joxemari.

*(Joan da saltzailea)*

## 8. agerraldia

*-Lehengoak, Saltzailea izan ezik-*

**Sara** *(Barrez)* Izena aldatu dizute, aitona.

**Pio** Horrelakoek pena ere ematen zidaten baina...

**Aitor** *(Eurenera bilduz)* Tira, hel diezaiogun geureari. Zuek esai-dazue nolako eskutitza egin behar dudan.

**Edurne** Moldatuko haiz, motel.

**Aitor** Baina zer jarri behar dut?

**Sara** Bilera egin nahi dugula...

**Iker** Gazte taldearen izenean.

**Edurne** Patxadaz hitz egiteko gogoia dugula.

**Sara** *Alkate jaun agurgarria* jarri hasieran.

**Iker** *Alkate jaun gorena.*

**Edurne** *Alkate jaun txit argia.*

**Aitor** Zeuek egin ezazue.

**Sara** Ez, ez, hik oso ondo egingo duk.

**Edurne** Luze samarra egin ezak.

**Iker** Oso luzea ere ez duk komeni.

**Sara** txapa handiegia ez dugu bidali behar. (*Isilunea*)

**Pio** Alkateari txapa puska bat bidaltzeko asmorik ez dute izango, bada?

**Kuxtodi** Ez ahal dute horrelakorik egingo!

**Pio** *Txapa* horrek zer esan nahi duen jakingo nuke nik gustura. (*Belarria gazteenganantz*)

**Iker** Gero asanbladako gazte guztiok sinatuko diagu.

**Sara** Ez! Izutu egingo duk. Pare batek sinatzea nahikoa duk.

**Edurne** Bukaeran, *Jainkoak urte askotarako guarda*, jarri.

**Aitor** Tira, hi! Hori kristoren bazilea dun. (*Isilunea*).

**Pio** Zer esan du, Brasilera doala?

**Kuxtodi** Lekutara! Brasil hori Santander baino urrutiago dagoela uste dut eta.

**Iker** Ez dinagu gehiegi *bazilatu* behar, e!

**Pio** Berriz ere Brasilgo kontuekin.

**Aitor** Eskuz ala makinaz idatziko dut?

**Edurne** Eskuz.

**Iker** Makinaz.

**Sara** Makinaz! Letra txukunagoa aterako da.

**Edurne** Eta sinadurak?

**Sara** Sinatu makinaz nola egingo dun, bada, kirtena.

**Edurne** Egia!

**Iker** Biharko gazte asanbladarako eraman ezak, *sin falta*.

**Aitor** Hi, arnasa hartzen utziko al didak, behintzat.

**Sara** Bai, motel, egingo duk.

**Aitor** Uff! Tira, saiatuko naiz bada.

**Edurne** (*Zutitu da*) Hori duk, mundiala haiz.

**Aitor** Goazen hemendik, denak nazkatu baino lehen.

**Iker** Gaztetxea gurea duk.

**Sara** Hasi hadi, idirik gabe uztarria jartzen.

**Edurne** Goazen, Bernardo Atxaga.

**Sara** (*Une horretan atea jo dute. Bi erosle dira, tresna zaharrak erosten dituztenak*)

Aurrera, beldurrik gabe!

## 9. agerraldia

-Lehengoak eta bi erosle-

**Erosle 1** Arratsalde on.

- Sara**                    Baita zuei ere.
- Erosle 2**                Koltxoi zaharren bila gabiltza.
- Sara**                    Oker zabiltzate. Hemen berriak dira denak. Nik seko lo egi-  
ten dut edozeinetan.
- Erosle 1**                Paretako erlojurik?
- Sara**                    Ez da horren beharrik.
- Erosle 2**                Urrezko edo zilarrezko txanponak?
- Sara**                    Nik nahi nituzkeenak.
- Erosle 1**                Garai bateko irrati zaharrik ez da izango?
- Sara**                    Balitz ere ez nizuke esango.
- Erosle 2**                Hausporik edo?
- Sara**                    Bai, hauspoa bai, nire aitonari berotzen zaiona jende arrotza  
ikusitakoan. Eta zoazte hura inguratu baino lehen.
- Erosle 1**                Barkatu, gazte, beste bat arte.  
  
*(Erosleak joan dira eta baita lau gazteak ere aitona-amonak  
agurtu ondoren)*
- Sara**                    Bagoaz, gero arte.
- Kuxtodi**                Agur, denoi, agur, Sara, garaiz etorri gero!
- Sara**                    Bai, amona, ilundu baino lehen.  
  
*(Aitona eta amona geratu dira sukaldean)*

## 10. agerraldia

*-Pio eta Kuxtodi-*

- Pio** Gazte hauei zerbait ulertu al diezu, Kuxtodi?
- Kuxtodi** Ez, gizona, gaztetxearena zerbait, baina, auskalo, zer den hori.
- Pio** Gazta gordetzeko etxea egin behar ote dute?
- Kuxtodi** Ez da horrelakorik izango.
- Pio** Gaztarentzat armairu txiki bat nahikoa da behintzat.
- Kuxtodi** Gazte kontua izango da, ez gaztarena.
- Pio** Eta gazta aipatu dugunean, meriendarako garai polita ez al da?
- Kuxtodi** txarra ez. Gazta eta ogia atera itzazu.
- Pio** Ai, Kuxtodi, gaztea izatea ederra da, baina gazta eder bat edukitzea beharrezkoa.
- Kuxtodi** Zein xelebrea zaren, Pio!





**ESKOLA ANTZERKIA 1-8:  
ANTZEZLAN GUZTIEN  
ZERRENDA**



Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
110. street-eko geltokia	Eskola Antzerkia 8	15
Afaria prestatzen	Eskola Antzerkia 4	15
Aintzinakeriak	Eskola Antzerkia 4	23
Alberto eta bere lagunak	Eskola Antzerkia 8	53
Altxor arkeologikoa	Eskola Antzerkia 4	41
Amama Benidorrera	Eskola Antzerkia 2	17
Amona honekin... kontuz	Eskola Antzerkia 8	73
Amonaren urtebetetzea	Eskola Antzerkia 2	35
Antonino Apreta	Eskola Antzerkia 4	49
Aramaioaren deabrukeriak	Eskola Antzerkia 4	61
Arin-arin erbia	Eskola Antzerkia 4	69
Arraintxoak	Eskola Antzerkia 4	75
Asteburu aztoratua	Eskola Antzerkia 7	19
Atrakoa	Eskola Antzerkia 2	49
Axeria eta otsoa lagun ederrak	Eskola Antzerkia 2	61
Azken luzea	Eskola Antzerkia 4	87
Aztia	Eskola Antzerkia 8	89
Barre egiten ez duen erregea	Eskola Antzerkia 8	101
Bazasor banda	Eskola Antzerkia 4	137
Bederatzi ez da bederatzi	Eskola Antzerkia 4	149
Begi-bakarren beste begia	Eskola Antzerkia 8	125
Bermeoko portuan	Eskola Antzerkia 8	143
Berta, Berta, agertu zaitez	Eskola Antzerkia 8	151
Bi jango ditut	Eskola Antzerkia 1	23
Bi-bit martzianoa	Eskola Antzerkia 6	25
Bost anai-arrebak	Eskola Antzerkia 6	33
Dena izango da izan behar duen bezala	Eskola Antzerkia 7	45
Diruak sendatu du	Eskola Antzerkia 7	65
Egia bazan, sar dadila kalabazan	Eskola Antzerkia 2	89
Enperadorearen jantzi berria	Eskola Antzerkia 4	171
Erniora txango	Eskola Antzerkia 8	181
Errekaloreak	Eskola Antzerkia 6	43
Esaten omen dute	Eskola Antzerkia 8	165
Eskale musikariak	Eskola Antzerkia 1	35
Eskolatik goizegi	Eskola Antzerkia 8	199
Esne-saltzaileak	Eskola Antzerkia 7	79
Estatua mugikorrak	Eskola Antzerkia 1	47
Eta horrela bizitzen gera	Eskola Antzerkia 8	231

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Eta, bazkalondoan	Eskola Antzerkia 8	219
Etxe hau bai dela guai!!!	Eskola Antzerkia 2	111
Gaixo	Eskola Antzerkia 8	253
Gaztarik onenak... Arantzazukoak	Eskola Antzerkia 4	185
Gaztetxean edo gazta etxean	Eskola Antzerkia 8	271
Geurea, zaharretxea	Eskola Antzerkia 6	55
Gizon bizarpeituti eta emazte bizastsuti	Eskola Antzerkia 1	61
Haragi egosia saltsan	Eskola Antzerkia 4	203
Herensugearen burua	Eskola Antzerkia 4	215
Iker Miker	Eskola Antzerkia 1	97
Ilun	Eskola Antzerkia 6	79
Intsumisioa	Eskola Antzerkia 6	173
Ipotxaren etxea	Eskola Antzerkia 2	139
Ipotx-kalea	Eskola Antzerkia 2	129
Itsasminetz	Eskola Antzerkia 2	151
Itsasoan galduak	Eskola Antzerkia 4	223
Itsuak	Eskola Antzerkia 4	249
Iurretoneko madarikazioa	Eskola Antzerkia 2	163
Izen gabekoa	Eskola Antzerkia 7	87
Jontxuren egoera larria	Eskola Antzerkia 2	189
Joxemari Iparragirre	Eskola Antzerkia 1	109
Kaixo, zer moduz? Lapurketa arraroa	Eskola Antzerkia 7	117
Kalamitate baten komeriak	Eskola Antzerkia 6	91
Korsario komeriantek	Eskola Antzerkia 6	115
Lagun zauritua	Eskola Antzerkia 7	129
Lapurtxoa	Eskola Antzerkia 1	141
Lau ipotxen bizimodu ibiltaria		
askatasunaren bila	Eskola Antzerkia 1	165
Lehenengo oporrak	Eskola Antzerkia 1	181
Lekurik bai...?	Eskola Antzerkia 5	15
Liburu majikoa	Eskola Antzerkia 6	143
Lortuko ete dogu?	Eskola Antzerkia 4	261
Magia dela medio	Eskola Antzerkia 4	275
Maite, herri txiki batetako neskatoa	Eskola Antzerkia 4	289
Mak, ikertzaile ausarta	Eskola Antzerkia 3	17
Maritxu nora zoaz?	Eskola Antzerkia 5	65
Martzianoen bisita	Eskola Antzerkia 3	35
Mexikotik Euskal Herrira	Eskola Antzerkia 6	159

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Mireni laguntzen	Eskola Antzerkia 7	145
Mosketeroen misio barregarria	Eskola Antzerkia 1	201
Mugako jostailuak	Eskola Antzerkia 3	49
Musu baten bila	Eskola Antzerkia 5	87
Naporen istorio historikoak	Eskola Antzerkia 3	73
Non ote da Sol?	Eskola Antzerkia 3	103
Nonbait, ez oso urrutian	Eskola Antzerkia 7	159
Nontzeberri enparantza	Eskola Antzerkia 5	117
Norentzat ari dira iruten hiru atsoak?	Eskola Antzerkia 3	113
Nueva Zaragozako herritarrak	Eskola Antzerkia 5	127
Orreaga	Eskola Antzerkia 1	215
Osaba Inaxioren azken agiria	Eskola Antzerkia 1	227
Ostadarra ukitu zuen neskatxa	Eskola Antzerkia 1	245
Paisa	Eskola Antzerkia 1	273
Pic-nic	Eskola Antzerkia 3	125
Poti	Eskola Antzerkia 3	151
Printze zorionsua	Eskola Antzerkia 3	173
Ramontxu herensugea	Eskola Antzerkia 7	179
Rutinaren itzala	Eskola Antzerkia 5	159
Sei anaiak	Eskola Antzerkia 7	187
Sor-gin hauek!	Eskola Antzerkia 5	177
Sorgina baserrian	Eskola Antzerkia 7	199
Tangala danba	Eskola Antzerkia 5	187
txibistoren erbia	Eskola Antzerkia 3	195
tximatoli helia	Eskola Antzerkia 3	215
txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa	Eskola Antzerkia 7	207
Ur tanta baten historia	Eskola Antzerkia 6	185
Urrestillako musiketeroak	Eskola Antzerkia 7	225
Urrezko larrosondoak	Eskola Antzerkia 7	231
Urruletako bainuetxea	Eskola Antzerkia 5	207
Zentimetroak 93	Eskola Antzerkia 5	251
Zer eman, hura hartu	Eskola Antzerkia 6	197
Zeroen sorotan	Eskola Antzerkia 3	237
Zubi gizakiak	Eskola Antzerkia 6	215
Zurineren anaia	Eskola Antzerkia 3	251







